



# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO**

## **UDAL LEGEAREN PROIEKTUA**

*Gobernu Kontseiluan onartzeko testua*

*2014ko azaroaren 11*




## ZIOEN AZALPENA

### I

Udal Legea da Euskadiren egituraketa juridiko-instituzionalerako arau juridikorik garrantzitsuenetakoa, eta, hala ere, 1979an EAeko autogobernua berreskuratu zenetik, hogeita hamabost urte igaro dira dagoeneko, Euskadiko Udal Legea oraindik onartzeke. Harrigarria da legea onartzeko modurik eduki ez izana, nahiz eta horren premia benetan larria dela iritzi ia aho batez, bai doktrinan bai sentsibilitate politiko desberdinetan; izan ere, hasieratik bertatik, EAeko autogobernuaren egitura juridiko-instituzionalaren zutabeetako bat izan beharko zukeen; hiruko egitura dela esan daiteke, hiru mailatan oinarritzen baita, bakoitzak profil berezia eta eskumen propioak dituela: erakunde komunak, lurralde historikoak, eta udalerriak eta gainerako toki-erakundeak.

Ondo jakina den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura juridiko-instituzionala hiru maila instituzional horien arteko egituraketan oinarritzen da, non maila, jatorri, eduki eta irismen desberdineko arau juridikoek elkarri eragiten dioten. Hala, 1978ko Espainiako Konstituzioak eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Autonomia Estatutuak –Gernikako Estatutua deitua– Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketa zehazten dute. Bestalde, erakunde komunak (Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarra) eta lurralde historikoetako foru-organoen (foru-aldundiak eta batzar nagusiak) arteko eskumen-banaketa arduratzen dira Gernikako Estatutua eta Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa, Lurralde Historikoen Legea izenez ezagutzen dena. Horrez gain, Kontzertu Ekonomikoak –gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomikoa Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak arautua– EAek estatuarekin dituen finantza- eta zerga-harremanak arautzen ditu, eta, hortaz, EAeko finantza- eta zerga-sistemaren bizkarrezurra da. Eta, azkenik, lurralde historikoetako foru-arauen zerrenda zabal batek lurralde historiko horien eskumenak diren arloak arautzen ditu, eta, udalerriei dagokienez, baita haiei zuzenean eragiten dieten gai batzuk ere, kontu espezifiko batzuetan; hala nola lurralde-mugaketak, udalez gaindiko erakundeak, aurrekontuak, finantzak eta tokiko ogasunak.

Baina Euskadiko Udal Legerik gabe, EAeko eraikin instituzionala osatu gabe zegoen, eta



horregatik zen beharrezkoa lege hau onartzea, Euskadiko gobernuaren hiru maila instituzionalak josteko prozesua burutu ahal izateko. EAEko udalek eta gainerako udal-erakundeek, orain arte Udal Legerik eduki ez dutenez, urritasuna ezaugarri izan duen arau-esparru instituzional batekin moldatu behar izan dute. Egia da lurralde historikoek bakoitzak bere lurralde-eremuko udalerrietan eta toki-erakundeetan zuzenean aplikatzekoak diren foru-arauak onartu dituztela, bai zerga-arloan eta arlo ekonomiko-finantzarioan, bai beren eskumeneko beste arlo batzuetan. Baina egia da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak lege propiorik ez duenez udal-kontuak osotasunean jorrazteko, Euskadiko udaletako eta gainerako toki-erakundeetako gobernu-organismoek toki-araubideari buruzko Estatuko oinarrizko legeria eta Eusko Legebiltzarrak onartutako lege sektorialak aplikatu dituztela, eta lege sektorial horiek hainbat esparrutan eragin dutela, eta, kasu askotan, gainera, zuzenean eragiten dutela udal-eskumenetan (esaterako, hirigintzan, ingurumenean, gizarte-zerbitzuetan, eta abar). Alta, horrek guztiak, orain arte, ez du konpondu arazoa, alegia, EAEko udalei esparru juridiko propioa ematea, egonkortasuna eduki eta beren autogobernua gauzatu dezaten, beren helburu nagusia betetze aldera: hots, herritarren eskaerei erantzutea, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa baita.

Legeak eskumenak argitu nahi ditu, segurtasun juridikoa emateaz gain, udalerraren egiteko instituzionala indartzeko, eta finantzaketa egokia emateko toki-erakundeek finantza-jasangarritasuna izan dezaten, eta, hartara, herritarrei zerbitzuak egoki emango zaizkiela berma dadin. Ildo horretatik, legearen funtsezko alderdiekin batera –hala nola araubide instituzionala, eskumenak eta abar–, orobat, azpimarratzekoa da –Europar Batasuneko araudiarekin bat, eta Konstituzioan eta legeetan aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioari lotutako erreforma egin ondoren– zer-nolako garrantzia hartu duten arkitektura instituzional ekonomiko-finantzarioarekin lotutako alderdiek toki-araubidearen garapenean, eta horrek are beharrezkoagoa egiten du erreforma hori egin baino askozaz lehenago ere etengabeko eskaera zen hori; alegia, ezinbestekoa da EAEko udalak zuzenean eragiten dieten organoetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan egotea, aurrerantzean ez daitezten izan halako tutoretza mailaren mende dauden administrazioak, tutoretza horrek ez baititu beti errespetatzen udalei dagozkien funtzio garrantzitsuak, eta, gainera, tutoretza hori ez baita beti bateragarri udalek bermatuta eduki behar duten tokiko autonomiaren errespetuarekin.

Bistan da Euskadik autonomia-erkidego gisa egindako bidean beti hor egon dela udal-lege



baten premia, eta, horregatik, legea prestatzeko hainbat testu, aurreproiektu eta proiektu egin dira, baina arrazoi batzuk ala beste batzuk tarteko, ez dira lege-mailako arau bihurtu. Gaur egungo egoera politikoan, EAEko Udal Legea onartzeko prozesua bultzatzeko lagungarri izan den aukera bat sortu da, bistakoa baita, beste garai batzuetan ez bezala, ordezkariak duten EAEko indar politiko eta instituzio guztiak bat etorri direla legea onartzea atzerazintzat jotzen. Halaber, argi zegoen edukiak izendatzaile komunitate txikiak ezarri behar zuela, sentsibilitate politiko desberdinetako eta Euskadiko hiru maila instituzionaletako ordezkariak ahalik eta zabalena ados jar zedin lortzeko. Izan ere, eragile politiko eta instituzional guztiak jakitun ziren horrelako lege batek babes zabala behar zuela, aurrera ateratzea ez ezik denboran irautea lortu nahi bazen. Legea onartzeko prozesuaren zailtasuna bi alderditan islatu da argi eta garbi: lehenik, edukian, benetako urregintza-lan juridiko-politikoak egin baita, erabakiaren mesedetan, denen ekarpenak jasota gera daitezkeen saiatzeko; eta, bigarrenik, edukiaren azken definizio eta zehaztapena lortzeko jarraitutako prozedura konplexuan.

## II

Iturrien gaian, legeak aurrekari historikoak eta gure udal-sistema foralaren ondare juridikoa hartu ditu kontuan; alegia, foruak deuseztatu artean foru-lurraldeetan indarrean egon zen toki-erakundearen zuzenbidea. Gure udal-zuzenbide historikoak oso kontuan hartzen zuen herrialdean udal-antolakuntzan zegoen aniztasuna, eta, ondorioz, zeuden udal-erakunde motei egokitutako eredu juridiko-politikoak arautzen zituen, zeinen artean nabarmentzekoak diren, adibide modura, hiribilduak, bastidak, kontzejuak, ermandadeak, elizateak eta parrokiak, udalez gaindiko hainbat erakunde, merindadeak, bailarak, kuadrillak eta abar. Eredu horrek, lurralde bakoitzean berezitasunak izanik ere, elementu komun garrantzitsuak ditu Pirinioen bi aldeetara, doktrinarik babestuenak agerian jarri duen bezala. “Foru-udalerrian” ere –hala izendatu du doktrinak– nabarmenak ziren toki-erakundearen eskumen zabalak, beren burua antolatzeko, arautzeko eta kudeatzeko zuten ahalmen handia –baita arlo ekonomikoan, udal-kontuen antolaketan eta kontrolean eta Gobernuaren egintzen aurkako errekursoetan ere–, eta, azkenik, foru-udalen eta batzar legegile foralaren arteko harreman estua; batzar horietan zuten jatorria, halaber, foru-lurraldeetako gobernu-organismoak, eta, harreman horri esker, egoki ezkontzen ziren udal-maila eta foru-lurralde bakoitzaren maila.

Udal-eredu foral hori krisian sartu zen XIX. mendean, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetan; izan ere, lurralde horietan 1841eko urriaren 29ko Dekretua

inposatu zen, erabat alde bateko erabakiz, eta ordura arte indarrean egon zen zuzenbide publikoaren foru-sistema alde batera utzi zuen ia guztiz –1839ko urriaren 25eko legea garatzeko eman zen, itxura batean, eta salbuespen politikoko egoera batean prestatu zen–; zehazki, udal-sistemari dagokionez, dekretu horren 3. artikulua sistema hori baliogabetzea ekarri zuen.

Zuzenbide publikoko euskal foruen azken arrastoak behin betiko baliogabetu ondoren 1876an, eta nahiz eta EAEko udalek ez zuten foru-garai klasikoan bezalako autonomia maila handirik eskuratu berriz ere, 1878tik sortutako Kontzertu Ekonomikoaren araubidearen babesean, udalen egoera juridiko-ekonomikoa nabarmen bereiziz joan zen araubide erkideko udalerrien aldean, eta toki-eredu propio bat eratzeraz ere iritsi zen, doktrinak "udalerrri kontzertatua" deitu duena; oso maila desberdineko arau juridikoen babestutako eredu da, eta oso lotuta dago Kontzertu Ekonomikoaren sistemari. Ildo horretatik, adibide moduan aipa daitezke, hurrenkera kronologikoari jarraituz, 1878ko ekainaren 8ko Errege Agindua, 1882ko abuztuaren 29ko Probintzia Legearen laugarren xedapen iragankorra, 1891ko abuztuaren 8ko Errege Agindua eta hortik eratorritako ondorengo arauak. Ondo jakina den bezala, garai horretan, EAEko udalen egoera estu-estu lotuta zegoen EAEko foru-aldundiek, Kontzertutik bertatik eratorritako ahalmen-ekonomiko-administratiboari jarraituz, gero eta eskumen gehiago edukitzearekin. Hala ezartzen zuen 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikulua, eta oraindik indarrean da haren edukia, egungo Kontzertu Ekonomikoaren hirugarren xedapen gehigarrian jasota baitago.

1924ko Udal Estatutuan ere, Primo de Riveraren diktaduran bete-betean, eutsi egin zitzaizkien udal-ordainarazpen kontuetan zeuden euskal espezialitateei (26. xedapen iragankorra), eta 1924ko urriaren 21eko Errege Dekretuak berak ere jaso zituen 1924ko Udal Estatutuak EAEko araubide bereziari egindako egokitzapenak. Tradizio historikoari jarraituz, ez baitzen eten erregimen politikoa aldatu zenean ere, II. Errepublikaren Udal Legeak, 1935ekoak, 11. xedapen iragankorrean ezarri zuen legearen preskripzioek aginduko zutela hiru probintzietan, baldin eta ez baziren han indarrean zegoen araubide berezian ezarritakoaren aurkakoak. 1936ko EAEko Estatutuak 2. a) 3. artikulua ezarri zuen, toki-araubidearen gaietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenari zegokiola, Errepublikako Konstituzioaren 16. eta 17. artikuluen arabera, legegintza eskusiboa eta betearazpen zuzena, eta EAEko udalei esleitutako autonomiak ezin izango zituela eduki Estatuko lege orokorretan ezarritako mugak baino



txikiagoak. Zoritxarrez, eta nahiz eta EAEko erakundeen eskumena aitortuta egon Estatutuan, gai honetan, eskumena ezin izan zen egoki gauzatu, gerra zibila zela eta.

Diktadura frankistan EAEko udalek ez zuten araudi komunera homologatu beste erremediorik eduki, baina, hala ere, profil bereizi bati eusten ahalegindu ziren ahal izan zuten guztietan. Hala gertatu zen Arabako Lurralde Historikoan, non Kontzertu Ekonomikoak indarrean jarraitu zuen eta zenbait espezialitateri eutsi zitzaien klausula espezifikoen babesean; hala nola 1945eko uztailaren 17ko Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen azken xedapena, Gobernazio Ministerioaren 1955eko ekainaren 24ko Dekretuaren 208. artikulua –1945eko uztailaren 17ko eta 1953ko abenduaren 3ko Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen testu artikulatua etaategina onartu zituen– edo Toki Araubidearen Estatutuaren Oinarriari buruzko azaroaren 19ko 41/1975 Legearen 19.2 Oinarria. Eta hurrengo urteei dagokienez, aipatu beharko genituzke urriaren 6ko 3046/1977 Errege Dekretuaren azken xedapenetan hirugarrena –lege horrek antolatzen du partzialki Toki Araubidearen Estatutuaren Oinarriari buruzko 41/1975 Legea, tokiko funtzionario publikoei eta beste gai batzuei dagokienez–, edo apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 7. xedapen gehigarria –lege horren testuategina onartu zuen–, zeinak oraindik ere ezartzen zuen lege hori Araban aplikatuko zela, betiere bere araubide propioa eratzen zuten espezialitate ekonomiko-administratiboaren aurkakoa ez bazen.

Askotarikoa dugu Euskadiko Udal Legearen eskumen-oinarria, eta komeni da zehatz antolatzea; izan ere, EAEko arkitektura instituzional konplexuak eta Autonomia Erkidegoaren eta bere lurralde historikoen ekonomia-finantzen araubideak –Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarritik eta Kontzertu Ekonomikotik eratorria, bai eta euskal eskubide historikoak eguneratu dituen gainerako arauditik ere– esparru konplexua osatzen dute, eta kontuan hartu behar da beti Euskadin tokiko gobernuari buruzko araudi integral bat ezartzeko orduan.

Hain zuzen, gai honetan ez dira Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.4 artikuluan araututako eskumenak soil-soilik aipatu behar; aitzitik, EAEko Udal Legearen ezaugarri nagusia da, autonomia-erkidegoek onartutako gisa honetako beste lege batzuen aldean, zalantzarik gabe, udal-autonomiaren araudiak batetik eta udalek udalen berezko finantzaketa-sistemarekin bete behar dituzten oinarritzko eskumenei bestetik elkarren artean duten harreman estua, eta horren alderik esanguratsuenak lege honetan arautzen dira.

Gaur egungo esparru juridikoari dagokionez, EAEko Udal Legeak Gernikako Estatutuaren 10.4

artikulua du abiapuntu, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan ezarritakoa, eta kontuan hartzen ditu, ezin baitzitekeen bestela izan, ondorengoak: Kontzertu Ekonomikoaren Legea; Tokiko Ogasunen araudia –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak arautua–, eta, batik bat, dekretu horren zortzigarren xedapen gehigarria, euskal foru-araubideari buruzkoa; Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa –azken xedapenetan hirugarrenak ezartzen du Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoa errespetatu beharko dela–; eta, noski, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean jasotako toki-araubideari buruzko oinarritzko legeria, eta, zehazki, lege horren jatorrizko testuan zein Toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez egindako aldaketetan euskal erakundeei aitortutako espezialitateak. Azpimarratzekoak dira, arlo honetan, 39. artikulua eta hain garrantzitsua den bigarren xedapen gehigarria (euskal foru-araubideari buruzkoa), EAEko udal-araubidearen espezialitate nabarmenak arautzen baitituzte, eta babes juridikoa ematen baitiote udal-eredu propio baten araubidean aurrera egiteko aukerari; hain zuzen, aukera hori garatzen da lege honetan.

Legegileak kontuan hartu du Konstituzio Auzitegiak toki-araubidearen gaien adierazitakoa ere, eta, batik bat, abenduaren 21eko 214/1989 Epaia, baieztatu baitzuen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen aurka jarritako konstituziokontrakotasun-errekurtsuok ebaztean, 26. oinarri juridikoan, legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotako salbuespenezko araubidea (gaur egungo araudian bezala, euskal foru-araubidez ari dena) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian oinarrituta zegoela, zeinak *«foru-lurraldeen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen dituen»*, eta erantsi zuen *«foru-araubide hori eguneratuko dela, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan»*, eta, hala, *"Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak, bere aldetik, bigarren xedapen gehigarrian, ez du agindu konstituzionala bete besterik egin, foru-araubide horrek antolaketa-alderdietan duen berezitasuna bera gordez, Konstituzioarekin berarekin erabat bateragarri den moduan eta neurrian"*.

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak defendatu zuen gai horretan lurralde historikoei aitortutako eskubideak ezin zaizkiela beste autonomia-erkidegoei zabaldu *toki-araubidearen gaien Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen berberak beren gain hartze hutsagatik, lurralde historikoei aitortutako eskubideak berezi eta salbuespenezkoak baitira, haien xedea da-eta, Konstituzio*

*Auzitegiaren apirilaren 26ko 76/1988 Epaiak adierazi duen bezala, bermatzea «foru-araubidearen izatea, hau da, lurralde-autogobernua duen lurralde historiko bakoitzaren araubidea, alegia, bere "foralitatea" ...», eta, hala, "berme konstituzionalak dakar foralitatearen edukiak gorde egin behar duela, bai antolaketa-ezaugarriei dagokienez bai bere botere-esparru propioari dagokionez, foru-araubide tradizional horren irudi identifikagarria (4. oinarri juridikoa). Ulertzen da, horrela, berme konstituzional horrek dakarrela toki-araubide horrek arauetan tratamendu berezi bat jasotzea, eta hori baita Estatuko botere zentralen aurrean ere".*

Konstituzio Auzitegiaren beraren hitzetatik, argi eta garbi ondorioztatzen da EAEko toki-araubidearen espezialitateak zuzen-zuzenean lotzen direla euskal eskubide historikoen errespetuarekin, zeinak Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian eta haren eguneraketan babesten diren. Ildo beretik, eta Konstituzioak bezala Autonomia Estatutuak, Kontzertu Ekonomikoak, Lurralde Historikoen Legeak, lehen aipatutako lege sektorialek eta, batik bat, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –bere idazketak, 2013an aldatu denetik, euskal kasurako espezialitate-katalogo garrantzitsua sartu du, "euskal foru-araubidearen" ohiko "nomen iuris" pean– orain arte ez bezalako aukera ematen diete euskal instituzioei Euskadin tokiko gobernu-sistema propio bat ezartze bidean aurrera egiteko. Hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak aukera berri horiek garatzen ditu, eta, tokiko gaietan, euskal foru-araubidetik eratorritako eskubide historikoak eguneratzeko arau bihurtzen da, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren esparruan eta toki-araubidearen oinarritzko legeriaren babesean, horien edukia errespetatzeaz bat garatu ere egiten baitu, edozein eguneraketak, bistan denez, berrikuntza ere badakar eta. Horrek guztiak justifikatzen ditu kasuan-kasuan eskumenak dituzten EAEko erakundeen mesedetan Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legean sartu diren espezialitateak. Haien bidez, Euskadin tokiko gobernuaren sistema kohesionatu, integratu eta efiziente bat eraikitzeke aukera egon beharko litzateke, nahi ez diren bi alderdi ekidinez: batetik, Autonomia Erkidegoko edo lurralde historikoetako erakundeen esku-sartzea udalen bizitzan, arriskuan jar dezakeelako udalen benetako autonomia, eta, bestetik, tokiko espazioa zatitzeko arriskuak, sistemaren biziraupena bideraezin egin dezaketelako.

Azkenik, legegileak oso kontuan izan ditu eta, ahal den neurrian, testuan txertatu, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legea arautzeko lehenago aurkeztu diren lege-proiektuek eta -proposamenek egindako ekarpen baliotsuak, Udal Legearen azken bi proiektuei buruz Arbitraje





Batzordearen bi erabakietan egindako ohar garrantzitsuak –urriaren 20ko 1/2008 eta apirilaren 19ko 3/2012 erabakietan jasota daude–, eta baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren apirilaren 9ko 64/2008 eta uztailaren 28ko 193/2011 irizpenen ekarpen interesgarriak ere. Hori guztia, ahaztu gabe zer-nolako ekarpen garrantzitsuak egin dituen doktrinak gai honetan.

### III.

EAEko Udal Legearen edukia zehazteko jarraitutako prozedurari dagokionez, adostasun oinarrizko baina garrantzitsua lortzeko beharra zegoenez, EAEko autogobernu-sistemarentzat giltzarri den lege honek ahalik eta babesik handiena lor dezan, hitzartzeko eta elkar ulertzeko metodologia bikoitza jarri da abian: batetik, inplikaturako maila instituzionalen artean, eta, bestetik, Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten sentsibilitate politiko desberdinen artean.

Euskal Autonomia Erkidegoa konplexua da erakunde, lurralde eta ideologia aldetik, eta begien bistakoa da etapa autonomikoa hasi zenetik ez dela udal-lege bat onartzerik izan. Arrazoi horiek EAEko udalen garapen instituzionalerako aukeren ahultze nabaria ekarri dute, bai eta behar bezalako oinarririk gabe ixtea ere lurraldeko botere publikoen arteko harreman-sistema arrazoizko baten egituraketa. Horregatik, komenigarria zen oso kontuan izatea horrelako arau bat udalerriek, lurralde historikoen eta erakunde komunek onartu behar dutela, eta erakunde horiek, halaber, indar politiko desberdinek goberna ditzaketela; nolana ere, sistemak gutxieneko batzuekin funtziona dezan, joko-arau berberak onartu behar dituzte horiek guztiek, alde batera utzita une bakoitzean erakunde horietako bakoitza nork gobernatzen duen.

Horregatik, eta Euskadiko Udal Kontseiluaren deialdiaren ondoren –erakundeen topaleku da organo hori–, legearen aurreproiektua idazten parte hartu dutenak, pixkanaka, testuaren tituluak aurkeztuz joan ziren, lan-talde batean eztabaidatzeko. Organo tekniko horretan hiru maila instituzionalak zeuden ordezkatuta (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udal-ordezkariek, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen bidez), eta, hortaz, legearen lurralde-eremuan gehiengoa duten sentsibilitate politikoak. Helburua zen ahalegina egitea aurreproiektu baten zirriborroa adosteko, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden indar politikoen negoziazioan oinarri eta bultzada izan zedin, Eusko Legebiltzarrak baitu legeari buruzko azken hitza, baina abantaila erantsi batekin: herri-subiranotasunaren egoitzan negoziazio hori oinarrizko testu batetik abiatuko zen, eta testu hori idazten arituak izango ziren eraginpeko erakunde ordezkariek, zeinak, era berean, sentsibilitate ideologiko nagusien ordezkaririk diren.



#### IV

Legeak oinarri dituen irizpideei dagokienez, sintesi labur bat dago hemen printzipio garrantzitsuenez, legegileak EAEko udal-araubidearen erregulazioa gida dezaten nahi izan duen horiez, abiapuntu garbi bat hartuta: "arau integral" bat ematea, EAEko udalaren kokapen instituzionala definitzen duena bai ekintza publikoaren esparruan, bai finantzaketa-esparruan. Hortaz, tokiko gobernuen eredu integratu bat antolatzea da kontua, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako bi maila instituzionalekin harmonian txertatuko dena, eta, horrela, autonomiaren barne-instituzionalizazioaren prozesua burutuko da, beldurrik eduki gabe, guztien adostasunarekin, aldatu beharreko araudia aldatzeko; horrek, batzuetan, esaterako, Lurralde Historikoen Legearen testua osatzea eskatzen du, eta, noizbait, zehaztea eta zuzentzea ere bai.

Udal-bizitzaren alderdi zehatzei buruz eta toki-erakundeek herritarrari ematen dioten zerbitzuari buruz lege-testuak jasotzen dituen printzipioekin batera, eta horien denen buru, lege honen irizpide oinarrizkoa eta gidaria da EAEko udalari botere-sorta zabala ematea, udal-autonomia eraginkorraren estandar altu batzuk bermatzeko diseinatua. Halaber, legeak apustu garbia egiten du tokiko gobernuaren mailen sendotze instituzionalaren alde, udala baita herritarrengandik gertuen dagoen erabaki-foroa. Horregatik, legea saiatzen da tokiko politika publikoen diseinuan, erabakian eta ezarpenean herritarrek informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko bidea izan dezaten bitartekoak sustatzeko dagoen premia larriari erantzuten, eta, horrela, aurre egiten ordezkartzeko demokrazia tradizionalak berezko dituen zenbait ahuleziari eta boterea are gehiago kontrolatzeko eta kontuak argiago emateko eskakizunak ekarritako erronka berriei. Orobat oso kontuan izan da erronka horiek lotuta daudela gero eta indartsuagoak diren eskakizunei, alegia, tokiko ekintza publikoan gobernu ona, etika eta gardentasuna eskatzeari, eta udal-egituren beren eskakizunei; erronka horiei esker, eguneroko esperientziak erakusten duen bezala, erakunde lehiakorrago eta garapen ekonomiko eta sozial iraunkorraren lagungarriago bihurtzen dira egunerokoan balio horien arabera diharduten udalak.

Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek beren legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalen legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta bizi-kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera



bermatuta; horien artean, gainera, hizkuntza-eskubideak, eta hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura- eta hizkuntza-eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraupen, finkapen eta garapenaren alde.

Azken batean, euskal autonomiari eraginkor izateko ahalik eta bermerik handiena eman nahi zaio, udal-autogobernu garatuenean ereduarekin koherentzia eta Tokiko Autonomiaren Europako Gutunaren espiritu eta printzipioekin bat etorritik (Gutuna 1985eko urriaren 15ean onartu zen eta Espainiak 1988ko urtarrilaren 20an berretsi zuen). Horregatik, tokiko eremua adierazpide demokratikoaren espazio publiko gisa diluitu beharrean, helburua da tokiko erakundeak indartzea eta EAEko udalei behar bezalako toki-autonomia ematea, kontuan hartu gabe zein lurralde-eremutan dauden.

Baina, ereduak behar bezala funtziona dezan, koherentzia behar da EAEko erakunde-sistemaren parte diren erakundeen jardueren artean, non hiru maila desberdinek bat egin eta elkarri eragiten dioten, eta, hortaz, saihestu egin behar dira eredu hori oztopa dezaketena nahi ez bezalako bikoiztasunak, eta are hirukoiztasunak, betiere udalen autonomia babestuz. Horretarako, lege honek arautzen duen EAEko udal-ereduak udalen eskumen propioen sistema bat ezartzen du, udalen autogobernua eta udalek herritarrei ematen dieten zerbitzua indartzen dituen, eta, aldi berean, toki-erakundeen finantza-jasangarritasuna ziurtatzeaz arduratzen da, baldintzatu gabeko finantzaketaren aldeko apustu sendoa eginez, hartara bai EAEko Udal Legeak bai beste arau sektorial batzuek udalei aitortutako eskumenak ongi bete ahal izango baitituzte.

Alabaina, horrekin batera, nabarmentzekoa da EAEko Udal Legeak kontu handiz errespetatzen duela lurralde historikoak, eskubide historikoen ondorioz, EAEko erakundeen egiturari betetzen duten leku berezia. Eskubide historiko horiek Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriari aitortuta eta babestuta daude, eta bereziki babesten ditu Gernikako Estatutuaren 37. 3 artikulua: eskubide historiko horiek, halaber, Lurralde Historikoen Legean ere aitortzen dira. Eta horrek guztiak justifikatzen du udal-espazioaren esparru eta alderdi jakin batzuetan proiektatzen den foru-espazioaren fondo bat egotea. Zurrumbilotsua izan ohi da beti Autonomia Erkidegoak eta lurralde historikoak udal-mailako eremuan esku hartzeko duten ahalen auzia, eta hor oreka zaila bilatu du legeak, ahal horien eta udalen autonomia politiko eta ekonomiko eraginkor baten artean. Horrek azaltzen du zergatik sartu diren hainbat zuhurtzia udal-autonomia babesteko, zuzenbide konparatuko eredurik aurreratuenetatik hartutako tekniketara



ere joz, hala nola “alerta goiztiarraren” sistemak deituak, EAEko udalerrien autonomiari eragin diezaioketen politika arauemaileen aurrean.

Ondorio gisa, legeak ikusgarritasun instituzionala eman nahi izan dio EAEko udalari EAEko botere publikoen sisteman, indartsu defendatuz haren nortasun propioa, nola haren autonomia politikoa hala finantzaketa egokia ziurtatuz eta gainerako lurralde-botere publikoekin elkarriketa zuzena edukitzeko ahalmena aitortuz; horrekin batera, erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak ezartzen ditu, eta horren adibide garbi dira Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Finantza Publikoen Euskal Kontseilua eratzea, non, zuzenean dagozkion edo eragiten dioten gaiak aztertzen direnean, udala Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako maila instituzionalekin berdintasunean sartuko den.

Eta, hori guztia egiteko, Eusko Legebiltzarrak, Euskal Autonomia Erkidegoaren sistema instituzionalari errespeturik handiena izanik, baina zalantzarik egin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoari toki-araubidearen gaian dagokion eskumena gauzatu du lege honen bidez, funtsean Gernikako Estatutuaren 10.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

## V

EAEko Udal Legearen helburuak, beraz, ezin atzeratuzkoak dira, nahi baldin badugu tokiko gobernuen sistema integratu bat eduki, koherentea eta sendoa, instituzionalki begiratuta.

Lehendabiziko helburua da, gaur egungo esparrutik abiatuta eta esparru horrek eskaintzen dituen konfigurazio-tarteak aintzat hartuta, tokiko gobernuen eredu integratu bat osatzea, lurraldetasunezko gobernu-maila ezberdinetan taxuz txertatuko dena, batik bat Autonomia Erkidegoan eta lurralde historikoetan. Indarrean dagoen arau-esparru instituzionala erabat errespetatuz, EAEko Udal Legearen funtzio nagusia da eskumenen alorrean eta finantza alorrean gutxieneko autonomia-estandar homogeenok dituen udal-sistema bat ezartzea.

Bigarren helburuaren ardatza da udalen finantza-jasangarritasuna bermatzea, zerbitzu-zorro zabal bat gauzatzeko aurrekontua ziurtatzeko eta herritarrei kalitatezko tokiko zerbitzuak emateko. Helburu hori estuki lotuta dago, berehala ikusiko dugun moduan, udal-eskumenen sistemarekin eta udal-finantzaketaren sistemarekin berarekin.

Hirugarren helburua da udala, herritarrentzako hurbileko administrazio gisa, indartzea. Alde



horretatik, EAEko Udal Legeak apustu zintzo bat egiten du udalen eta herritarren arteko elkarrizketa hobetzeko, kontuak emateko sistema garden bat ezartzeko, eta euskal herritarren bizi-kalitatearen garapen jasangarria bultzatzeko. Horretara bideratuta dago herritarren parte-hartzea eta gardentasuna arautzeko esparrua, tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa garatzea eta, bereziki, udalei esleitutako eskumenen esparrua. Udalerriak —zehatzago, udalak— dira herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak, eta, beraz, herritarren beharrez ondoen jabetzen direnak. Esan bezala, herritarrak arazoak dituenean jotzen duen lehenengo atea da. Herritarren beharrez behar bezala erantzuteak eta herritarren bizi-kalitate arrazoizkoa bermatzeak ematen diote legitimazioa udalerriri erakunde gisa. Eta erantzukizun instituzionalak (eskumenak) banatzeko sistema argia eta zehatza ezarri baino ez da lortuko hori. Era berean, horretarako, udalak finantzatzeko sistema egokia finkatu beharko da, udalen erantzukizunak zuzen gauzatu ahal izateko eta tokiko zerbitzu publikoak behar bezala eskaini ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen laugarren helburua udal-autonomia indartzea eta bermatzea da. Horretarako, autonomia horren aitortpen formala egiteaz gain, beharrezkoa da erabat bermatzea autonomia hori, euskal udalek benetako ahalmena izan dezaten udalei dagozkien gaiak eta arazoak oso-osorik beren erantzukizunpean antolatzeke eta kudeatzeko. Orainsuko oinarritzko legeriak entzungor edo muzin egiten dio tokiko autonomiaren printzipioari. Horrekin aurrez aurre, eta Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritakoari eutsita, EAEko Udal Legea printzipio horiek indartzera dator. Euskadiko edozein gobernu-mailatako jardunbideak nahitaez errespetatu egin beharko luke EAEko udaletan tokiko autonomiaren gutxieneko estandar batzuen aplikazioa. Hori dela eta, legeak udal-autonomia bermatzeko sistema zehatz bat egituratu du, alerta goiztiarreko mekanismo bat sartuta, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean jasotako printzipioen irakurketa aitzindaria eta egokia eginez. Hori, zalantzarik gabe, tokiko autogobernua indartzeko orduan, Espainiako estatuan egin den esperientzia aurrendarietako bat da.

Bosgarrenik, baina ez horregatik munta txikiagoz, komeni da azpimarratzea lege honen izenburuak berak jada markatzen duela haren xede nagusia —udal-autonomia indartzea— bat datorrela, zuzen-zuzenean, udalak hartzen duen muineko posizioarekin; alegia, udala zuzeneko legitimitate demokratikoa erantsia duen tokiko erakundetzat hartzen da, eta horrek bere eragina izan behar du Euskadiko tokiko gobernu-sisteman udalari ematen zaion eginkizun

garrantzitsuarekin.

Ildo horri jarraituz, seigarren helburua da udalari ikusgarritasun instituzionala ematea euskal botere publikoen sistemaren barruan. Horrenbestez, tokiko jardun-eremua ezin da konfiguratu kasuan-kasuan foru-sisteman edo autonomiaren sisteman txertatu beharreko erakunde-multzo baten gisara; aitzitik, beharrezkoak ditu bai nortasun propioa bai gainerako lurralde-botere publikoekin solaskidetza zuzena izateko ahalmena. Ikusgarritasun instituzional hori EAEko Udal Legearen hainbat zatitan islatzen da, baina, batez ere, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eta Dirubideen Euskal Kontseiluaren eraketan.

Zazpigarren helburua tokiko sistema demokratikoa indartzean datza. Beraz, kontua da udala printzipio demokratikoaren arabera osatutako lurralde-botere publikoa dela aitortzea, eta udalaren legitimitatea eta kalitate demokratikoa Autonomia Erkidegoko edo lurralde historikoetako organo eta erakundeak eratzeko behar den bestekoa dela gutxienez. EAEko Udal Legeak, hortaz, erdigunean jartzen ditu udal-politikaren printzipio demokratikoa eta kalitate instituzionala. Bi alderdi horiek, efizientziaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioekin batera, Euskadiko tokiko autogobernuaren zimentarriak dira.

Zortzigarren helburua udalerriei botere-sorta zabala ematea da, eskumen propioen sistema batean islatuko dena, udal-autonomia bermatzeko gutxieneko estandarra izango baita hori. Sektoreko legegileak udal-eskumenak esleitzeko erabiliko duen esparru materialen zerrenda zabalak aditzera ematen du zein den lege honen lege-erabaki giltzarrietako bat: oinarrizko legeriak alor honetan ezartzen dituen betebeharrak aise gainditzeko dituen udal-autonomia gutxieneko baten bermea, Euskal Autonomia Erkidegoa posizio nabarmen aurreratu batean jartzen duena. Edo, beste era batera esanda, kontua da udal-eremua, Euskadin, behar bezala zedarritutako botere politiko gisa eratzea, jarduera-esparru zehatza emanez, eta beste gobernu-mailek ez dezatela izan nahieran udalaren esparru horretan unean-unean eta ustekabeen sartzeko aukerarik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen bederatzigarren helburua nahitaezko zerbitzuen kudeaketa-sistema propio baten diseinuan ardazten da, batez ere kasu jakin batzuetan, zeinetan, egiazko kostuen azterketa eta jarraipenaren ondorioz, foru-aldundiek zerbitzu horien kudeaketa-sistema partekatua edo beste edonolako formula alternatiboak bultzatu baititzaizkete. Euskadiko sistema instituzionalaren bereizgarritasunak lagungarriak dira helburu horri begira,



esparru horretako solaskideak foru-aldundiak eta udalak baino ez baitira, eta horrek erraztu egiten du nahitaezko zerbitzu horien kudeaketa efizientea lortzeko alternatibak bilatzea, bereziki 20.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan (Euskadiko gehienak, alegia). Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak, foru-erakundeen eskumenak ezertan ere eragotzi gabe, urrats bat egin nahi du udalerrien mankomunitateak edo, hala badagokio, partzuergoak indartzeko, nahitaezko zerbitzuok batera emateko sistemak sustatzen dituzten tresna instituzional moduan. Bide horrek hobekiago barneratzen ditu tokiko autonomiaren printzipioa eta Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna bera, esan nahi baita Euskadiko udalerriek autoantolaketarako duten ahala babesten duela, ahal hori udal-autonomiaren printzipiotik eratorzen den ahalmen gisa ulertuta. Ondorio berak atera dituzte Estatu Kontseiluak eta Europako Kontseiluko Eskualdeko eta Tokiko Botereen Batzarrak, berriki landutako dokumentu batzuetan.

Eta, azkenik, hamargarren helburua, udalerrien eskumen-sistemak eta finantzaketa-araubideak bata bestearekin duten kausazko lotura estuaren argitan, ideia nagusi honetan oinarritzen da: EAEko udalerriek finantzaketa egokia izan behar dutela, udalerrien eskumenak zuzen gauzatu ahal izateko. Dударik ez dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legea aurrerapauso sendo bat da bide egokian; beharrezkoa baita udalek berezkoak dituzten eskumen zabal horien aitortpenak bere isla izatea udal-finantzaketaren sisteman ere. Horrela, udal-finantzaketa, udalen berezko eskumenekin batera, Euskadiko Udal Legearen ardatz bilakatu da. Udal-finantzaketa bermatu gabe, ezinezkoa da zuzentasunez udal-autonomiaz aritzea. Eta, honetaz gero, ezin saihestuzko da EAEko udalen parte-hartzea Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiguneetan, gobernu-maila horretan funtsezkoak diren alderdiak aztertzen direnean.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Euskadiko Udal Legea, beste lege autonomiko batzuk ez bezala, edo are tokiko arloan Estatuak eman duen oinarritzko legeria ez bezala, udal-esparru instituzionalaren lege integrala dela (arloan horretan lurralde historikoetako foru-organismoek dituzten eskuduntza garrantzitsuen kalterik gabe); izan ere, udalen berezko eskumenak eta munta honetako lege batek berezkoak dituen beste elementuak arautzeaz gain, finantzaketa arloan erabaki arauemaile oso garrantzitsuak hartu dira bertan. Alegia, EAEko Udal Legeak integratu egiten ditu —eta ez banandu— udal-autonomiaren oinarri diren bi alderdiak: udal-eskumenak eta udal-finantzaketa. Eta hori inoiz ez da egin Espainiako esparru konparatuan. Eta udal-lege batek, baliozkoa izango bada, bi ikuspegiok batu behar ditu, bestela arriskua baitu paper hila



izateko edo euskal udalerrien benetako beharrezanez ez erantzuteko.

Udalen eskumen-esparru materialak ezin dira erabaki puntualen pentzutari egon, sektoreko legeriak edo foru-botere arauemaileak egoeraren arabera zer erabakitzen duten; izan ere, bestela, ezinezkoa izango litzateke udal-eskumeneren gutxienerako estandar bat bermatzea. Are gehiago bizi dugun garaian, zeren, alor horretako Estatuaren oinarritzko legeriaren esparrua erreformatu ondoren, eskumenak legez kalifikatzearen ondorioak (hau da, propioak diren, eskuordetuak edo “propioez bestekoak” diren) oso garrantzitsuak baitira udalek herritarrei ematen dieten zerbitzu-zorroaren gainean.

Udal Legea, beraz, EAEko sistema instituzionalaren funtsezko elementua izango da, muinmuineko osagaia, eta, ondorioz, arlo horretan daukan zeregin garrantzitsua dela-eta, Lurralde Historikoen Legearekin batera Euskadiren instituzionalizazio-prozesua —oraingoz, behinik-behin— ixten duen legetzat hartu beharko da.

## VI

EAEko Udal Legeak bederatzi titulu ditu, arlokako materia espezifikoaren arabera banatzen direnak; sei xedapen gehigarri; bederatzi xedapen iragankor; xedapen indargabetzaile bat, eta sei azken xedapen.

Lehenengo tituluan, xedapen orokor batzuek legearen ezaugarriak eta helburua azaltzen dituzte, bai eta toki-erakundearen ezaugarriak eta zerbitzuen prestazioarenak ere, eta arau-esparru berri hau zein printzipiotan oinarritzen den ere; azkenik, EAEko toki-erakundearen hizkuntza aztertzen dute. Gainera, Legean sartzen diren erabaki arauemaileak arrazoitzen dituzten eskumen-tituluak aipatzen dira.

Printzipioei dagokienez, legean printzipio-zerrenda zehatz bat jasotzen da. Lehenengo eta behin, tokiko autonomiaren printzipioa, printzipio demokratikoaren arabera udal-autogobernuak daukan dimentsio politikoaren bidez gauzatzen dena. Bigarrena finantza-autonomiaren printzipioa da; berariaz jasota dago Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean, eta udalerriek beren eskumenak gauzatzeko behar dituzten baliabideak izateko eskubidean islatzen da.

Printzipio horiekin batera beste zenbait ere zehazten dira: herritarrekiko hurbiltasun-printzipioa eta haien parte-hartzearena, tokiko zerbitzu publikoetara jotzekoa, ingurumenari buruzkoa,





gobernu onari buruzkoa, eta beste maila instituzionaletatik toki-erakundeei esleitutako eskumenei buruzko printzipioak.

Lehenengo titulu honetan jasotzen da, Legean leku berezia duelarik, euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoaren tokiko administrazioaren esparruan, Euskal Herriaren berezko hizkuntza den aldetik.

Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta, beraz, baita bertako toki-erakundeetan ere. Alde horretatik, jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da toki-erakunde horietan, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuta, eta erabilera normala eta orokorra izango du bertan. Berariaz adierazten da, gainera, euskaraz egin daitezkeela egintza eta izapide oro.

Horrekin bat, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen zaizkie udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai familia inguruko eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko —baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere—, eta euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

Bigarren tituluak udala eta beste toki-erakunde batzuk ditu hizpide, eta bi kapitulu ditu. Lehenengo kapituluan, EAEko tokiko gobernuen sisteman udalak instituzio gisa duen leku gailena aztertzen da, legitimitate demokratiko zuzena duen toki-erakundea den aldetik. Bertan, udal-autonomiaren printzipioaren nondik-norakoak arautzen dira —Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak dioenarekin bat—, eta autoantolaketarako ahalaren ezaugarriak ere bai, udal-autonomiaren ezinbesteko ondorio diren neurrian. Lehenengo kapitulu horretan esaten da, halaber, Toki-erakundeen erregistro bakarra egongo dela, maila instituzional ezberdinetan erabiliko dena eta geroago erregelamendu bidezko garapena izango duena.

Bigarren kapituluak udalerrria ez besteko toki-erakundeen azterketa orokorra egiten du eta, toki-erakunde horiei dagokienez, lurralde historikoek zer eskumen dituzten aitortzen du. Testuinguru horretan, berariaz aipatzen dira udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak, eta haien alde eta haien bereizgarritasunen alde egiten da.

Hirugarren tituluak udal-autonomia bermatzeko sisteman giltzarria den alderdi bat arautzen du: zenbateko botere politikoa har dezaketen udalek, Legeak berak ezartzen duen eskumen-

sistemaren bitartez. Kasu honetan, EAE Udal Legeak udalerriak politikan jarduteko adinez nagusitzat jotzearen alde egiten du, nabarmen, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean adierazitakoaren ildotik. Hori horrela, testu garrantzitsu honetan ezarritakoari jarraituz, eskumen publikoak, oro har eta lehentasunez, herritarrengandik gertuen dauden aginteei esleitu behar zaizkie, eta, gainera, normalean, udalen eskumen horiek erabatekoak eta osoak behar dute. Horrez gain, gobernuaren beste instantzia bati esleitu ez zaizkion eskumen guztiak gauzatu behar dituzte EAEko udalek, beren erantzukizunpean erabat, betiere herritarren premiei erantzutera zuzentzen badira.

Legeak udal-eskumena zer den definitzen du, eta beraren tipologia azaldu; eskumen propioak dira autogobernua bermatzen dutenak, eta eskumen transferitu edo eskuordetuak, helburu hori lortzeari dagokionez, salbuespen dira. Zehazten du, gainera, eskumen bat esleitua izateak berekin dakarrela eskumen hori egikaritzeko behar diren funtzio edo ahalmen sorta osoa ere esleitzea, berariaz kontrakoa ezartzen duen legezko xedapena egon ezean.

Udalerrien eskumen propioen zerrenda jasotzen da, hau da, zerrenda material luze bat, erakusten duena euskal instituzioek apustu sendo bat egiten dutela oinarrizko legeriak alor honetan ezartzen dituen udal-autonomiaren estandarrak alde handiz gaintzen dituzten estandar batzuk babesteko; hots, EAEko udal-autogobernurako eredu berezia, kualitatiboki gailentzen dena.

Horrek esan nahi du EAEko Udal Legeak, eduki instituzionala duen aldetik, toki-autonomiaren gutxieneko estandar bat ematen diela EAEko udalerriei, zeina lege sektorialek ondoren hobetu ahalko duten. Baina, edonola ere, arestian adierazi moduan, autonomia-estandar hori aise gailentzen zaio oinarrizko legeriak gaur egun ezartzen duenari.

Legeak, halaber, eskumenen klausula orokor bat gehitzen du, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak berak ezarritakoari jarraikiz; testuak ezartzen baitu toki-erakundeek, betiere legearen esparruaren barruan, beren ekimena gauzatzeko erabateko askatasuna dutela, beren eskumenetik kanpo ez dagoen edo beste aginte bati esleitu ez zaizkion gai guztietan. Hortik ondorioztatzen da EAEko udalerriek beste lurralde-botere publikoek egiten dituzten jarduerekin osagarriak diren jarduerak egin ditzaketela, baldin eta udal-ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada eta oinarrizko legerian azaldutakoaren arabera bikoiztasunik sortzen ez bada, prestazioaren lurralde-eremua eta eremu subjektiboari



dagokienez (bikoiztasunaren kontzeptuak Legeak berak zedarritzen du).

Laugarren tituluak, bestalde, udalen antolaketaren alde jakin batzuk arautzen ditu; hain zuzen ere, Euskadiko toki-gobernua osatzen duten erakundeen kalitatea hobetzera zuzenduta egonda ere oinarrizko legerian jaso ez direnak. Tituluak hiru kapitulu ditu. Lehenengo kapituluak oinarrizko legeriak antolaketa instituzionalaren alorrean jasotzen direnekin osagarriak diren arau batzuk ezartzen ditu. Bigarren kapituluak, aurrenekoaren ildotik, Udal-ordezkarien Estatutuaren alderdi batzuk arautzen ditu, arreta berezia jarritz, besteak beste, oposizio politikoaren ordezkarien estatutuan, udal-taldeetan edo kode etikoen erregulazioan, zeina oso garrantzitsua baita zeren puntako tokian jartzen baitu Euskadi alor horretako tokiko eremuan. Eta, azkenik, hirugarren kapituluak, zuzendaritza-kide publiko profesionalen figura arautzen da. Arautze hori ere aitzindaria da estatu mailan, tokiko araubidearen esparruan. Eta haren xedea da EAEko tokiko gobernuak instituzionalki indartzea, udaleko zuzendaritza-kide publikoaren figura txertatzeko aukera baliatuz (aukera hori toki-erakunde bakoitzak balia dezakeen diskrezio-ahal gisa defini daiteke). Horiek aukeratzeko prozesuaren profesionaltasuna, nagusiki, honetan funtsatzen da: zuzendaritza-kide publikoek, lehenik eta behin eta aldez aurretik, zenbait gaitasun egiaztatu behar dituzte, baina horrek ez du kentzen, behin aipaturiko gaitasun horiek egiaztatu eta gero, toki-erakunde bakoitzeko organo eskudunak zuzendaritza-kideak izendatu ahal izango dituela, diskrezionalitate-tarte arrazoizkoak erabilita.

Bosgarren tituluak arautzen ditu, alde batetik, udalerrietako auzotarren betebeharrak eta eskubideak, eta, beste aldetik, zerbitzu-kartak. Lehenengo kapituluaren gaia auzotarren betebeharrak eta eskubideak dira. Herritarren betebeharren edo erantzukizunen atala izan ohi da, hain zuzen, gutxien garatu izan dena gure toki-legerian; hala ere, auzotarrek udalerriko partaide izatearen sentimendua areagotu egiten da, herritarrak diren aldetik dituzten erantzukizunak eta herritartasunaren ideiarekin batera doazen balio zibikoak beren gain hartu ahala. Eskubideen katalogoa ere legearen xedea da, eta, hori egiterakoan, Europako Kontseiluak azken urteotan gaiari buruz onartu dituen gomendioak hartu dira kontuan (Eskualdeko eta Tokiko Botereen Batzarra). Baina, begi-bistakoa denez, kasu bietan (eskubideak eta betebeharrak) ulertu behar da lege honek osatu egiten duela, eta inola ez baztertu, oinarrizko legeetan ezarritakoa. Orobat aurreikusten da EAEko udalek zerbitzu-kartak onartzea, hala badagokio, Espainiako, Europako eta munduko beste leku batzuetako zenbait hiritan egin duten bezala.



Bosgarren titulu honetako bigarren kapituluak zerbitzu-kartak arautzen ditu; udalek bitarteko horiek onartzeko aukera jasotzen du, eta karten edukiaren lerro nagusiak zein diren zehaztu du. Kapitulu horrek, halaber, xedatzen du udalerriek zerbitzu publikoen kalitatea bultzatzeko obligazioa dutela, egiaztatze- edo ebaluazio- sistemen bitartez.

Seigarren tituluak berebiziko garrantzia duen gai bat aztertzen du: toki-erakundeen gobernu irekia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea. Xedapen orokorrak azaltzen dituen lehenengo kapituluaren ondoren —zeinean gaia kokatzen baita Gobernu Onaren eta Gobernu Irekiaren printzipioaren barruan eta Legearen aplikazio-eremua aztertzen baita—, bigarren kapituluak EAeko toki-erakundeek erantzun beharreko publizitate aktiboaren betebeharrak arautzen dira, arlo horretan benetako erregulazio zorrotza dakartenak. Bertan ageri den esparru materialen araberrako banakatze xehe eta zehatza ez da ohikoa antzeko beste erregulazioetan, eta, gainera, balio erantsi gisa, gardentasunari buruzko obligazioak egokitzen dira tokiko berezko errealitatera eta udaletan erabiltzen diren bitarteko arauemailetara, ekonomiko-finantzarioetara edo bestelakoetara. Dena den, eskakizun horiek legearen hirugarren xedapen iragankorrean zehazten dira behar bezala. Bertan, horien aplikazioa mailaka ezartzen da, udalerrri bakoitzak duen biztanleria-atalasearen arabera, nahiz eta horrek ez duen esan nahi, inola ere, legeak ezartzen dituen eskakizunok ezin direnik lortu, horretarako borondate politikoa eta baliabide teknikoak baldin badaude.

Seigarren titulu honetako hirugarren kapituluak informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko arau orokor batzuei heltzen die, hau da, gardentasun-printzipioaren eraginkortasunetik segitzen den ondorioetako bat, baina herritarren eskakizunek akuilatuta aktibatzen dena. Eta hor bertan aztertzen dira, orobat, informazio hori eskuratzeari uko eginez gero egin daitezkeen erreklamazioak. Xede hori eta beste batzuk gogoan, Legeak aukera egiten du —beste legegintza-eredu batzuek ez bezala— erreklamazio horien ebazpena aparteko kontseilu edo agintaritzak espezifiko eta independente baten esku uzteko.

Seigarren tituluko laugarren kapituluak herritarren parte-hartzea arautzen du. Erregulazioak argi eta garbi egiten du herritarren partaidetzarako tresnak sakontzearen alde, Euskadiko toki-eremuan Gobernu Ona sendotzeko bidean. Izan ere, araudi aurreratua da, herritarren benetako parte-hartzea sustatu nahi duena, tokiko politika publikoak bultzatu, diseinatu, landu, gauzatu eta ebaluatzeko sisteman, betiere honako hauek abiapuntutzat hartuta: herritarren parte-hartzeko eskubidea indartzea eta partaidetzazko deliberazio prozesuak eraikitzea—



partaidetzako deliberazio-erabakiaren bitartez—, eta ordenantzak sustatu, landu eta onartzeko prozesuetan eta eta udal-aurrekontuetan gastu publikoaren konpromisoa identifikatzeko prozesuetan parte hartzea antolatzea. Horren guztiaren ondoren, toki-eremuari buruz herritarrek egiten dituzten galdeketak arautzeko erregulazio zabal bat ageri da; espresuki bereizten dira “herri-galdeketak” eta bestelakoak, hala nola “sektoreko galdeketak edo lurralde-eremu mugatuko galdeketak” eta “herri-galdeketa irekiak”. Kapituluaren amaieran, herritarren partaidetzako erakundeak eta Herritarren partaidetzako erakundeen Erregistroa arautzen dira.

Legearen VII. tituluari, Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordeari buruzkoan, udalerriek, organo horien bidez eta Legeak zehaztutako eran, toki-eremuari eragin diezaioketen politika publikoen prestaketan parte hartzea aurreikusten da. Horrela, bada, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua taxutzen da Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek toki-autonomia erabat errespetatuko dutela bermatzea helburu izango duen kide anitzeko organo iraunkor gisa. Kontseilua organo independentea izango da, eta autonomia organikoa eta funtzionala izango du; baina aurrekontu-ondorioetarako toki-araubidearen gaineko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailera egongo da atxikita. Kontseiluan Autonomia Erkidegoko hiru gobernu-mailak parte hartuko dute (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak), eta artikuluetan zehatz-mehatz azaltzen da zein diren haien eginkizunak eta zeregin instituzional garrantzitsuak EAEko erakundeen esparruan politika publikoak koordinatzeko, integratzeko eta bultzatzeko lanean.

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluarekiko independente, Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordea sortzen da. Batzorde horretan, udalerriak baino ez daude ordezkaturak, eta alerta goiztiarreko mekanismo baten moduan jokatzeko du eginkizun nagusia. Hala, legeen edo legegintzako dekretuen aurreproiektuei buruzko txostenak egingo ditu, eta aurreproiektu edo proiektuok toki-autonomiara egokitzen diren aztertze aldera. Horrela, botere publiko autonomikoen jardueraren aurrean udalerrien autonomia bermatzeko organo nagusia bilakatuko da Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordea. Batzordearen funtsezko eginkizuna izango da gobernu maila horietan izapidetzen ari diren arau-jardueretan, udal-autonomiaren printzipioa urratzeko arriskuaz “ohartaraztera”.

Zortzigarren tituluak tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa arautzen du, ikuspegi ezberdinetatik begiratuta.



Zortzigarren tituluko lehen kapituluak tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa du aztergai, bai eta kudeaketa moldeak eta erakunde instrumentalak ere, zerbitzu horiek emateko bitarteko gisa harturik. Kapituluak 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako gutxieneko zerbitzuak arautzen dituen erregulazio berezia jasotzen du. II. kapituluak, berriz, tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko bitarteko toki-erakundeak arautzen ditu.

Era berean, EAEko Udal Legeak apustu garbi bat egiten du tokiko zerbitzuen kudeaketa partekatua alde, aldundietan integratutako kudeaketarekin kontrajarrita. Hortik segitzen da EAEko tokiko autogobernuaren ereduaren oinarria dela lehentasuna ematea elkarte-oinarridun erakundeei (nagusiki mankomunitateak) eta partzuergoei, tokiko zerbitzuak emateko bitarteko instituzionalak diren aldetik, baldin eta, eskala-arrazoiak direla edo eraginkortasun-arrazoiak direla, beharrezkoa bada zerbitzu horiek udalerrietatik beste instantzia batzuetara eskualdatzea.

Udalen finantzaketa —berebiziko garrantzia duen gaia baita— legearen bederatzigarren tituluan lantzen da. Erregulazio hori da, zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak duen ezaugarri berezietako bat, toki-araubidea lantzen duten gainerako legeen aldean (izan Estatukoak zein erkidegoetakoak). Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak arbuiatu egiten du, beraz, eskumenen eta finantzaketaren arteko bereizketa; aitzitik, guztiz kontrakoa da beraren abiaburua: Euskadin tokiko gobernu arautu nahi duen lege batek bi aldeak bateratu behar ditu. Eta hala da. Kontzertu Ekonomikotik ondorioztatzen diren bereizgarritasun ekonomiko-finantzarioen argitan, eta Autonomia Estatutuak berak jasotzen duen erregulazioa aintzakotzat hartuz, komenigarria ez ezik beharrezkoa ere bada tokiko finantzaketaren alorreko zenbait printzipio eta arau jasotzea, betiere espresuki aitortuta EAEko lurralde historikoek beren esparru instituzionaletan eskumen inportanteak dituztela esparru material horretan, baina argi adieraziz eskumenok, aldi berean, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari esleitzen zaion egiteko ezin garrantzitsuagoan uztartu behar direla, bai alor horretan, bai eremu ekonomiko-finantzarioarekin eta aurrekontu- eta finantza-jasangarritasunarekin loturiko beste alor batzuetan.

Aipaturiko bederatzigarren tituluak zenbait xedapen orokor jasotzen du lehenengo kapituluan. Bertan, EAEko tokiko ogasunaren printzipioak aipatzen dira, eta udalerrien finantzaketa baldintzarik gabekoa izango dela dioen araua ere bai, baina baldintzapeko finantzaketa —beti ohiz kanpokoa izango dena— zenbait betebehari lotuz. Horrez gain, zenbait arau biltzen ditu;



besteak beste, aurrekontuen araubidearen gainean, zorpetze-araubidearen gainean eta kontabilitatearen gainean.

Bederatzigarren tituluaren bigarren kapituluaren xedea EAEko udalerrien eta gainerako tokiko erakundeen finantzaketa da. Eta gai garrantzitsu hori arautzeko, Legeak aukerarik zuhurrenaren alde egiten du, Autonomia Erkidegoko hiru gobernu-mailen interesak (erakunde komunak, lurralde historikoak eta udalak) bateratzeko ahaleginean.

Horrenbestez, protagonismo handia ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari, baina betiere alor horretan lurralde historikoetako foru-organismoek, hala badagokie, erabil ditzaketen eskumenak errespetatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legeak, nolahi ere, bai gai horietan bai beste batzuetan, EAEko udalerrien ordezkarien parte-hartzea bermatzen du, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hartu beharreko erabaki-sorta zabal baten aurrean. Horiek horrela, udalaren presentzia zer eremutan den beharrezko identifikatu nahi izan da, hor hartzen diren erabakiek eragin diezaieketelakoan. Erabaki arauemaile horren bitartez, asetuta geratzen da EAEko udalek egin izan duten eskakizuna, ez bakarrik Euskadiko berezko sisteman ikusgarritasuna izateko, baizik eta zuzenean eragiten dieten erabakitze-prozesuetan aktiboki parte hartzeko.

Legeak, azkenik, garrantzi handiko sei xedapen gehigarri biltzen ditu: tokiko araugintza-ahalari buruzkoa; zehapen-prozedurei buruzkoa; udalerrien federazioei eta elkarteei buruzkoa; enplegu publikoaren eskaintzak batera egiteari buruzkoa; Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioei eta arlo horretan erakunde komunek eta lurralde historikoek dituzten eskumenei buruzkoa, eta, azkenik, tributua banatzeko irizpideak zehazterakoan udalerriek parte hartzeari buruzkoa.

Gainera, bederatzia xedapen iragankor biltzen ditu: udalerrien eskumen propioen inguruko esparru materialetako eginkizunei buruzkoa; jarduerak burutzen eta zerbitzuak ematen jarraitzeari buruzkoa; zerbitzu-kartei buruzkoa; IV. titulu jasotako gardentasun-betebeharrak gerorago aplikatzeari buruzkoa; tokiko musika-eskolen eta udal-euskaltegien araubide bereziari buruzkoa; sektore-legeak erregelamendu bidez garatzeari buruzkoa; Euskadiko tokiko Administrazioaren Erregistroaren indarraldiari buruzkoa, eta, azkenik, Tokiko Erakundearen Erregistroaren inguruko hitzarmenei buruzkoa.

Xedapen indargabetzaile bat eta sei azken xedapen ere biltzen ditu; horietako batzuk bereziki



garrantzitsuak. Lehenengoa, Arbitraje Batzordearen azaroaren 3ko 5/2003 Erabakian azaldutako doktrinari jarraituz, modu zuzen, berariazko eta oinarrituaren bidez taxutzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen aldaketa, Dirubideen Euskal Kontseiluari dagokionean; bigarrena, udalerriek kontseilu horretan parte hartzeko sistema berri baten ezartzeari buruzkoa da. Azken xedapenetan hirugarrenak, berriz, beste paragrafo bat eransten dio Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 45. artikuluari; eta azken xedapenetan laugarrenak, Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 16. artikuluari. Azkenik, bosgarren eta seigarren azken xedapenek legea erregelamendu bidez garatzeari eta legea bera indarrean sartzeari buruzko ohiko aurreikuspenak jasotzen dituzte.

## **I. TITULUA. LEGEAREN XEDEA ETA PRINTZIPIOAK**

### **1. artikulua.- Legearen xedea eta helburua.**

1.- Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan toki-autonomia garatzea, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean jasotako printzipioei jarraituz. Lege honetan jasotako aurreikuspenen bitartez, lortu nahi da, batez ere, EAEko udalek eta gainerako toki-erakundeek beren toki-autonomia osorik balia dezaten babestu eta bermatzea.

2.- Era berean, lege honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko gobernu-mailari eskumen multzo bat ematea, botere politiko propioa izango duela bermatzeko eta bideragarri gerta dakion herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea, tokiko gobernu ireki, garden eta parte-hartzaile baten bidez.

3.- Arau honen bidez, gainera, zehazten da euskal udalerriak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-sisteman duen lekua, bai euskal politika publikoak diseinatu eta gauzatzen parte hartzeari dagokionez, bai udalerrien finantzaketa-sistema zehazteari eta Kontzertu Ekonomikoaren ondorio diren baliabide publikoak banatzeari dagokionez.

### **2. artikulua.- Toki-erakundeak eta zerbitzuak ematea.**

1.- Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek izango dira toki-erakundeak:





- a) Udalerria
- b) Kontzejuak eta udalerrarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidean gaineko oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.
- c) Udalerrien mankomunitateak.
- d) Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak edo beste zernahi erakunde, baldin eta tokiko lurralde-erakunde zenbait biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin, lege honetan eta aplikatu beharrekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

Toki-erakunde horiek nortasun juridikoa izango dute, eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa.

2.- Tokiko zerbitzu publikoak, ahal dela, udalerriak emango ditu, legitimitate demokratiko zuzena duen instantzia den aldetik; eta, hala egitea bideragarria ez bada edo efizientzia edo eraginkortasunagatik bestelakorik komeni bada, orduan, udalerriek berek, udal-autonomiak bere-bereak dituen antolamendu-ahalen arabera eratutako beste toki-erakunde batzuk emango dituzte, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean aurreikusitako eran.

3.- Tokiko zerbitzu publikoak, lurralde historikoetako foru-arauen bidez arautzen denarekin bat, beste edozein toki-erakundek ere eman ahal izango ditu. Zerbitzuak udalez gaindiko toki-erakundeek eman behar badituzte, kontuan izango dira, beti, erakundeak osatuko dituzten udalerrri guztien borondatea eta eskaera.

4.- Zerbitzuak hainbat lurralde historikotako udalerriei ematen dizkieten toki-erakundeak lege honen VIII. tituluan arautuko dira.

### **3. artikulua.- Eskumen-titulua.**

1.- Lege hau onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoari Konstituzioaren azken xedapenetan lehenengoak, Euskal Herrirako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen Legeak ematen dizkieten eskumenak baliatuz.

2.- Eusko Legebiltzarrak toki mailan duen legegintzarako ahala baliatzen da esparru material horren gainean euskal lurralde historikoei dauzkaten berezko eskumenak ezertan galarazi

gabe.

#### 4. artikulua.- Printzipioak.

1.- Udalerrien eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza garatuko da lege honetan ezarritakoaren arabera eta honako printzipio hauei jarraituz:

- a) Toki-autonomiaren printzipioa.
- b) Finantza-autonomiaren printzipioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioen barruan.
- c) Autoantolaketa-printzipioa.
- d) Herritarrek tokiko zerbitzu publikoetara jotzeko berdintasunaren printzipioa.
- e) Herritarrekiko hurbiltasun-printzipioa.
- f) Elkartasunaren eta ingurumen jasangarritasunaren printzipioa.
- g) Herritarrek tokiko politika publikoak formulatu eta gauzatzeko prozesuetan parte hartzearen printzipioa.
- h) Gardentasunaren printzipioa, etika publikoaren garapena eta gobernu onaren printzipioetara egokitzea.
- i) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa
- j) Aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioa.
- k) Tokiko ekintza publikoaren efikazia- eta efizientzia-printzipioa: ekintza publikoa herritarren beharrianak antzeman, hartu eta asetzerara bideratu behar da; eta, horretarako, tresna egokiak baliatu behar dira, politiken eta zerbitzuen plangintzarako, kudeaketarako eta ebaluaziorako prozesuak modu ordenatuan egingo direla eta horiek etengabe hobetuko direla bermatzeko.

2. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako organoek, udalerriei eta gainerako toki-erakundeei eskumenak eta erantzukizun publikoak esleitzen dizkietenean – araugintzakoak nahiz betearaztekoak izan–, honako printzipio hauek errespetatu beharko dituzte:

- a) Finantza-nahikotasunaren printzipioa: udalerriei eta toki-erakundeei eman zaizkien eskumenak baliatzeko finantza-nahikotasuna bermatu behar zaie.
- b) Subsidiarioritasun-printzipioa: tokiko izaera duen edozein eskumen tokiko gobernu-



maila ez dagokion beste instantziaren bati eman ahal izateko, justifikatu egin beharko da efizientziarako eta eskalako ekonomiako arrazoen bidez.

- c) Bereizte-printzipioa, betiere printzipio hori aplikatzea bideragarria bada kasuan kasuko udalerrien edo, hala badagokio, toki-erakundeen kudeaketa-ahalmena kontuan hartuta.

#### **5. artikulua.- Toki-autonomiaren printzipioaren bermea.**

1.- Toki-autonomiaren printzipioa bermatze aldera, udalerriek eskubidea izango dute aktiboki parte hartzeko EAEko erakundeetako gobernu-maila guztietako araugintza-prozesuetan, arauak zuzenean eragiten dienean udalerrien eskumen propioei.

2.- Udalerriek aktiboki parte hartzeko eskubide hori EAEko erakunde eskudunek abiarazi nahi dituzten eta toki-autonomiari eragiten dioten edo eragin diezaioketen programa, proiektu, plan eta politika publiko guztietarako da.

3.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako parte hartzeko eskubidea gobernu-maila bakoitzak taxutuko du, auto-gobernurako dituen ahalak erabiliz.

#### **6. artikulua. - EAEko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala.**

1.- Euskara, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala da; eta, alde horretatik, beren jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da, erabilera normala eta orokorra izango duena. Edonola ere, herritarrek eskubide osoa izango dute tokiko erakundeekiko harremanak zer hizkuntzatan izan nahi dituzten aukeratzeko; eta, hortaz, tokiko erakundeek hizkuntza horretan eskaini beharko diete arreta, eta horretarako behar diren neurriak hartu beharko dituzte.

2.- Toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatzi ahal izango dira. Ahalmen hori baliatu ahal izango da –aipatu berri diren kasuetan–, baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein kideren eskubideak urratzen ez badira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe. Ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idazten direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak edo laburpenak EAEko administrazioari eta

Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeriari jarraituz.

3.- Toki-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, –erakunde barruko, beste edozein administrazio publikorekiko edo, are, partikularrekiko harremanetan– bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera gorabehera, behar diren mekanismoak sortu beharko dituzte, herritarrek karga edo betebeharrak eragingo dieten inolako formaltasun eta baldintzarik gabe baliatu ahal izan dezaten komunikazioak beste hizkuntzan jasotzeko daukaten eskubidea.

#### **7. artikulua.- Euskararen erabilerarekiko udal-eskumenak.**

1.- Udalerriek euskararen erabilera sustatzeko eta beren eskumeneko zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza egiteko eskumena dute. Ondorio horietarako, udalerrri bakoitzak behar diren neurriak hartuko ditu, eta euskararen erabilera normalizatzeko planak onartu eta garatuko ditu, kontuan izanik erakunde komunek eta indarrean dagoen legeriak ezarritako plangintza-irizpideak eta euskararen erabilerarako onartutako araudia.

2.- Era berean, udalerriek eskumena dute beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz nahiz beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

3.- Udalerriei dagokie, halaber, beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea, horrek ezertan galarazi gabe Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan eta aplikatu beharrekoa den gainerako legerian ezarritakoa.

4.- Toki-erakundeek elebitasuna bermatuko dute hizkuntza-paisaian, seinale publikoetan eta beren lurralde- eta eskumen-eremuan zabaltzen eta jasotzen dituzten ohiko nahiz noizbehinkako iragarkietan.

5.- Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartzuz.

6.- Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko



bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute.

7.- Toki-erakundeek beren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekiko harremanetan euskara gero eta gehiago erabil dadin sustatuko dute; horretarako, adostasuna bilatuko dute, eta, edonola ere, hizkuntza ofizial bat nahiz bestea erabili ahal izango dute, beste hizkuntza ofizialerako itzulpenik aurkeztu beharrik izan gabe.

## **II. TITULUA.- UDALERRIA ETA GAINERAKO EUSKAL TOKI ERAKUNDEAK**

### **I. KAPITULUA.- UDALERRIA.**

#### **8. artikulua.- Udalerria.**

1.- Udalerria da, zuzeneko legitimitate demokratikoa duen gobernu-maila izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko toki-erakundea.

2.- Era berean, udalerria da herritarrek tokiko gai publikoetan parte hartzeko duten bidea.

#### **9. artikulua.- Toki-autonomia.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek autonomia osoa dute, ordenamendu juridikoaren barruan, toki-interes publikoko gaiak antolatu eta kudeatzeko.

2.- Udalerrien jarduera arauemaile eta betearazlearen berariazko helburua izango da herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, beren autonomia propioaren eta ordenamendu juridikoak esleitutako eskumenen esparruan, politika propio eta berezituak taxutu eta aplikatu ahal izango dituzte; eta, kasuaren arabera, dauzkaten baliabideen arabera lehentasunak ezarriko dituzte.

4.- Udal-organismoek hartzen dituzten erabakiak aurrekontuen egonkortasunaren eta finantzen jasangarritasunaren printzipioetara bilduko dira, beti.

#### **10. artikulua.- Autoantolaketarako ahala.**

1.- Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean xedatutakoari jarraituz, udalerriek berek ezarriko dituzte beren eskumenak baliatzeko behar dituzten antolamendua eta administrazio- eta instrumentu-egiturak, horrela, gobernu eta administrazio onaren printzipioa benetan gauzatzeko, eta baliabide publikoak finantzen jasangarritasunaren aldetik modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko.

2.- Udalerriek lege honetan, toki-araubidearen inguruko oinarrizko legerian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan jasotako printzipio eta arauetara egokituko dituzte antolaketa-erakundearen arloko erabakiak.

3.- Udalerriek, gainera –autoantolaketarako ahalaren adierazgarri– obrak egiteko eta tokiko zerbitzu publikoak emateko elkarte gisako formuletara jotzeko eskubidea dute. Bereziki, zerbitzuak mankomunitate eta partzuergoen bidez eskainita, Toki Autonomiaren Europako Gutunean aurreikusi bezala, berariaz zaintzen dira subsidiarotasun- eta hurbiltasun-printzipioak, bai eta toki-autonomiarena ere.

#### **11. artikulua.- Toki-erakundearen erregistroa.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, Toki Erakundearen Erregistro bakar bat egongo da, eskumenak baliatzeko informazio fidagarria bermatzeko, toki-autonomiaren printzipioa zaintzeko eta organo- eta gastu-bikoiztasunak ekiditeko.

2.- Erregistroaren funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko da.

3.- Erregistroan egiten den idatzohar oro kasuan kasuko toki-erakundeari dagokion lurralde historikoari jakinaraziko zaio, berehala.

### **. II. KAPITULUA.- BESTE TOKI-ERAKUNDE BATZUK.**

#### **12. artikulua.- Toki-erakundeak eta lurralde historikoen eskumenak.**

1.- Lege honek euskal lurralde historikoek udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko eta udalerriaz gaindiko erakundeekiko dituzten eskumen arauemaile eta betearazleak aitortu eta babesten ditu.

2.- Zehatzago esanda, Arabako Lurralde Historikoan kontzejuen, kuadrillen eta ermandadeen



existentzia bermatzen da, betiere lurralde horretako foru-arauek halakoak aurreikusten dituen kasuetan.

3.- Era berean, lurralde historikoetako foru-organismoek, toki-araubidearen oinarrizko legerian xedatutakoarekin eta lege honetan eta beren eskumenetan aurreikusitakoarekin bat, bakoitzak bere lurralde-eremuko toki-erakundearen ezaugarri historikoak babestu eta bermatuko dituzte.

### **13. artikulua.- Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak.**

Oinarrizko legerian xedatutakoa gorabehera, euskal lurralde historikoetako kasuan kasuko foru-organismoek dagokie udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeekiko eskumen arauemaile eta betearazleak baliatzea, bai eta izaera ekonomiko-finantzarioa dutenak ere.

## **III. TITULUA. UDAL-ESKUMENAK.**

### **14. artikulua.- Udal-eskumenak. Printzipio orokorrak.**

1.- Lege edo foru-arau bidez ezartzen diren udal-eskumenak hiru motatakoak izan daitezke: propioak, transferituak edo eskuordetuak.

2.- Udalerrien eskumen propioetat hartzen dira, lege honen 17. artikuluan ezarritako esparru materialen zerrendarekin bat etorruta, legeetan eta foru-arauetan izaera horrekin onartzen diren eskumenak.

3.- Udalen auto-gobernua eskumen propioak emanez bermatzen da, eta, salbuespen gisa soilik, eskumen transferitu edo eskuordetuen bitartez.

4.- Era berean, udalerriek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute –tokiko komunitatearen intereserako–, baldin eta, lege honetan azaldutakoaren arabera, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta udal-ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada.

5.- Udalerriei eskumen propioak esleitzerakoan kontuan izango dira finantza-nahikotasunaren printzipioa, herritarrekiko hurbiltasunaren printzipioa, subsidiarioritasun-printzipioa eta, kasuaren arabera, bereizte-printzipioa, lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

### **15. artikulua.- Udal-eskumenaren definizioa.**

1.- Udal-eskumena da, legeetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, udalerritari esparru material jakin batean edo sektore edo erakunde berezi batean dagozkion ahalmen eta eginkizunen multzoa edo sorta.

2.- Udal-eginkizun edo -ahalmenak izan daitezke arauemaile edo antolamendukoak, plangintzakoak, programaziokoak, sustapenekoak, kudeaketakoak edo betearazleak.

3.- Edonola ere, udalerriei eskumen bat propiotzat esleitzen bazaie, artikulua honen bigarren paragrafoan deskribaturiko ahalmen guzti-guztiak izango dituzte, salbu eta lege-testuan eginkizunen aldetik mugaketa jakin bat ezartzen bada.

### **16. artikulua.- Udal-eskumenen klausula unibertsala, eta eskumen propio, transferitu edo eskuordetu ez diren jarduera, zerbitzu edo prestazioak.**

1.- Udalerriek, beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, baldin eta herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie.

2.- Edonola ere, eta zerbitzuen antolamendu edo prestazioan bikoiztasunak ekidite aldera, udalerriek ezin izango dituzte zenbait eskumen beren gain hartu edo baliatu; hain zuzen ere, ordenamendu juridikoak, eskumenen esleipen-sistemaren arabera, berariaz beste gobernu-maila batentzat gordetzen dituen jarduera, zerbitzu edo prestazioen gainekoak.

3.- Lege honen ondorioetarako, bikoiztasuntzat jotzen da jarduera, zerbitzu edo prestazio bat bi administrazio publikok edo gehiagok aldi berean burutzea, lurralde-espazio berean eta biztanleria berberarentzat.

4.- Nolanahi ere, ez da bikoiztasuntzat joko jarduera, zerbitzu edo prestazioa beste administrazio publiko batzuk berariaz finantzaturakoak badira edo administrazio horiek bultzaturako politika edo programen ondorio badira.

5.- Artikulu honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak horiei ekiten dien udalerriak finantzatu dituzte, oso-osorik, salbu eta lege edo foru-arauren





batean berariaz bestelakorik aurreikusten bada edo, salbuespen modura, erkidego- edo foru-erakundeen politika berezi baten arabera diruz laguntzekoa bada.

6.- Dagokion legerian eta foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak betetzen ez dituzten udalerriek, izatekotan ere, beren plan ekonomiko-finantzarioan aurreikusitakoaren arabera eta erakunde eskudunek ezartzen dituzten baldintzetan soilik baliatu ahal izango dituzte artikuluko honen 1. paragrafoan ezarritako eskumenak.

7.- Udalerriak eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez diren jarduera, zerbitzu edo prestazioak bultzatu nahi baditu, bikoiztasunik ez dagoela eta finantzen ikuspegitik jasagarria dela erakusteko eskakizun guztiak betetzen dituela justifikatu beharko du, txosten batean. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu mailako arau bidez ezarriko du zer prozedura jarraitu behar duten udalerriek –beren eskumeneko jarduera, zerbitzu edo prestazioei buruz bikoiztasunik ikusten dutenean– kasuan kasuko sailak egin beharreko nahitaezko txostenak eskatzeko; eta zer irizpide bete behar diren txostenak egiteko.

8.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako txostena alkateak eskatuko du, eta osoko bilkurari horren berri emango dio. Txosten hori arlo horretan eskumena duen administrazioari igorriko zaio, bai eta finantza-babesa esleitua duen foru-aldundiari. Erakunde horiek egiten dituzten txostenak lotesleak eta arrazoituak izango dira, eta ezezkoa eman ahal izango dute, soilik, bikoiztasunik badago edo udalerraren finantza-jasangarritasunari eragiten zaiola iritzi badiote. Txosten horiek egiteko hogeit eguneko epea izango dute. Epe horretan txostenik egiten ez bada, udalerriek aurrera jarraitu ahal izango dute hasierako asmoarekin.

## **17. artikulua.- Udalerrien eskumen propioak.**

1.- Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

- 1) Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
- 2) Espazio publikoetan bizikidetzaren harremanak antolatzea eta kudeatzea.

- 3) Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
- 4) Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
- 5) Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- 6) Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
- 7) Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa, eta babes publikoko etxebizitzen plangintzan parte hartzea.
- 8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
- 9) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
- 10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
- 11) Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- 12) Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
- 13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- 14) Diru-sarreraren bermea eta gizareratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
- 15) Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabileradun uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta



hiriko hondakin-uren arazketa.

16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanleguneetako sarbideak eta kale-zoladura antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.

17) Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.

18) Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa –garraiobidea edozein dela–antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerraren barruan egiten bada osorik.

19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.

21) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.

22) Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.

23) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.

24) Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.

25) Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.

26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.



27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

28) Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.

29) Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.

30) Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, arrazionalizazioa eta prozedurak erraztea. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean. 31) Udalerrienak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).

32) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

33) Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.

34) Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostea erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.

35) Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.



36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

37) Garapenerako lankidetzak alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

2.- Toki-autonomiaren printzipioa bermatze aldera, Eusko Legebiltzarraren sektore-legeek edo, kasuan kasu, artikuluko honen lehenengo paragrafoan jasotako esparru materialen arloan eskumen propioak ematen dizkien foru-arauek aurreko paragrafoan materia bakoitzerako aurreikusitako ahalmenak babestuko dituzte. Udalerrientzat gordetako ahalmen horien edozein murrizketa egoki arrazoitu beharko da, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorrira, eta arau bidez gauzatu beharko da beren-beregi.

3.- Nolanahi ere, legeek eta foru-arauek, udalerriei eskumenak propio gisa esleitzen dizkietelarik, artikuluko honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako udal-autonomiaren eremuan zehazten duten ahalmenak handitu ahal izango dituzte, betiere, eskumen horien titular diren udalerrien finantza-nahikotasuna bermatuta, IX. tituluan eta eskumenak baliatzeari eta gaiaren araberrako finantzaketari buruzko berariazko araubideak arautzen dituen lege honetako xedapen gehigarrietan aurreikusten den eran.

#### **18.- Udalerrien eskumen propioak lege edo foru-arau bidez esleitzea: eskakizunak.**

1.- Udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren Eusko Legebiltzarraren lege bidez edota foru-arau bidez zehaztu beharko dira, nahitaez, eta eskumen horiek esleitzearen komenigarritasuna lege honetako 14.5 artikuluan jasotako printzipioen arabera ebaluatu beharko da. Prozesu horietan, aintzat hartuko dira bereziki hurbiltasun- eta subsidiarotasun-printzipioak, hala baitago aurreikusita Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean.

2.- Udalerriei eskumenak ematen dizkien lege-proiektuarekin edota foru-arauren proiektuarekin batera txosten ekonomiko bat egingo da. Txosten horretan jasoko da araugintzako erabaki horiek administrazio publikoen finantza baliabideetan izango duten eragina, eta bereziki Autonomia Erkidegoko gobernu-maila ezberdinen artean banatu beharreko finantza-baliabideen barne banaketan izango duten eragina. Jaso egin beharko da, halaber, eskumen horiek aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioetan izango duten eragina, baita zerbitzu publikoak ematean efizientzia-printzipioan izango duten eragina ere.

3.- Udalerriei eskumenak esleitzen dizkien legeek eta foru-arauek eranskin berezi batean

bilduko dute zenbatekoa den udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko behar baliabidezuzkidura. Zuzkidura horrek ez du euskal administrazio publikoentzat, bere osotasunean hartuta, gastu handiago ekarriko, salbu eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, hartarako egindako kontsultaren ondoren, baimentzen badu.

4.- Era berean, udalerrien eskumen propioen eremuetako sektoreko legeen erregelamendu bidezko garapenak zerbitzuak, jarduerak edota prestazioak zehaztea dakarrenean, bermatu egin beharko da aurreko paragrafoan aurreikusitakoa.

5.- Udalerriei eskumenak esleitzeko legeek eta foru-arauek, artikuluko honetan aurreikusitakoarekin bat etorrita, beren-beregi zehaztu beharko dituzte esparru material bakoitzeko ahalmenak eta eginkizunak, lege honetako 16. artikuluko 3 eta 4 paragrafoetan adierazitako bikoiztasunik ez dela gertatuko bermatzeko.

#### **19. artikulua.- Udal-eskumenak bermatzea eta gauzatzea.**

1.- Eskumen propioak edukitzeak esan nahi du udalerriek dutela arloko legeriak edota forubotere araugileak, 17. artikuluan aurreikusitakoarekin lotuta, mugarritutako esparru materialen inguruko eginkizunen eta ahalmenen titulartasuna lege honek.

2.- Udalerriek beren kasa gauzatu ahal izango dituzte eskumen propioak, edota indarreko legeriak aurreikusitako elkartzeko beste formula egoki batzuk erabilia, halako moldez non eskumen propioen ondoriozko obrak egitea eta zerbitzuen prestazioa edo kudeaketa erraztuko den, betiere eragindako udalerriek zehaztutakoaren arabera.

3.- Era berean, lurralde historikoetako foru-arauek, edo Autonomia Erkidegoak, lege honetako VIII. tituluak xedatutakoaren arabera, beste formula instituzional batzuk ezarri ahal izango dituzte, udalartekoak, esaterako, edota udalaz gaindiko mugapeak. Eta efizientziako eta eskalako ekonomiako arazoak behartuta, kudeaketa emaitzak hobetu egin behar direnean, formula horiek, subsidiarioki eta modu osagarrian, bermatu egingo dute elkartzeko beste formula batzuk udalerrien eskumenak antolatu eta gauzatu egingo dituztela. Formula instituzional horiek ezartzeko, aplikagarria den oinarritzko legerian, lege honetan eta foru-arauetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

4.- Dena dela, toki-araubidearen oinarritzko legeriak eta foru-arauek ezarritakoarekin bat etorrita,

foru-organo eskudunek laguntza teknikoa emango diete bakoitzak bere lurralde historikoko udalerriei, legeek edota, kasuan kasu, foru-arauek udalerriei esleitutako eskumenak benetan gauzatzen direla bermatzeko.

#### **20. artikulua.- Eskumenak eskuordetzea eta transferitzea.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru-organoek udalerriei edo toki-erakundeei transferitu edo eskuordetu ahal izango dizkiete eskumenak.

2.- Transferentziaren eta eskuordetzearen bidez, bereizte-printzipioa gauzatzeko aukera egongo da.

#### **21. artikulua.- Eskumenak transferitzea.**

1.- Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez edo foru-arau baten bidez, autonomia erkidegoaren edo lurralde historikoaren eskumen propioak transferitu ahal izango zaizkie udalerriei.

2.- Transferentzia egiten duen lege edo foru-arauan zehaztu beharko da transferentziaren araubide juridikoa.

3.- Dena dela, udalerriei edozein eskumen transferitzeko, eskumenak egoki gauzatzeko behar besteko finantzaketa egon beharko da.

4.- Autonomia-erkidegoko edo lurralde historikoko erakunde eskudunek, egoki iritziz gero, eta betiere transferentzia arautzeko legearen edota foru-arauren bidez, antolatzeko, planifikatzeko, koordinazio orokorraz arduratzeko eta kontrolatzeko ahalmenak bere eskuetan gordetzea erabaki ahal izango dute.

#### **22. artikulua.- Eskumenak eskuordetzan ematea.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru-organoek, udalei propiotzat esleitu ezik, udalerriei edo beste toki-erakunde batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete beren eskumen propioak.

2.- Euskal erakunde eskudunek hainbat udalerriri edota beste toki-erakunde batzuei eskuordetzan ematen badizkiete eskumenak, eskuordetze prozesu horietan homogeneotasun-

irizpideak erabiliko dituzte.

3.- Eskumenak eskuordetzearen xedea da zerbitzu publikoen prestazioaren efizientzia hobetzea eta administrazio-bikoiztasunak ekiditea, lege honek 16 artikulua 3. eta 4. paragrafoetan aurreikusitako eran, bai eta toki-erakundeen finantza-nahikotasuna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak babestea ere.

4.- Eskuordetzearekin batera, finantzaketa ere zehaztu beharko da. Eskuordetutako zerbitzuak emateko zuzkidurarik bermatzen ez bada, eskuordetzea deuseza izango da. Eskuordetze-erabakian ezarritako finantza betebeharrak betetzen ez badira, Lege honetako 24. artikuluan aurreikusitako finantza-konpentsazioen sistema aplikatuko da.

### **23. artikulua.- Eskumenak eskuordetzan emateko prozedura eta baldintzak**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoak udalerriei edo bestelako toki-erakundeei eskuordetu ahal izango dizkie dagozkion eskumenak. Eskuordetza Eusko Jaurlaritzaren xedapen edo erabaki bidez egingo da.

2.- Dena den, eskuordetzak toki-erakundeak bere burua antolatzeko duen ahala errespetatu beharko du. Eskumen bat eskuordetzan emanaz gero, erabateko erantzukizunez gauzatuko du hartzaileak, gero arautu daitezkeen zuzendaritza- eta kontrol ahalmenak gorabehera.

3.- Eskuordetzea benetan burutzeko, toki-erakundeak berariaz onartu beharko du; gainera, baliabide materialak, zuzkidura ekonomikoak nahiz finantzarioak laga, eta, beharrezkoa bada, giza baliabideak ere jarri beharko dira.

4.- Eskuordetza-xedapenean edo -erabakian, honako kontu hauek zehaztu beharko dira, gutxienez:

- a) Eskuordetzea justifikatzen duten lege-arauak.
- b) Zein eginkizun betearaztea eskuordetu den.
- c) Zein baliabide material, ekonomiko nahiz finantzario edo giza baliabide jarriko diren toki-erakundearen esku, bai eta balorazioa eta berrikusteko prozedura ere.
- d) Zerbitzuaren egiazko kostuaren balorazioa.
- e) Eskuordetzea zein egunetan gauzatuko den, eta zenbateko epea izango duen.





- f) Autonomia-erkidegoak jarritako baldintzak, emandako instrukzio edo jarraibideak, jarritako kontrol-bideak, berarentzat gordetako ahalmenak, eta errekerimenduak egiteko zehaztutako prozedura; azken horren arabera, eskuordetzea ezeztatzea ere gerta daiteke.
- g) Eskumena eskuordetzan jasotzen duen toki-erakundeak izango dituen betebeharrak.

5.- Eskuordetza-dekretuan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, gerta daiteke eskuordetzea bertan behera uztea eta eskumen horiek berriz ere Eusko Jaurlaritzak bereganatzea, aldez aurretik toki-erakundeak dioena entzun eta Jaurlaritzaren Kontseiluak hala erabaki ostean. Toki-erakundeek uko egin ahal izango diote eskuordetzari, eskuordetza-xedapen edo erabakian zehaztuko diren kasuetan. Kasu horietan, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko du eskuordetutako eskumenak gauzatzearen edo ez gauzatzearen ondoriozko baliabideak eta kargak nola likidatuko diren.

6.- Lurralde historikoen, foru-organo eskudunen bidez eta autoantolaketarako ahalak erabilita, eskumen-eskuordetzaren araubide orokorra ezarriko dute, legeetan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

**24. artikulua.- Finantzaketa-bermea eskuordetutako eskumenen kasuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edota foru-aldundien eta toki-erakundeen arteko lankidetzahitzarmenen kasuan.**

1.- Lege hau indarrean sartu ondoren egingo diren eskumen-eskuordetzek edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edota foru-aldundien eta toki-erakundeen arteko lankidetzahitzarmenek, baldin eta finantza-betebeharrak badakartzate, finantza-konpromiso horiek beteko direla bermatzeko klausula bat jaso beharko dute. Klausula horren bitartez – ordaintzak ezarritako eran egiten ez direnerako–, baimena emango zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat erabaki dezan aurreko ekitaldian erakunde eskudunak toki-erakundeei egin ez dizkien finantza-transferentziak atxikitze eta, hurrengo ekitaldian, dagokien udalerriei esleitzeko. Ordaintzeko betebeharra bete ez zen aurrekontu-ekitaldiaren ondoz ondoko ekitaldiaren lehen hiru hilabeteetan konpentsatu beharko da transferentzia hori.

2.- Eskumenak eskuordetzeko erabakiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren



edota foru-aldundien eta toki-erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmenak, lege hau indarrean sartzean denbora jakin batez luzatu behar badira –berariaz edo isilbidez–, aurreko paragrafoan aurreikusitako berme-klausula jasota duten erabaki edo hitzarmenen kasuan baino ezingo dira berriz ere luzatu.

3.- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakian bertan ezarriko da aurreko paragrafoetan aurreikusitako atxikipenak aplikatzeko eta funtsen transferentziarako prozedura.

#### **IV. TITULUA.- UDALERRIAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA. UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUA. ZUZENDARITZA-KIDE PUBLIKO PROFESIONALAK.**

##### **I. KAPITULUA.- UDALERRIAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA.**

###### **25. artikulua.– Printzipio orokorrak.**

1.- Udalerrriaren antolaketa eta funtzionamendua toki-araubidearen oinarritzko legeriak eraenduko ditu, eta, behin onartutakoan, kasuan kasuko erregelamendu organikoak. 2. Udalerriek toki-araubidearen oinarritzko legerian aurreikusitako beharrezko organoak izango dituzte, eta legeria horren eta lege honen esparruaren barruan gauzatu ahal izango dute antolaketarako araugintza-ahalmena.

3. Beharrezko organoen funtzionamenduak, erabakiak hartzeko araubideak eta organo horietako kideen estatutuak aipatutako arau-esparruan xedatutakoa bete beharko dute, lege honetan araututako alderdi berezietan izan ezik.

4.- Edozein kasutan, gobernu-ekintza bermatuko da, eta ordezkari-tza-organoeetan gutxiengo politikoak errespetatuko dira, haien legitimazio demokratikoaren printzipioa betez.

5.- Udalaren ordezkari-tza politikoan sexu bien arteko presentzia orekatua bilatuko da. Horretarako, ahalegina egin beharko da toki-hauteskundeetako hautagai-zerrendetan azken hauteskunde-emaitzak kontuan hartuta hautatuak izateko aukerak dituzten postuetan emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izan dadin, halako moldez non sexu bakoitzak gutxienez postu horien % 40 hartuko dituen.

6.- Bizitza pertsonala, familiara eta profesionala bateratzen laguntze aldera, toki-ordezkariek

sei asteko atsedenaldea hartu ahal izango dute, amatasunagatik, erditu ondoren. Atsedenaldi horrek esan nahi du ez dutela korporazioko organoen saioetara joan beharrik izango, denbora horretan, eta beren botoa dagokien udal-talde politikoaren bozeramailearen esku utzi ahal izango dutela, edo, bestela, beste zinegotzi baten esku.

Botoa eskuordetzan emateko, idazki bat igorriko zaio alkate udalburuari. Idazki horretan, botoa eskuordetzan lagatzen duenaren izena eta eskuordetzan hartzen duenaren izena zehaztuko dira, bai eta zein eztabaidatan eta botaziotan erabiliko den, eta eskuordetzeak noiz arte iraungo duen. Epe hori haurra jaiotzen denetik sei aste artekoa izango da, gehienez.

Boto eskuordetua erabiliko da, soil-soilik, osoko bilkuran erabakitzeak diren gaien inguruko azterlan, txosten edo kontsultak lantzeko osoko bilkura eta batzordeetan. Ezein zinegotzik ez du izango boto eskuordetu bat baino gehiago.

7.- Alkateek, beren eskumenen esparruan, antolaketari buruzko arau mailako xedapen orokorrak eman ahal izango dituzte eta dekretuak edo jarraibideak izango dira.

8.- Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen kasuan, foru-arauek ezarriko dituzte haien antolakuntzako araubidea, eta udalerriekin konpartitzen dituzten eskumenak eta zerbitzuak.

## **26. artikulua.- Alkateordetzak.**

1.- Udalerriek, beren burua antolatzeko ahalak baliatuz, alkateordetzaren figura sortu ahal izango dute udalaren gobernu-egituran.

2.- Udalerrian alkateordetza sortzen denean, figura horrek oinarrizko legerian agertzen den "teniente de alcalde" fogira ordezkatzeko du. Figura horren eginkizunak, izendatzeko eta kargutik kentzeko prozedurak, eta eskumenak toki-araubidearen oinarrizko legerian "teniente de alcalde" direlakoentzat ezarritako berberak izango dira.

## **27. artikulua.- Alkatearen eskuordetzak.**

1.- Alkateak eskuordetzan eman ahal izango dizkie eskumenak tokiko gobernu-batzarrari, alkateordeei eta zinegotziei.

2.- Biztanle-kopuru handiko udalerrietako alkateen eskuordetzak toki-araubidearen oinarrizko



legerian xedatutakoaren arabera egingo dira.

3.- Dena dela, alkateak udaletako zuzendaritza-kideei eman ahal izango dizkie eskuordetzan ordezkaritza-izaera ez duten edota berez ordezkaritza-kargu publikoenak diren eskumen guztiak.

#### **28. artikulua.- Biztanle-kopuru handiko udalerriak.**

Biztanle-kopuru handiko udalerrien erakunde-antolamendua toki-araubidearen oinarritzko legerian eta bere organo eskudunek onartutako antolaketa arauetan bildutako aurreikuspenen arabera egingo da, aplikagarri zaizkion lege honetako alderdietan izan ezik.

#### **29. artikulua.- Antolaketa osagarria.**

1.- Organo osagarriak zehaztu eta osatzeko, udal erregelamendu organikoetan edo, halakorik ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez ezarritakoa jarraituko dute udalerriek, lege honetan aurreikusitakoaren esparruan.

2.- Osoko bilkuran ordezkaritza duten talde politiko guztiek izango dute organo osagarrietan parte hartzeko eskubidea, berariaz uko egin ezean, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-proportzioaren arabera. Udalaren osaera dela eta ezinezkoa denean proportzionaltasun hori lortzea, postuak banatzea erabaki ahal izango da, halako eran non gehiengoaren osaera osoko bilkurakoa bera izango den; edo, bestela, organoa talde bakoitzeko kide-kopuru berdinarekin osatu ahal izango da, eta, erabakiak hartzeko, boto-sistema haztatua aplikatu.

#### **30. artikulua.- Bilkuren publizitatea.**

1.- Osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak ez dira, inolaz ere, publikoak izango, organo horrek osoko bilkurak eskuordetutako ahalmenak baliatuz jarduten duenean izan ezik.

2.- Eztabaidak eta bozketak sekretuak izan daitezke Konstituzioaren 18.1 artikuluko oinarritzko eskubideari buruzkoak direnean, betiere gehiengo osoak hala erabakitzen bada. Dena dela, osoko bilkura batean irudia edo soinua grabatzen bada, edo ohoreari, norbere eta familia-

intimitateari eta irudi pertsonalari lotutako eskubidean eragina izan dezaketen gaiak tratatzen badira, gai horiek tratatzen diren bitartean grabazioa eteteko aginduko du lehendakariak –bere ekimenez edo edozein udal talde politikok proposatuta–, herritarren oinarrizko eskubideak eta datu pertsonalak babesteko legeria betetze aldera.

3.- Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzen dituzten, haien gainean irizpena eman zein haietaz aholkua emateko edo gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak– ez dira jendaurrekoak izango, osoko bilkurak kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz kontrakorik erabaki ezean edo udalaren araudi organikoan aurreikuspen berariazkorik egon ezean.

4.- Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, artikulua honetan aipatzen den bilkuren informazioa eta publizitate-arabidea bitarteko eta formatu eskuragarrien bidez emango da.

## II. KAPITULUA.- UDAL-ORDEZKARIEN ESTATUTUARI BURUZKO XEDAPENAK.

### 31. artikulua.– Udal-ordezkarien araubidea.

1.- Euskal udal-ordezkarien araubide juridikoa toki-araubidearen oinarrizko legerian eta hauteskunde-legeria orokorrean ezarritakoa izango da. Toki-araubidearen oinarrizko legeriarekin bat etorrita, lurralde historikoetako foru-organoek zehaztuko dituzte osotara ordezkari horien ordainsariei eta bertaratzeei dagozkien gehienezko mugak, estatuko legeriak ezarritako printzipio eta egituraren arabera, eta biztanleriaren arabera Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako erabakitako eskaletara moldatu ahal izango dira.

2.- Euskadiko Autonomia Estatutuak 37.3 e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Lurralde Historikoetako foru-organoek bakoitzak bere lurralde-eremuko udalerrien hauteskunde araubidea arautuko dute, parte-hartze politikoa izateko oinarrizko eskubidea eta hauteskunde-legeria orokorretik ondorioztatutako printzipioekiko errespetuaren esparruan.

3.- Aurreko paragrafoan xedatutakoa aparte utzita, udaletako ordezkari-tzita-karguen bateraezintasunen araubideak aplikagarri zaion araudian aurreikusitakoa jarraituko du. Interes-gatazkei dagokionez, toki-araubidearen oinarrizko legeriak aurreikusitakoa kontuan hartuta arautuko da, alde batera utzi gabe gai horren inguruan udalerriek onar ditzaketen

jokabide-kodeek berariaz araututakoa.

4.- Toki-ordezkarien eskubide eta betebeharrak oro har toki-araubidearen oinarritzko legerian eta lege honetako aginduetan ezarritakoak izango dira.

### **32. artikulua.- Udal-ordezkarien ekonomia-eskubideak eta arduraldi-araubidea.**

1.- Udal-ordezkariek toki-araubidearen oinarritzko legerian eta, hala badagokio, lege honetan berariaz aurreikusten diren eskubide ekonomikoak eta arduraldi-araubideak izango dituzte.

2.- Mila biztanletik gorako udalerrietan, alkateek, beren-beregi uko egiten ez badiote, arduraldi eskusiborako eskubidea dute. Ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute eta alta emango zaie Gizarte Segurantzari.

3.- Alkateak proposatuta, osoko bilkurak zehaztuko du arduraldi eskusiboa edo partziala izango duten karguek edo korporazioko kideek, eta dagozkien ordainsariak. Osoko bilkuraren erabakiak –arduraldi partzialeko kasuetan– ordainsari horiek jaso ahal izateko gutxieneko arduraldiaren araubidea zehaztuko du.

4.- Aurreikuspen horien esparruan, udal bateko osoko bilkurak bateraezintasunen araubidearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoen araubidea ezarri ahal izango du, ordezkari-kargu bati aplikatu ahal izango zaiona eginkizun betearazleak izanik, agintaldia amaitu eta hurrengo bi urteetan bere jardura profesionala bete ezin izategatik, toki-araubidearen oinarritzko legeriak ezarritakoaren arabera.

5.- Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik kobratu ahal izango dute bertaratzeengatik. Osagai finko bat eta aldakor bat izango dute. Osagai finkoa berbera izango da udal ordezkari guztientzat, eta horrekin, karguari dagozkion kide anitzeko organoetara, bileretara edo jardueretara joatea ordainduko da. Osagai aldakorrarekin bereizi egingo dira ordezkari-karguaren erantzukizunarekin lotutako eginkizunak. Osoko bilkurak zehaztu ahal izango du korporazioko kide bakoitzak urtean gehienez ere zenbat jaso ahal izango duen bertaratzeengatik.

6.- Toki-erakundeetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte, administrazio publikoetan orokorrean aplikatzekoak diren arauen



arabera eta haien garapenean korporazioko osoko bilkurak onar ditzan arauen arabera, hain zuzen.

7.- Alkatearen eta zinegotzien eginkizun publikoak betetzeko behar beste denboratzat joko da, udaleko edo mankomunitate bateko kide anitzeko organoetara joaten eta parte hartzen emandakoa. Hartakotzat hartuko da, era berean, alkateek eta zinegotziek ordezkatzeko-lanetan, eskuordetze eginkizunetan edo beste erakunde batzuekin edo herritarren elkarteekin egindako bileretan eta karguari dagokion beste edozein jardueretan emandako denbora ere.

### **33. artikulua.- Oposizioaren estatutua.**

1.- Hamar mila biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango duela, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko.

2.- Bost mila eta hamar mila biztanle arteko udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek gutxienez arduraldi partziala izango duela, aurreko paragrafoko helburu berberarekin.

3.- Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde-emaitzen arabera ordezkari-kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edota, indar politiko bozkatuenari. Botoberdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka hartuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan.

### **34. artikulua.- Udal-talde politikoak.**

1.- Udal-ordezkariek talde politikoetan antolatuko dute beren burua, eta oinarritzko legerian eta lege honetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte, salbu eta atxiki gabeko kideak, horien ekonomia-eskubideak eta eskubide politikoak ezingo baitira izan jatorrizko taldean jarraitu izan balute izango lituzketenak baino gehiago.

2.- Udal-talde politikoek diru-sariak jasotzeko eskubidea izango dute. Sari bat finkoa izango da talde guztientzat, eta bestea, aldakorra, ordezkari kopuruaren arabera, ordezkari horiek esleitutako eginkizunak duintasunez burutu ahal izateko. Osoko bilkurak ezarriko ditu ordainsari horiek ezartzeko eta esleitzeko irizpideak.

3.- Erregelamendu organikoak ezarriko du taldea osatu ahal izateko gutxienez zenbat kide beharko diren. Talde bat osatzeko gutxienerako kopurura heldu ezean, zinegotziak talde mistoan sartuko dira, atxikipen gabeak izan ezik.

4.- Udal-talde politikoek bat etorri beharko dute korporazioan ordezkariak lortu duten zerrendak aurkeztu dituzten alderdi, federazio, koalizio edo elkarteekin.

5.- Talde politikoa osatzeko, idazkia zuzendu beharko zaio korporazioko presidenteari. Idazkian, adieraziko dute talde horretako kide izateko euren borondatea, taldearen izena, eta bozeramailearen eta haren ordezkoren izena; eta taldea osatu nahi duten guztiek sinatuko dute. Idazkia korporazioa osatu eta gero formalizatuko da, baina udal-antolamendua eta funtzionamendua zehazteko osoko bilkuraren aurretik. Hala ere, eratze-saioa eta gero zinegotzi izendatutakoek ere osatu ahal izango dute, eta, salbuespenez, arrazoi justifikatuengatik zegokion unean ezin izan zutenek ere. Ezin da aldi berean bi taldetan egon.

6.- Udal-talde politikoetako bozeramaileek, korporazio-buruaren gidaritzapean, bozeramaileen batzarra eratu ahal izango dute. Atxiki gabeko zinegotziek ezin izango dute parte hartu batzar horretan.

### **35. artikulua.- Udalaren jokabide-kodea.**

1.- Udalaren jokabide-kodeak bilduko ditu hautetsiek euren harremanetan edota enplegu publikoan eta beste erakunde batzuetan jarduten duten pertsonetikiko, eta, oro har, herritarrekiko harremanetan jarraitu beharreko balio, printzipio eta jardute-arauak.

2.- Udal jokabidearen kodeak, halaber, gobernu ona eta udal-politikaren erakunde-kalitatea bideratzeko printzipioak edo jarduteko jarraibideak jaso ahal izango ditu. Osoko bilkurak onartuko du kode hori, edo, bestela, tokiko gobernu-batzarrak.

3.- Udalerriek, autoantolaketarako dituzten ahalmenez baliatuz, jokabide-kode propioak egin eta onartu ahal izango dituzte, edota ezarpen handiena duen euskal udalen elkarteak onartzen duen dokumentura atxiki. Edonola ere, toki-erakundeak onartzen duen jokabidearen kodeari ahalik eta zabalkunde eta publizitate handiena eman beharko zaio, erakundearen webgunearen bidez edo horretarako erabilitako beste edozein bitartekoren bidez.





4.- Udal hautetsien jokabidearen kodearekiko atxikipenak berariazkoa, indibiduala eta borondatezkoa izan behar du. Udalean jarduten duten goi-kargudunak eta zuzendaritza-kideak ere, kode horretara atxiki ahal izango dira, modu berean atxiki ere.

5.- Kodeak, era berean, jarraipen-, kontrol eta ebaluazio-sistema bat ezarri ahal izango du, toki-erakunde bakoitzean kodea nola aplikatzen den jakiteko, hain zuzen.

6.- Dena dela, onartuko den jokabide-kodeak bermatu egin beharko du ordezkari publikoek, beren jardunaren ardatza izan behar duten balio, printzipio eta arauen artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa sustatuko dutela.

7.- Nolanahi ere, toki-erakundeetako kideei Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako jarduera- eta jokabide-printzipioak aplikatuko zaizkie.

### **III. KAPITULUA.- ZUZENDARITZA-KIDE PUBLIKO PROFESIONALAK.**

#### **36. artikulua.- Zuzendaritza-kide publiko profesionalak.**

1.- EAEko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek zuzendaritza publiko profesionaleko postuak sortu ahal izango dituzte euren administrazio-egituretan, oinarrizko legerian, lege honetan eta enplegu publikoari buruzko euskal legerian ezarritakoarekin bat etorrira.

2.- Zuzendaritza-organo profesionaletako titularrek eginkizun deskontzentratuak, eskuordetuak edo propioak izango dituzte; politika publikoak formulatu, bultzatu, kudeatu eta ebaluatuko dituzte; eta dena-delako toki-erakundeko goi-organoek hartutako erabakiak eta politika publikoak gauzatu dituzte, eskatutako eraginkortasunez eta bizkortasunez.

#### **37. artikulua.- Araugintza-ahalak. Antolamendurako bitartekoak.**

1.- Zuzendaritza publikoa arautuko duen Erregelamenduan zehaztuko dute udalerriek euren antolamenduko zein eremu eta mailatan sortu ahal izango diren zuzendaritza publiko profesionaleko postuak, zein izango duten araubide juridikoa, eta haien eskubide eta eginbeharren estatutua, oinarrizko legerian, lege honetan eta enplegu publikoari buruzko euskal legerian ezarritakoarekin bat etorrira.

2.- Zuzendaritza-kide publikoen Erregelamendua ez badago onartuta, gobernu-batzarrak erabaki bidez definitu ahal izango ditu, behin-behinean, toki-erakundearen zuzendaritza publiko profesionalaren egiturak izango dituen eremuak eta mailak.

3.- Zuzendaritza publiko profesionalera atxikiko diren lanpostuak dena delako udalaren lanpostuen zerrenda ez den antolamendurako bitarteko ezberdin bat erabilita zehaztuko dira. Osoko bilkurari dagokio antolamendurako bitarteko hori onartzea, biztanle-kopuru handiko udalerrietan izan ezik. Horietan, tokiko gobernu-batzarrak izango du eskumena.

### **38. artikulua.- Toki-administrazioko zuzendaritza-kide publiko profesionalen izendapena eta araubide juridikoa.**

1.- Toki-administrazioko zuzendaritza-kide publikoak hautatzeko prozeduraren xedea da hautagaiek gaitasun profesionalak eta esperientzia egiaztatzea eta, hartara, ebaluatu ahal izatea, batetik, haien prestakuntza, gaitasun profesionala eta esperientzia ebaluatzea, eta, bestetik, zuzendaritza postuari dagozkion eginkizunetarako egokitasuna. Prozedura hori, publizitate eta lehia-printzipioak bilduko dituen sistemen bidez egingo da.

2.- Toki-administrazioko zuzendaritza-kideei administrazio publikoko zuzendaritza-kide publikoen inguruan jarraian aipatzen diren alderdiak zehazten dituen euskal enplegu publikoaren gaineko araudia aplikatu beharko zaie:

- a) Gaitasun profesionalak egiaztatzeko eta ebaluatzeko prozedura.
- b) Zuzendaritza-kide publiko profesionalak hautatu eta izendatzeko irizpideak, eta zer egoeratan kendu haiek kargutik.
- c) Zuzendaritza-kide publiko profesionalen pizgarriak onartu eta ezartzeko araubide orokorra, eta haiek ordaintzea onartuko duen ebaluazio-sistema.
- d) Zuzendaritza-kide publiko profesionaleri aplikatu beharreko araubide juridikoa.
- e) Eraitzen ebaluazioa.
- f) Euskal administrazio publikoetako zuzendaritza publiko profesionaleri dagokien beste edozein alderdi.

### **39. artikulua.- Bateriaezintasunak eta jokabide-kodea.**

Toki-administrazioetako zuzendaritza-kide publiko profesionalak Eusko Jaurlaritzako

bateraezintasunen araubidea eta kargu publikoen jokabide-kodea bete beharko dute, euskal enplegu publikoaren gaineko araudian aurreikusitakoarekin bat eta toki-araubidearen oinarritzko legerian toki-administraziozko zuzendaritza-kide publiko profesionalen bateraezintasunei eta interes-gatazkei buruz aurreikusten diren salbuespenekin.

#### **40. artikulua.- Biztanle-kopuru handiko udalerrietako zuzendaritza-kideak.**

1.- Kapitulu honetan aurreikusitakoa bete beharko da alde batera utzi gabe biztanle-kopuru handiko udalerriei zuzendaritza-organoekin lotuta aplikatu behar zaion toki-araubideko legeria orokorrak bildutako aurreikuspenak, titularren izendapenari eta kargu uzteari dagokienez, zein gai horren inguruan goi-mailako organoek dituzten eskumenei dagokienez.

2.- Autoantolaketaren printzipioa kontuan hartuta, eta aurreko paragrafoan bildutako oinarritzko legearekiko dagozkion baliokidetasunak ezarrita, biztanle-kopuru handiko udalerriek zuzendaritza-egiturak zehaztu ahal izango dituzte, aipatu araudietan jasotako izendapenekin bat ez datozenak, eta, era berean zuzendaritza-organoak bildu ahal izango dituzte pertsona berak bete ahal izateko.

3.- Udal-erregelamendu organikoaren bitartez, oinarritzko legerian aurreikusitakoaren arabera karrerako funtzionarioek bete beharrekoak ez diren zuzendaritza-organoen eginkizunen ezaugarri bereziak zehaztu ahal izango dira.

### **V. TITULUA. UDALERRIKO AUZOTARREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK. ZERBITZU-KARTAK.**

#### **I. KAPITULUA.- UDALERRIKO AUZOTARREN ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.**

#### **41. artikulua.- Udalerriko auzotarren eskubideak.**

1.- Auzotarren eskubideak dira honako hauek:

- a) Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde-legerian edota hauteskundeetan aplikagarri den araudiarekin bat etorrira.
- b) Tokiko politika publikoak identifikatzen, prestatzen, kudeatzen eta ebaluatzen, eta

herri arazoetan parte hartzea, legeek, udal erregelamendu organikoek eta herritarren parte-hartzeari buruzko erregelamendu organikoek ezarritakoarekin bat etorrira, biztanle-kopuru handiko udalerrien kasuan, eta dagozkion ordenantzetan eta erregelamenduetan araubide erkideko udalerrietan.

- c) Ingurumen eta hiri-espazio publiko egokia eta iraunkorra gozatzea.
- d) Erraz iristeko moduko ingurunea izatea, desgaitasunen bat duten pertsonen joan-etorriak eta parte-hartzea ez oztopatzeko.
- e) Zerbitzu publikoak eta interes orokorreko zerbitzu pribatuak modu eraginkorrean eta berdintasun-baldintzetan eskuratzea, lege honetan eta kasuan kasuko ordenantzetan eta erregelamenduetan ezarritakoaren arabera. Bereziki sustatuko da gizartean desabantailan dauden edota objetiboki hala eskatzen duten pertsona, kolektibo eta taldeek udal-zerbitzu horietara iristea.
- f) Udal-esparruan eragin dezaketen arrisku natural zein teknologikoei eta babes zibileko udal-planei buruzko informazioa jasotzea.
- g) Kulturarako eskubidea eta kultura ondareko ondasunetara iristekoa.
- h) Toki-administrazioarekiko harremanetan, hizkuntza ofizial bietatik edozein erabiltzeko eta aukeratutakoan artatua izateko eskubidea, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legeriaren arabera.
- i) Legeek eta udal-ordenantzek herritarrek parte hartzeko aurreikusitako bitartekoez baliatzea bermatuta izatea.
- j) Udal-administrazioan eta bere erakunde instrumentaletan edo mendekoetan tratu berdina jasotzeko eskubidea, sexua edo beste edozein zirkunstantzia gorabehera. Bermatu egingo dira, halaber, diskriminazio anizkoitza jasaten duten pertsona edo pertsona-taldeen oinarritzko eskubideak.
- k) Legeetan edo, hala badagokio, foru-arauetan, udal-ordenantzetan eta lege honetan ezarritako gainerako eskubideak.

2.- Artikulu honetako lehenengo paragrafoan bildutako eskubideak izango dituzte, halaber, dena delako udalerrian erroldatutako atzerritarrak ere, baita adingabeak ere, lege honetan, sektoreko legeetan eta udal-ordenantza eta erregelamenduetan zehaztutakoaren arabera. Salbuespena izango dira berriazko hauteskondeekin lotutako eskubideak, horiek berriazko araudia baitaukat.



3.- Tokiko araugintza-ahalaren adierazpenek, eta toki-erakundeetako organoen erabakiek eta egintzek artikulua honetan jasotako eskubideak islatu eta bermatu beharko dituzte.

#### **42. artikulua.- Auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak.**

1. artikulua.- Udalerriko auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak honako hauek dira:

- a) Legez edo udal-ordenantzen bidez aurreikusitako prestazio ekonomiko eta pertsonalen bitartez, eta garraioko prestazioen bitartez, udal-eskumenak gauzatzen laguntzea.
- b) Udal-errolan agertu behar diren datuen aldaketa ekarriko duten zirkunstantzia pertsonalen edozein gorabeheraren berri ematea, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorrira.
- c) Tokiko arauak betetzea, eta horiek aplikatzeko laguntza ematea, eta, horretarako, zerbitzuak ematea eragozten edo zailtzen duen edo erabiltzaile edo hirugarrenentzat arriskua dakarren edozein anomaliaz informatzea tokiko agintariak.
- d) Udal-ondarea, azpiegiturak, udal-zerbitzuak eta hiri-altzariak zentzuz eta egoki erabiltzea, eta haiek kontserbatzen eta zaintzen laguntzea. Era berean, udal ekipamenduak eta zerbitzu publikoak –bide-seinaleak eta hiri-altzariak barne hartuta– errespetatu beharko dituzte, baita haiek berreskuratzen eta kontserbatzen lagundu ere.
- e) Espazio publikoan herritarren bizikidetzarako arauak errespetatzea, eta, era berean, beste pertsonen eskubideak ere errespetatzea.
- f) Ingurumena, espazio publikoa eta hiri-paisaia zaintzea eta hobetzen laguntzea, jarrera ekologiko eta jasangarrien bitartez.
- g) Efizientzia energetikoko politika publikoak eraginkortasun handiagoz bermatzeko, toki-erakundeekin lankidetzan aritzea. Halaber, kontuan izango dituzte uraren, hondakin-uren arazketaren eta hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko udal-zerbitzuen efizientzia areagotzeko jarraibideak.
- h) Hiri-bideei buruzko arauak egoki betetzea, baita hondakinak uzteko udalak zehaztutako leku, egun eta orduei buruzko arauak ere.
- i) Legeetan eta udal-ordenantzetan –bereziki espazio publikoaren erabilerak edo auzotarren arteko bizikidetzaren harremanak arautzen dituztenetan– aurreikusitako beste edozein.



2.- Aurreko paragrafoan araututako betebeharrak eta erantzukizunak, b) idatzi-zatian aurreikusitakoa izan ezik, udalerrian aldi baterako edo luzarorako dauden pertsonak ere bete beharko dituzte, auzotar izan ez arren.

3.- Era berean, artikuluko lehen paragrafoan aipatutako betebeharrak eta erantzukizunak gidatuko dute, printzipioak diren aldetik, tokiko araugintza-ahala, politika publikoak, zehapen-motak eta zehapenen aplikazioa, hala badagokio, eta espazio publikoa zaintzea, bizikidetzaren harremanak eta zerbitzu publiko jakin batzuk ematea xede duten udal-ordenantzetan araututako zehapen-prozedurak.

## **II. KAPITULUA.- ZERBITZU-KARTAK.**

### **43. artikulua.- Zerbitzu-kartak.**

1.- Udalerriek zerbitzu-kartak edo dokumentu baliokideak onartu ahal izango dituzte. Bertan jasoko dira udal-zerbitzu jakin batzuen ezaugarri nagusiak; erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak adieraziko dira, bai eta zerbitzu horiek ematean hartutako kalitate-konpromisoak ere. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, nahitaezkoa izango da zerbitzu-karta edo dokumentu baliokideak onartzea.

2.- Zerbitzu-kartek edo dokumentu baliokideek adierazle objektiboak ezarriko dituzte –hala dagokionean, sexuaren arabera bereizita–, udal-zerbitzuen errendimendua eta zerbitzu horien prestazioari buruzko auzotarren gogobetetzea ebaluatu ahal izateko.

3.- Zerbitzu-kartei edo dokumentu baliokideei buruzko publizitatea udalaren egoitza elektronikoan edo web orrian emango da, edota, udal-gardentasunaren atarian.

### **44. artikulua.- Tokiko zerbitzu publikoen kalitatea.**

Udalerriek zerbitzu publikoen kalitatea bultzatuko dute, egiaztatze- edo ebaluazio- sistemen bitartez. Sistema horiek, aurreko artikuluan araututako zerbitzu-kartetan bilduko dira.

## **VI. TITULUA.- GOBERNU IREKIA. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA.**

### **I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.**

#### 45. artikulua.- Gobernu irekia.

1.- Lege honen helburua da udalerrien eta gainerako toki-erakundeen gobernu irekia indartzea, erakundeen kalitatea indartzeko eta Euskadiko tokiko gobernu-maila ezberdinen eta herritarren arteko harremanetarako esparru berri bat finkatzeko.

2.- Hona hemen gobernu irekia bermatzeko bitartekoak:

- a) Gardentasuna sustatu, eta titulu honetan eta gardentasunaren arloko oinarrizko legerian jasotako publizitate aktiboko betebeharrak bete.
- b) Informazio publikoa eskuratzea, gardentasunaren arloko oinarrizko legeriak eta lege honek aurreikusitakoarekin bat etorrira.
- c) Herritarren partaidetzarako tresnak eta bideak garatu titulu honetan zehaztutakoarekin bat etorrira.

3.- Lege honetan aurreikusitakoaren arabera partaidetzarako kanalak zehazteaz gain, gobernu irekia gauzatzeko bitartekoen da herritarrei honako hauek buruzko informazio fidagarria ematea: tokiko gobernuek nola betetzen dituzten euren eginkizunak, nolako politika publikoak abiarazten dituzten eta nola kudeatzen dituzten baliabide publikoak, arduradun publikoen kontuak ematea erraztuz.

4.- Titulu honetan ezarritakoetarako, hona hemen *publizitate aktiboa*, *informazio publikoa* eta *herritarren parte-hartzea* nozioen nondik norakoa:

- a) Gardentasuna: herritarrek toki-erakundeen eskuan dagoen informazio publikora iristea errazten duen prozesua, betiere lege honek eta aplikagarri zaion legeriak ezarritako esparruan eta mugen barruan.
- b) Publizitate aktiboa: herritarrentzat interesa duen informazio publikoa publiko egitea eta elkarrekintza komunikatiboko prozesua sustatu ahal izatea, horrela, konpromisoak nola betetzen dituzten erakusteko modua eskaintzeko eta tokiko botere publikoek benetan kontuak emateko, herritarren aurrean.
- c) Informazio publikoa: toki-erakundeen esku dagoen informazioa, beren eginkizunen barruan landu edo eskuratu dutena, edozein dela ere informazio horren euskarria eta adierazpidea.



- d) Herritarren parte-hartzea: politika publikoak identifikatzeko, diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prestatutako prozedura, kanal, eta erakunde-organoen multzoa, edo herritarrak modu aktiboan entzuteko edozein tresna edo bide.

#### **46. artikulua.- Toki-erakundeen gardentasuna eta herritarren parte-hartzea.**

1.- Titulu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen gardentasun betebeharrak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen printzipio orokorrak arautzea eta betebeharrak horiek betetzen direla zainduko duen organoa zehaztea. Organo horrek ebatziko ditu, hala badagokio, informazio publikoa eskuratzeko erreklamazioak, eta estatuko edo autonomia-erkidegoko legeen esparruan antzeko ezaugarriak dituzten organo edo erakundeei dagozkien bestelako eginkizunak ere beteko ditu.

2.- Titulu honen xedea da, halaber, herritarren parte-hartzea arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan.

#### **47. artikulua.- Titulu honetako arauen aplikazio-eremua.**

1.- Titulu honetan bildutako arauak honako hauei aplikatuko zaizkie:

- a) Udalerriei.
- b) Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- c) Gainerako toki-erakundeei, toki-araubidearen oinarritzko legeriak eta lege honek ezarritakoarekin bat etorrira.
- d) Toki-erakunde horiei lotutako edo horien mendeko diren erakunde publikoei.
- e) Udal enpresa publikoei, artikulua honetako erakundeek ehuneko 50eko baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialesan.
- f) Toki-erakundeek sortutako fundazioei eta patronatuko kide gehienak toki-erakundeen ordezkari dituzten fundazioei.
- g) Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edota nagusitasunezko lekua toki-erakunde batek badu.

2.- Orobat aplikatuko zaizkie publikotasun aktiboaren arauak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ondorio direnak, bai eta udalerrien edo gainerako toki-erakundeen





euskal elkarteen kontrolatzeko organo gisa dagozkionak.

3.- Publizitate aktiboko arauak aplikatu beharko dituzte, halaber, aurrekontu-ekitaldi batean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriegandik edota gainerako toki-erakundeengandik guztira 100.000 eurotik gorako laguntzak edo diru-laguntzak jaso dituzten erakunde pribatuek, edota urteko diru-sarreraren ehuneko 40 laguntza edo diru-laguntza publikoak direnean, eta betiere, 5.000 euro badira, gutxienez.

4.- Irabazi asmorik gabeko erakundeak direnean, gizarte-, kultura-, hizkuntza- ingurumen- intereseko helburuak baino ez dituztenean, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua dutenean, lege honek ezarritako betebeharrak betetzeko, laguntzak edota ekarpenak nagusiki jasotzen dituzten toki-erakundeetako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte.

5.- Aurreko paragrafoetan zehaztutakoez bestelako beste edozein pertsona fisiko edo juridiko ere, zerbitzu publikoak ematen baditu edota administrazioaren ahalak betetzen baditu, behartuta egongo da, eskatzen bazaio, tokiko administrazioari eta haren erakunde instrumentalei, mendeko nahiz lotutako, titulu honetan aurreikusitako betebeharrak guztiak benetan gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia ematera. Betebeharrak hori sektore publikoko kontratuen esleipendunei ere badagokie, kontratuan aurreikusitako baldintzetan.

## **II. KAPITULUA: EAE-KO TOKI-ERAKUNDEEK PUBLIZITATE AKTIBOAREN ARLOAN DITUZTEN BETEBEHARRAK.**

### **48. artikulua.- Publizitate aktiboa. Printzipio orokorrak.**

1.- Herritarrek eta herritar-erakundeek toki-gobernua eta administrazioa nola antolatzen den, zer eginkizun betetzen dituen, erabakiak hartzerakoan zer eremu eta politika lehenesten duen eta tokiko zerbitzu publikoak kudeatzekoan baliabideak nola esleitzen dituen jakiteko interesgarri den informazio publiko oro eskura dauden bideak erabiliz publiko egin beharrezkoa da lege honen ondorioz, eta betebeharrak hori bere gain hartuko dute EAEko toki-erakundeek.

2.- Publizitate aktiboaren arloko betebeharren helburua da, alde batetik, toki-erakundeen boterearen kontrol-lana, toki-erakundeen jarduera politiko eta instituzionala, eta administrazio-jarduna erraztea; eta, bestetik, ordezkaritza publikoak kontuak emango dituztela eta herritarrek haien kudeaketa arakatzeko aukera izango dutela segurtatzea.

3.- Gardentasun-betebeharrak informazio interesgarri guztia erakundearen webgunean edo egoitza elektronikoan argitaratuz beteko dira, batez ere. Aurrekoa gorabehera, eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bermatze aldera, tokiko botere publikoek informazio hori beste bide batzuen bitartez ere zabaldu beharko dute, baliabide elektronikoetara jotzeko modurik ez duten herritarrek eta, batez ere, interneten nabigatzeko baliabiderik, bitartekorik edo ezagutzarik ez duten pertsona edo kolektiboek ere izan dezaten haren berri. Pertsona eta kolektibo horiei guztiei, informazio hori eskuratzeko eta, beste pertsona edo kolektiboek bezalaxe, beren eskubideak baliatzeko behar dituzten publizitate aktiboko bitartekoak edo tresnak eskainiko dizkie administrazio publikoak –erabilgarri dituen baliabide teknologiko eta ekonomikoen barruan–.

4.- Publizitate aktiboaren arloan aplikatu beharrekoak izango dira, halaber, gardentasunari buruzko oinarritzko legeriak bere egiten dituen mugak, bereziki datu pertsonalen babesaren ondoriozkoak. Alde horretatik, informazioan bereziki babestutako datuak azaltzen badira, datu pertsonalak disoziatu egin beharko dira publiko egin aurretik.

5.- Egoitza elektronikoetan edo beste edozein formatu-motatan azaltzen den informazioak egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, sexuaren arabera bereizkeriarik egiten ez duena, argia, samurra eta zehatza behar du izan; eta, gainera, herritarrek ulertzeko moduko mezuekin osatu beharko da; horretarako, batez ere bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duten beste edozein konposizio-bide erabiliko da, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko.

6.- Publizitate aktiboaren adierazpen grafikoak erabiliko dira publizitate aktiborako ohiko bitarteko gisa konplexutasun handiko gai eta datuen kasuan. Nolanahi ere, adierazpen grafiko horiek nahitaez erabili behako dira izaera ekonomiko-finantzarioa duen edozein informazio zabaltzeko, bai eta helburu nagusia baliabide publikoak erabiltzea, politika publikoak lehenestea edo zerbitzu publikoen bidez herritarren beharrei erantzutea duen, edo estatistika edo ehunekoen bidez erakusteko modukoa den beste edozein informazio zabaltzeko.

7.- Era berean, tokiko administrazioek eskaintzen duten informazioak izan behar du beste edozeinek erraz eskuratzeko modukoa; doakoa; denboran, egokia; kalitate handikoa; segurua; kanal anitzekoa; formatu anitzekoa, eta berrerabilgarria; eta, gainera, interoperabilitateak bermatuta egon behar du. Orobat zainduko da desgaitasunen bat duten pertsonen informazioa

eskuratu ahal izatea; horiek horrela, administrazio publikoek, erabilgarri dituzten baliabide teknologiko eta ekonomikoen barruan, bitartekoak jarriko dituzte herritarrek, herritarren elkarrekin eta, halakorik izanez gero, lege honen arabera eratutako plataforma, foro eta sare guztiek informazioa eskuratu berdin-berdin dezaketela bermatzeko.

8.- Gainera, bermatuko da tokiko administrazioen dokumentu eta bestelako euskarrietan ez dela hizkuntzaren erabilera sexistarik egiten, ez zuzenean sortutakoetan ez hirugarren pertsona edo erakunde batzuen bidez sortutakoetan.

#### **49. artikulua.- Publizitate aktiboaren izaera.**

Titulu honetan jasotako gardentasun-betebeharrak, lege honetan aurreikusitako salbuespenak salbu, gutxieneko arautzat hartuko dira. Toki-erakundeen esku dago horiek hobetzea, bai araugintzarako ahal propioak baliatuz –beren gobernu-organoen erabaki bidez– eta bai lege honetan ezarritakoa betetzerakoan gardentasun-estandar zorrotzagoak sartuz.

#### **50. artikulua.- Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa.**

1.- Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Toki-erakundeko organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honakoak adierazita: titularrak (osaera) eta eginkizunak. Era berean, publiko egingo dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
- b) Erakundean eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
- c) Publiko egingo dira gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana, halakorik izanez gero.
- d) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
- e) Erakunde bakoitzean behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
- f) Toki-ordezkarien ondasun eta jarduerari buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.
- g) Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa.
- h) Toki-erakundeko arlo eta sailen antolamendu-egitura; berariaz aipatu beharko dira zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dutenek zer ibilbide profesional duten.



- i) Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.
- j) Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
- k) Antolamendu-egiturako plan eta programak, eta horien betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira, toki-administrazio eskudunak zehazten duen eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.

2.- Toki-erakundeek beren hautetsiek eta zuzendaritzakoek komunikaziorako zer interakzio modu erabili behar duten erabaki eta argitaratuko dute.

#### **51. artikulua.- Informazio juridiko-normatiboa.**

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Toki-erakundeen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira.
- b) Publikoak izango dira, halaber, udal-organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- c) Aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
- d) Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.
- e) Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

#### **52. artikulua.- Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.**

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
- b) Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatzeko prozesuak.
- c) Eskaintzen den zerbitzu bakoitzari buruz ordutegia eta ordaindu beharreko prezio

publikoak edo udal-tasak zehaztu beharko dira.

d) Gainera, honako zerbitzu-zorro hauei buruz informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:

1. Mantentze-lanak eta obrak.
2. Segurtasun publikoa eta babes zibila.
3. Hondakinen bilketa eta tratamendua.
4. Uraren kudeaketa.
5. Kale-garbiketa.
6. Ekonomia-jarduerak eta lizentziak.
7. Hirigintza eta ingurumena.
8. Kultura eta kirolak.
9. Gizarte-zerbitzuak.
10. Emakumeen eta gizonen berdintasuna.

### **53. artikulua.- Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.**

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxienezko betebeharrak honakoak dira:

- a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaitileen kopurua, esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak. Kontratuetan atzera egin eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.
- b) Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
- c) Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko ehunekoa hartzen duten adierazten duten estatistika-datuak argitaratu egingo dira.
- d) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
- e) Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek

adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak (esleipendunak, esleipen-prozedura eta esleipenaren zenbatekoa adierazita).

f) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.

#### **54. artikulua.- Toki-erakundearen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.**

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxienezko betebeharrak honakoak dira:

- a) Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.
- b) Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.
- c) Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatu beharko delarik zer ordu-kreditu duten eta erakunde bakoitzari pertsona horiek eragiten dizkieten zuzeneko kostuak.
- d) Lanpostuen zerrendek antolamendu-tresna horren elementu adierazgarrienak laburtuko dituen taula sinoptiko bat jaso beharko dute.
- e) Bateragarritasun-adierazpenen arloan eskumena duen organoaren ebazpenak.

#### **55. artikulua.- Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa.**

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxienezko betebeharrak honakoak dira:

- a) Toki-erakundearen aurrekontuak oso-osorik, modu sinple, argi eta grafiko batean argitaratuko dira, partida nagusiak eta aurrekontuen betetze-maila eta ekitaldian zehar onartutako aurrekontu-aldaketak zertan diren jakiteko behar den informazioa adierazita.
- b) Argitaratu beharreko urteko kontuak eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
- c) Aurrekontu egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
- d) Diru-sarrera eta gastuei buruzko oinarriko informazioa.
- e) Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.

- f) Beren jabetzakoak diren ondasun higiezin zerrenda, bai eta beste batzuen ere, beren jabetzakoak izan ez arren haien gaineko eskubide errealeen bat badute. Eta lagapenik egin bada, zein erakunderi laga zaizkion.
- g) Kontzeptu guztiak hartuta toki-erakundeko ordezkari politikoek eta zuzendaritzako langileek jasotzen dituzten ordainsariak eta kargua edo eginkizuna utzi ostean jasotzen dituzten kalte-ordainak –halakorik izanez gero–.

#### **56. artikulua.- Informazioaren berrerabilpena.**

1.- Toki-erakundeek informazio publikoa berrerabil dadin bultzatuko dute, sektore publikoko informazio berrerabiltzearen inguruko oinarrizko legeriarekin bat, herritarrek toki-erakundeen esku dauden eta nahi erara erabiltzeko diren datuak zilegi diren helburuekin baliatu ahal izan ditzaten.

2.- Berrerabilpena da toki-erakundeen esku dauden datuak eta informazioa herritarrek erabiltzea helburu komertzial edo ez-komertzialekin, betiere erabilera hori administrazio publikoaren jardura bat ez bada eta arlo horretan aplikatu beharreko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik burutzen bada.

3.- Berrerabilpenak helburu izango ditu, halaber, sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen arloko oinarrizko legerian ezartzen direnak.

4.- Sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen arloko oinarrizko legeriak eta EAEko legeriak informazio publikoa berrerabiltzeko baldintzak ezarriko dituzte. Edonola ere, zehaztutako kasuetan izan ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek datuak nahi erara berrerabiltzea bultzatuko dute, aurrez eskaerarik egin beharrik izan gabe, eta berrerabilpen hori inolako baimenak eskuratzearen mende utzi gabe.

#### **57. artikulua.- Gardentasunaren ataria eta kanal anitzeko sistema.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek gardentasunaren atari bat sortu ahal izango dute beren egoitza elektronikoetan edo erakunde-webgunetan, herritarrek eta erakundeek titulu honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ondorioz publikoa den informazio oro eta toki-erakundeak eman nahi duen informazio guztia eskuratzeko.

2.- 20.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakundeek derrigor izan beharko dute gardentasun-atari bat.

3.- Toki-erakundearen beraren erregelamendu bidez gainera, informazioa herritarren artean zabaltzea eta herritarren partaidetza bultzatuko duten kanal anitzeko sistemak paratu ahal izango dira.

### III. KAPITULUA.- INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEARI ETA ERREKLAMAZIO-ORGANOARI BURUZKO PRINTZPIOAK.

#### 58. artikulua.- Informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioak.

1.- Pertsona fisikoek, pertsona juridikoek, erakundeek eta lege honetan ezarritakoaren arabera eratutako plataforma eta sareek eskubidea izango dute –arrazoitu beharrik gabeko eskabide bat aurkeztuta– informazio publikoa eskuratzeko, eta eskubide hori gauzatuko da arlo hau arautzen duen gardentasunaren oinarritzko legerian ezarritako eran eta lege honetan eta kasuan kasuko udal-erregelamenduetan aurreikusitakoarekin bat.

2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, gardentasunaren oinarritzko legeriak ezartzen dituen mugak era murriztailean interpretatuko dira, eta, betiere, lehendabizi ondo ebaluatu beharko dira, alde batetik, aipatzen diren interes publiko eta pribatuari eragindako ustezko kalteak, eta, bestetik, eskatutako informazioa zenbateraino den garrantzitsua edo adierazgarria, eta zenbateraino den beharrezkoa, objetiboki, gobernuaren ekintzaren kontrol demokratikoa egiteko.

3.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea –toki-botere publikoen eta erakunde horien arduradun publikoen kontu-ematearen kontrol demokratikorako beharrezko den aldetik– antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarritutako prozeduren bidez baliatuko da; eta, edonola ere, eskubide hori berariaz ukatzen denean –gardentasunaren oinarritzko legerian aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioz edo datuak babesaren inguruko legeriaren arabera datu pertsonalei zuzenean eragiten dielako–, orduan, arrazoibideak oinarri sendoagoak izan beharko ditu.

4.- Eskuratu nahi den informazio publikoan datu pertsonalak agertzen badira, informazio publikoa eskuratzeari inguruko araudia aplikatuko da, salbu eta datu pertsonal guztiak





informazioa eskatu duenari buruzkoak badira. Informazioa eskuratzea onartzen bada, informazioa oso-osorik eskuratu ahal izango da.

5.- Bereziki babestutako datu pertsonalak eskuratu nahi direnean, datuak babesteko legerian aurreikusitakoari men egingo zaio.

6.- Informazio-eskaera organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzkoa denean, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari emango zaio lehentasuna.

7.- Gainerako kasuetan, eskatutako informazioan bereziki babestu beharreko daturik agertzen ez denean, informazioa inoren esku jarri aurretik, haztatu egingo dira –behar bezala arrazoituta– informazio publiko hori zabaltzeak duen interes publikoa eta ukitutako pertsonen eskubideak, batez ere datu pertsonalak babesteko duten funtsezko eskubidearen ingurukoak. Haztapenerako, gardentasunaren oinarritzko legerian ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

8.- Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta toki-erakundeak datu pertsonalak disoziatzen baditu, aurretik, eta ezinezkoa gertatzen bada ukitutako pertsonak zein diren identifikatzea.

9.- Publizitate aktiboaren printzipioari jarraiki informazioa dagoeneko eskatzailearen eskura dagonean, horren berri eman ahal izango zaio eskatzaileari, eta informaziora zein bidetatik irits daitekeen adierazi.

10.- Informaziorako irispidea doakoa da. Nolanahi ere, posible izango da tasak jartzea, toki-ogasunei buruzko foru-araudiaren arabera, kopiak egiten direnerako edo informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera aldatzen denerako.

11.- Eskatutako informazioak, berez eskatu den edukiaz aparte, legerian jasotako salbuespenetakoren batean sartzen den informazioa ere jasotzen badu, bereizi egin beharko da, eta irisgarritzat jotzen den informazioa soilik eman.

12.- Bukatuta dauden espedienteak irispide libreko informazio publikotzat joko dira: edozein herritarrek eskuratu ahal izango ditu, interesdun izan beharrik gabe.

**59. artikulua.- Gardentasunaren kontrolaren arloan eskumena duen organoaren aurreko**

### **erreklamazioak.**

1.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo isilbidez ukatzearen ondorioz administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu aurreko erreklamazioak Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen kontseilu edo agintaritza independenteak edo kasuan kasuko legerian aurreikusten den organoren batek aztertu eta ebatziko ditu.

2.- Organo horrek organoa bera sortzeko araudiak toki-erakundeekiko esleitzen dizkion eginkizunak izango ditu, eta, bereziki, publizitate aktiboarekin, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin eta gobernu onarekin lotutako guztiak.

## **IV. KAPITULUA.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA.**

### *Lehenengo atala: Xedapen orokorrak.*

#### **60. artikulua.- Xedea.**

1.- Kapitulu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen gobernu- eta administrazio-eginkizunak betetzeak berekin dakartzan arauak eta plangintza- eta erabakitze-tresnak egiteko prozesuan pertsonak eta elkarteek benetan parte-hartuko dutela bermatzeko baldintzak arautzea.

2.- Herritarrek bakarka edo taldeka hartu ahal izango dute parte, lege honetan aurreikusten diren eta, kasuaren arabera, udal-ordenantza eta -erregelamenduetan ezartzen diren tresna eta bideei jarraituz.

#### **61. artikulua.- Herritarren parte-hartzea eta tokiko autoantolaketarako ahala.**

Herritarrek parte hartzeko moduak, prozedura eta organoak lege honetan ezarritakoaren arabera aukeratuko dituzte udalerriek, beren araugintza-ahal propioaren eta beren autoantolaketarako ahalen bitartez; eta horrela bultzatuko dute herritarrek politika publikoetan eta tokiko bizitza publikoko gaietan berdintasun-baldintzetan parte hartzea eta parte-hartze hori eraginkorra eta benetakoa izatea. Parte hartzeko modu horiek ez dute inolaz ere gutxituko toki-araubidearen oinarriko legerian eta lege honetan araututako ordezkartza- eta gobernu-

organoen erabakitzeko ahalmena.

## **62. artikulua.- Herritarren parte-hartzearen helburua, eta parte hartzeko eskubidea baliatzea.**

1.- Kapitulu honetan herritarren parte-hartzea arautzen da, eta helburu nagusia du arau-esparru bat ezarri, eta, hartara, bideak eskaintzea herritarrek modu aktibo eta errealean sar daitezten politika publikoak identifikatu, bultzatu, gauzatu eta ebaluatzeko lanean zuzentasuna, egokitasuna eta eraginkortasuna hobetzeko prozesuetan; arau eta planak egiteko prozesuetan, eta, orobat, administrazio-prozeduretan eta tokiko gobernu-organoen erabakietan.

2.- Kapitulu honetan jasotako aurreikuspenek, lege-esparru gisa, partaidetzako prozesuren baterako deialdia egiten duten kasuetan edo lege honetan aurreikusitako beste kasuetan bakarrik behartzen ditu udalak eta haien erakunde instrumentalak.

3.- Edonola ere, erakundeek edo herritarren plataforma, foro edo sareek partaidetzarako proposamenen bat bultzatzen badute eta toki-erakundeek hori aurrera ez eramatea erabakitzen badute, horretarako arrazoiak azaldu beharko dituzte, lege honetan ezarritako eran.

4.- Partaidetzako prozesuetan honako pertsona, erakunde edo taldeek hartu ahal izango dute parte, lege honetan ezarritako eran:

- a) Kasuan kasuko udalerrian erroldaturik dauden pertsonak, salbu eta legeak, izaera politikoz, euskal herritar izatea exijitzen badu eta, beraz, hautesle-eroldan inskribatuta egotea.
- b) Udalerrian bizi diren pertsonak, nahiz eta aldi baterako izan, lege honetan adierazten den eran.
- c) 18 urte baino gutxiagoko eta 16 urte baino gehiagoko pertsonak lege honetan ezarritako eran soil-soilik.
- d) Herritarren partaidetzako erakundeen erregistroan gobernu-maila bakoitzean inskribaturik dauden eta irabazi-asmorik ez duten erakunde, elkarte, gizarte-antolakunde edo taldeak.
- e) Sindikatuek, enpresa-elkarteek, elkargo profesionalek, zuzenbide publikoko korporazioek edo legeak berariaz onartutako beste edozein erakunde-motak.
- f) Herritarren plataforma, foro edo sareek, egoera jakin baterako sortu direlako nortasun juridikorik ez badute eta, betiere, lege honetan jasotako eskakizunak betetzen

badituzte. Herritarren plataforma, foro edo sare horiek birtualak ere izan ahalko dira.

5.- Lege honetan ezarritakoa gorabehera, udal-erregelamendu, -ordenantza edo -erabakiek herritarren parte-hartzea gauzatzeko modalitateak zehaztuko dituzte.

6.- Partaidetzako prozesuetan ahalegina egingo da gizon eta emakumeen parte-hartzea orekatua izan dadin eta aztergai diren kontuetan genero-ikuspegia txerta dadin.

7.- Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, toki-erakunde bakoitzeko Herritarren Partaidetzako Erakundeen Erregistroan inskribatutakoak hartuko dira herritarren erakundetzat. Erregistro horietan inskribatuta ez egoteak ez die irauteko asmorik gabe sortutako herritarren plataforma, foro edo sareei toki-erakundeen partaidetzako prozesuetan parte hartzea galaraziko, baldin eta haien helburua bada errealitate sozialaren alderdi jakin bat lantzea eta politika zehatz bat aplikatu edo martxan jartzen parte hartu edo laguntzea. Parte-hartze hori lege honetan eta hura garatzeko udal-ordenantza, -erregelamendu eta -erabakietan ezarritako eran gauzatzeko da.

***Bigarren atala: Partaidetzako prozesuak.***

### **63. artikulua.- Parte-hartzea gauzatzeko informazioa.**

1.- Arau orokor gisa, kapitulu honetan ezarritako aurreikuspenen arabera, toki-erakundeek eta haien erakunde instrumentalek beren jardun-arlo edo eremuetako edozeinetan izapidetzen diren erabaki-prozedurei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea bermatuko diete partaidetzako prozesu batean parte hartzen duten biztanle eta herritar-erakunde guztiei.

2.- Herritarren parte-hartzea errazteko, hain juxtu, toki-erakundeek eta haien erakunde instrumentalek, beren jardun-arlo edo eremu bakoitzaren bitartez, publiko egingo dute izapidetzea dagozkien erabakitze-prozesuei buruzko informazioa. Horretarako, herritarren eta herritar-erakundeen eskura jarriko dira edonolako partaidetzako prozesutan jorratzen ari diren gai guztiei buruz iritzi politiko oinarritu bat osatzeko eta zertan diren jakin ahal izateko behar diren datuak eta informazioa.

3.- Partaidetzako prozesuren baterako deialdia egitea erabakiz gero, Euskal Autonomia

Erkidegoko toki-erakundeek beren esku dauden neurriak hartuko dituzte desabantaila-egoeran dauden pertsona edo kolektiboek, baldintza txarretan edo egoera bereziki larrian daudenek, informazioa eskuratu dezaketela bermatzeko. Zehatz esanda, herritar guztiek informazioa bitarteko telematikoen bidez eskuratu ahal izatea bermatuko dute, behar den euskarri eta laguntza teknikoaren bidez, betiere, dauzkaten giza baliabideen eta baliabide materialen eta teknikoaren arabera.

4.- Informazioan datu pertsonalak ere agertzen direnean, men egingo zaio datuak babesteko legeriak horretarako aurreikusten duenari. Edonola ere, datu pertsonalak kentzea ezinezkoa denean, disoziatu egingo dira, informazioa argitaratu aurretik.

#### **64. artikulua.- Partaidetzazko deliberazio-prozesuak. Kontzeptua.**

1.- Partaidetzazko deliberazio-prozesuen xedea da toki-erakundeak modu aktiboan entzutea eta erabakitze-prozesu baten barruan edo politika publiko bat formulatu eta erabakitze esparruaren barruan gauzatutako eztabaida publikoan agertu diren argumentu eta arrazoiak erkatzea.

2.- Lege honetan araututako partaidetzazko deliberazio-prozesuak hainbat unetan egin daitezke: identifikatzeko unean; tokiko politika publikoak diseinatu, egin edo garatzeko prozesuan, edota eragin edo garrantzi berezia duten edo izan dezaketen erabakitze-prozesuen barruan. Orobat, prozesu horietara jo ahal izango da aipatutako politika publiko edo erabaki horiek burutzeko fasean eta halakoak ebaluatu edo arakatzekoan.

#### **65. artikulua.- Partaidetzazko deliberaziorako erabakiak.**

1.- Partaidetzazko deliberazio-prozesuak kasuan kasuko arau-proposamen, politika publiko, edo eztabaidatu edo hausnartu nahi den gai zehatzaren arabeko forma eta ezaugarriak izango ditu, genero-ikuspegia ere kontuan izanda. Elementu horiek zehaztu baino lehen, galdeketa egin ahal izango zaie herritarren erakundeei, halakorik bada, edo, gutxienez, deliberazio-prozesua sustatu duten pertsona edo erakundeei.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako, prozesu bakoitzerako partaidetzazko deliberaziorako erabakia onartu beharko du udalerrriak. Erabaki horretan, alderdi hauek zehaztuko ditu:

- a) Deliberazio-prozesuaren mota eta izaera.
- b) Deliberazioaren gaia.
- c) Gehieneko parte-hartzaile kopurua.
- d) Parte-hartzaileen kondizioa (norbanako gisa, edo erakunde, plataforma, foro edo sareren baten ordezkari gisa jarduten duten) eta hautaketarako irizpideak.
- e) Prozesuaren gehieneko iraupena.
- f) Ondorioak ateratzeko formatua.
- g) Kasuan kasuko gobernu-mailen izenean prozesua zuzentzeko ardura izango duten pertsonak.
- h) Toki-erakundeari erabakian aipatu beharrekoa dela iruditzen zaion beste edozer.

3.- Prozesu bakoitzean zer erakundek parte hartuko duen erakunde eskudunak erabakiko du, partaidetzako deliberaziorako erabakian aurreikusitakoaren arabera eta lege honetan eta hura garatzen duten ordenantza, erregelamendu edo erabakietan ezarritakoarekin bat.

4.- Deliberazio-prozesuan politika publikoaren gaien adituak diren pertsonak parte hartu ahal izango dute, eta, azaleratu diren sentsibilitate eta irizpideen arabera, iritzi guztiak aldezteko adituak aukeratuko dira. Era berean, aditu bat baino gehiago badago hautaketa-prozesuan, ahalegina egingo da gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin.

5.- Edonola ere, sektoreko legeriak edo tokiko araudiak esparru material zehatzetan ezarritako organo, tresna, prozedura, edo partaidetzako prozesurako kanalak kontuan izan beharko dira partaidetzako deliberaziorako erabaki bat egin beharra eskatzen duten herritarren partaidetzako prozesu guzti-guztietan.

#### **66. artikulua.- Partaidetzako prozesuaren ekimena eta garapena. Prozesuaren eraginkortasuna.**

1.- Partaidetzako prozesuen ekimena eta garapena tokiko araugintzarako ahalaren edo osoko bilkuraren erabakiaren bidez eta lege honetan ezarritakoarekin bat arautuko dira.

2.- Prozesu horietan, udal-erabaki guztiek arrazoituak behar dute izan, batez ere toki-erakundeak partaidetzako deliberazio-prozesuaren ondorioetatik aldentzea erabakitzen duen kasuetan.

*Hirugarren atala: Toki-erakundeen arau-mailako xedapenak egiteko prozesuetan parte hartzea.*

**67. artikulua.- Ordenantzak eta erregelamenduak abiarazi, egin eta onartzeko ekimena.**

1.- Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, eta plataforma eta sareek, udal-gobernuak bideragarri diren baloratu dezan, erabakiak, ordenantzak eta toki-erregelamenduak egitea abiarazteko ekimena baliatu ahal izango dute.

2.- Tokiko gobernu-batzarrak edo –halako organorik ez duten udalerrietan– alkateak baloratuko ditu proposamenak; aginte-planarekin bateragarria den aztertu, eta, horren arabera, bidezko deritzona erabakiko du. Ekimena abiaraztea edo izapidetzea ukatuko bada, arrazoitu egin beharko da, eta hura sustatu duten pertsona edo erakundeei, banan-banan jakinarazi.

3.- Aurreko paragrafoetako arauak egiteko aurreikusitako ekimenak osoko bilkuran eztabaidatu beharko dira; eta, ezinbestekoa izango da legezketasunari buruzko txostena, gaiaren arabera idazkaritzak edo kontu-hartzailetzak eman beharko duena.

4.- Herritarrek herri-ekimena ere baliatu ahal izango dute, erabaki-, ordenantza- edo erregelamendu-proiektuak aurkezteko. Mota horretako ekimenak baliatzeko gutxieneko sinadura kopuru bat beharko da: udalerrian 5.000 biztanle baino gehiago bizi badira, biztanleen % 10en sinadura beharko da; 5.000 edo gutxiago bizi badira, orduan, % 20ena; eta bi kasuetan sinadura gutxiagorekin nahikoa izango da, baldin eta herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzetan edo erregelamenduetan hala ezartzen bada.

**68. artikulua.- Herritarren parte-hartzea, udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak erabakitzen.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek deliberazio publikorako prozesuak abiarazi ahal izango dituzte, erakundea hurrengo urteko aurrekontuak prestatzen hasi behar denean gastuaren inguruko erabaki edo alderdi puntual batzuk zehazteko.

2.- Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak ez dira deliberazio-prozesuen xede izango.

3.- Aurrekontuen inguruko deliberazio-eremuetan deliberazio-prozesuren bat abiarazteak ez dio eragiten toki-erakundeak aurreikusitako defizit, zor publiko eta gastu-arauaren gaineko



helburuak bete behar izateari, ez eta berankortasunaren inguruko legerian hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari ere.

4.- Tokiko araugintzarako ahalaren bidez edo udal-erabakiaren bidez ezarriko dira partaidetzako prozesu mota horren forma, prozedura eta edukia.

*Laugarren atala: Herritarren partaidetzarako tresnak.*

#### **69. artikulua.- Herri-galdeketak.**

1.- Toki-araubidearen oinarritzko legeriarekin bat, alkateek, osoko bilkurak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzi handia daukaten gaietarako buruzko iritzia galde diezaiokete herriari, baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta toki-administrazioaren ingurukoak badira. Tokiko ogasunari dagozkion gaiez, ordea, ezin izango da galdeketa egin. Prozedurak, baldintzak eta bermeak erregelamendu bidez ezarriko dira, lege honetan ezarritakoaren arabera.

2.- Udalerraren araugintzarako ahalaren bidez eta lege honetan aurreikusitakoarekin eta erregelamenduetan ezartzen denarekin bat, galdeketa horiek nola baliatu garatuko da.

3.- Alkateak egingo ditu mota horretako herri-galdeketa-erabakiak, osoko bilkurak hala erabaki ondoren. Osoko bilkuraren erabakiak honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gaiari buruzko xedapenaren testu osoa, galdeketa-gaiaren itauna(k) eta galdeketa noiz egin behar den; galdeketa-deialdia kasuan kasuko lurralde historikoaren boletín ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 eta 60 egunen artean egin beharko da. Udalaren erantzukizuna izango da deialdia tokiko hedabideetan albatz gehien zabaltzea.

4.- Udal-talde politikoen ekimenak gorabehera, lehenengo paragrafoan aipatzen diren herri-galdeketa eskabideak osoko bilkuraren oniritzipean jarri beharko dira, abiapuntua herritarren ekimena izan bada. Udalerrak 5.000 biztanle baino gehiago baditu, gutxienez auzotarren % 10ek sinatu beharko dute ekimena; eta 5.000 biztanle edo gutxiago baditu, auzotarren % 20k.

5.- Salbuespen gisa eta galdeketa-prozesuaren gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzeritarrek eta bozketa hasten denean gutxienez 16 urte duten adin txikikoek ere hartu ahal





izango dute parte. Horrelakoetan, boto-emaleen errolda biztanleen udal-erroldarekin osatuko da, eta toki-erakundeko idazkaritzaren ardura izango da egokitzapen hori egitea.

#### **70. artikulua.- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak.**

1.- Udalerriek, gaiaren edo xede duten lurralde-eremuaren arabera, herritarren zati bati bakarrik bideratutako galdeketa bereziak egin ahal izango dituzte.

2.- Sektoreko galdeketatzat hartzen da arazo jakin bati buruz egiten dena eta herritarren zati bati bakarrik edo udalerriko biztanleen zati bati bakarrik eragiten diona.

3.- Lurralde-eremu bateko galdeketatzat hartzen da udalerraren zati batean bakarrik egiten dena, dela auzo batean, dela toki-erakunde txiki batean, dela udal-barruti batean.

4.- Galdeketa horietarako deialdia egitea alkateari dagokio, behin osoko bilkurak gehiengo osoz onartu ondoren.

5.- Galdeketa horietan, gaiaren arabera, udalerrian erroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte.

6.- Udalerriek –ordenantza, erregelamendu edo, halakorik izan ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez– bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dieten prozedurazko alderdiak ezarri ahal izango dituzte, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere.

7.- Edonola ere, prozesu horietan aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla eta botoa berdintasun-baldintzetan emateko eskubidea zaintzen dela bermatu beharko da. Alkatearen eskumena izango da printzipio horiek guztiz errespetatzen direla zaintzea eta prozesuak behar bezala burutzen direla bermatzeko neurriak hartzea.

8.- Prozesu horietan, ahal dela, sistema elektronikoa erabiliko da bozketarako, baldintzek botoa paperean ematea exijitzen ez badute behintzat.

9.- Toki-erakundeko idazkaritza izango da prozesu horiek taxutzeko organo eskuduna, eta organo horrek emango du ateratako emaitzen fede.

#### **71. artikulua.- Politika publikoei edo garrantzi bereziko erabaki publikoei buruzko toki-mailako**

### **herri-galdeketak.**

- 1.- EAEko toki-erakundeek politika edo erabaki publikoei buruzko toki -mailako herri-galdeketa irekiak egin ahal izango dituzte.
- 2.- Galdeketa horiek bozketa bidez burutuko dira, baina botoa emateko epea 15 egunera artekoa izan ahalko da. Osoko bilkuraren erabaki arrazoituaren bidez erabakiko da egun horiek segidakoak izan behar duten ala ez.
- 3.- Bozketa, ahal dela, prozedura telematiko edo elektronikoen bidez egingo da. Deialdia egiten duten toki-erakundeek erabilgarri dituzten baliabide guztiak jarriko dituzte parte hartzeko eskubidea duen edonork bere ikuspuntua berme guztiekin azal dezan.
- 4.- Galdeketa horietan, gaiaren arabera, udalerrian erroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte.
- 5.- Galdeketa gaia udalerraren eskumeneko politika publiko, erabaki edo kontuetara mugatuko da. Ezin izango da diru-sarrera publikoekiko lotesleak diren alderdiei buruzko galdeketa egin, ez eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari eragiten dionik ere.
- 6.- Ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuetan, jendaurreko informazioaren aldian, horrelako galdeketa egin ahal izango dira, ordenantza fiskalen kasuan izan ezik.
- 7.- Udal-ordenantzek edo -erregelamenduek edo, halakorik izan ezean, osoko bilkuraren erabakiek bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dioten prozedurazko alderdiak ezarriko dituzte, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere.
- 8.- Galdeketa emaitzek ez dute, inolaz ere, izaera loteslerik izango toki-gobernuarentzat. Nolanahi ere, azken erabakia galdeketa irekian ateratako emaitzetatik aldentzen bada, berariaz arrazoitu beharko da zerk eragin duen erabaki hori.

### ***Bosgarren atala: Herritarren partaidetzako erakundeak.***

#### **72. artikulua.- Herritarren partaidetzako erakundeak.**

1.- Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, herritarren partaidetzako erakundetzat hartzen dira interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko helburua duten eta beren jarduera kasuan kasuko toki-erakundearen eremuan garatzen duten irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko guztiak, forma juridikoa eta izaera edozein dutela ere.

2.- Lege honetan jasotako partaidetzako prozesuetan parte hartu ahal izateko, erakunde horiek herritarren partaidetzako erakundeen erregistroan inskribatuta egon beharko dute, edo, bestela, esku-hartze eremuaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren edo foru-aldundien herritarren partaidetzako erakundeen erregistroan. Salbuespen gisa, eta betiere lege honek aurreikusten duenarekin bat, orobat hartu ahal izango dute parte prozesu horietan politika jakin bati erantzuteko eta aldi baterako soilik sortzen diren plataforma, foro edo sareek.

3.- Herritarren partaidetzako erakundeen erregistroetako edozeinetan inskribatuta egoteak (jardun-arloaren arabera, batean edo bestean egongo dira) behar besteko aintzatespena emango die erakunde horiei kasuan kasuko toki-erakundearen aurrean solaskide izateko, lege honetan ezarritako eran eta, kasuaren arabera, partaidetzazko deliberaziorako erabakirik onartzen bada, halakoetan ezarriko den eran.

4.- Herritarren partaidetzako erakundeek zer sektoretan eta lurralde-eremutan jardun nahi duten zehaztu beharko dute, erregistroan inskribatzeko unean.

### **73. artikulua.- Herritarren partaidetzako erakundeen erregistroaren gaineko arauak.**

1.- Toki-erakundeetan herritarren partaidetzako erakundeen erregistroa sortu ahal izango da. Toki-erakundeen erregistroek beren lurralde-eremuan eta erakundearen eskumenetarako bakarrik balioko dute. Edonola ere, posible izango da toki-erakundeen erregistroan egiten diren inskripzioen kopia autonomia erkidegorako edo lurralde historikorako eratzten diren erregistrora edo erregistroetara igortzea.

2.- Herritarren partaidetzako erakunde bat udalaren, foru-aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatuta badago, udalerriko deliberazio-prozesuan parte hartzeko interesa agertu ahal izango du –dagokion toki-erakundeari aurrez hala jakinarazita–, betiere jardun-arloa bat badator eta deialdia egin duen toki-erakundeak egokitzen jotzen badu partaidetzazko deliberaziorako erabakian.



3.- Toki-erakundeen erregistroa, foru-aldundien eta autonomia erkidegoko erregistroak bezala, gai edo sektoreka antolatuko da; eta herritarren partaidetzako erakundeak jardun nahi duten eremuaren edo eremuen arabera bati edo besteari atxikiko zaizkio, izaera orokorreko interesak defendatzeko herritarren partaidetzako erakunde gisa inskribatuta. Era berean, herritarren partaidetzako erakundearen sustatzaileen datuak ere jasoko dira, sexu-aldagaia barne. Gaiaren arabera atxikipen horren xedea da sortzen diren deliberazio-prozesuetan parte-hartzea erraztea.

4.- Helburu jakin batekin eta aldi baterako sortzen diren plataforma, foro eta sareek ez dute erregistroan inskribatu beharrik izango. Nolanahi ere, lege honetan araututako prozesuetan parte hartu nahi badute, aurrez jakinarazi beharko diote toki-erakundeari edo dagokion erregistroari zeintzuk diren sustatzaileak –haien NANA edo nortasun-agiriak aurkeztu beharko dituzte–, jakinarazpenetarako helbidea non duten, eta, zehazki, zer gai edo eremutan jardun nahi duten.

5.- Herritarren partaidetzako erakundeen erregistrorik ez duten toki-erakundeetan, prozesu horiek arautzen dituzten ordenantzetan, erregelamenduetan edo, kasuaren arabera, osoko bilkuraren erabakietan bestelako sistema alternatiboak ere aurreikusi ahal izango dira, partaidetzako prozesuetarako deialdia egiten denean erakunde horien partaidetza bideratzeko.

## **VII. TITULUA.- TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN EUSKAL KONTSEILUA ETA EUSKADIKO TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEA**

### **74. artikulua.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua.**

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzen da udalerrien eta autonomia- eta foru-erakundeen arteko lankidetzaharremanak gauzatzeko helburua izango duen erakunde-instituzio gisa, tokiko gobernu-eremuari eragiten dioten politika publikoak diseinatu, prestatu, burutu eta ebaluatzeko prozesuetan udalerrien interesak aitortu eta aintzat hartuko direla bermatzeko.

2.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eskumena izango da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkien eskumenen gaineko erabakiak hartzea, baldin eta udalerrien eskumen propioen esparru materialari eragiten badiete.



#### **75. artikulua.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren izaera.**

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua da udalerriek Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan ordezkari izateko eta parte hartzeko erakunde-egitura, eta eginkizun nagusia du beste erakundeek toki-autonomia guztiz errespetatzen dutela bermatzea.

2.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua –aurrekontu-ondorioetarako soilik– Eusko Jaurlaritzan toki-araubidearen inguruko eskumenak dituen sailari atxikiko zaio.

3.- Eskumenak baliatzeko, autonomia organikoa eta funtzionala dauka, eta erakundeak berak erabakiko ditu lege honetan jasotako aurreikuspenak garatzeko barruko funtzionamendu-arauak.

#### **76. artikulua.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren osaera.**

1.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzan toki-araubidearen inguruko eskumenak dituen sailburua edo hark izendatzen duen ordezkaria izango du lehendakari.

2.- Kontseiluaren idazkaritzari dagozkion lanak toki-araubidearen arloko eskumenak esleituak dituen sailburuordetzako goi-kargudun batek egingo ditu.

3.- Kontseiluak guztira 18 kide izango ditu: Eusko Jaurlaritzak sei ordezkari izango ditu; foru-aldundiak, bina, eta, udalerriek, berriz, sei. Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak Lehendakariak izendatuko ditu; foru-aldundienak, kasuan kasuko foru-araudiaren arabera izendatuko dira, eta udalerriei dagozkienak, berriz, ezarpen handiena duen euskal udalerrien elkarteak proposatu, eta Lehendakariak izendatuko ditu. Udalerrien ordezkariak alkate edo zinegotzi izan beharko dute, nahitaez. Toki-ordezkariak aukeratzeko lehentasuna emango zaie lurralde-irizpideari, genero-irizpideari eta tamaina desberdinetako udalerrien presentzia zaintzeari.

4.- Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko dira, eta kide izaten jarraituko dute harik eta izendatu zituen erakundeak kargutik kendu arte, edo kargua uzteko legezko kausaren bat edo Kontseiluak berak onartutako funtzionamendu-arauetan aurreikusitako kausaren bat gertatu arte.

5.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak dagozkion eginkizunak aurrera eramateko

behar beste baliabide eta bitarteko izango du, ondo funtzionatuko duela bermatzeko.

## **77. artikulua.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak.**

1.- Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Autonomia-erkidegoak sustatutako planak eta programak egiten parte hartzea, udalerrien eskumen propioei eragiten dietenean. Plan eta programa horiek udalen eskumenetan izan dezaketen eraginari buruzko txostenak egingo dituzte, eta legezkotasun- eta egokitasun-irizpideetan oinarritutako iritzia emateko aukera ere izango dute. Txostenak ez dira lotesleak izango.
- b) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan udalerrien eskumen propioei eragiten dien araugintza bultzatzeko onartutako proposamenak bideratzea, betiere udalerrien eskumenak arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan.
- c) Administrazioen arteko elkarlana sustatzea, eta beste horrenbeste egitea autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta tokiko administrazioen arteko informazio-trukatzearekin.
- d) Udalerrien eskumenei eragiten dieten politika publiko sektorialez eztabaidatzea eta denen artean lantzea, eta dauden gobernu mailetan zer nolako eragina duten ikustea.
- e) Lankidetzarako eta, beharrezkoa bada, koordinaziorako sistemak sustatzea, dauden gobernu mailetakoa politika publikoen kudeaketa integratua izan dadin.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari konstituziokontrakotasun-errekurtsoa aurkez dezan eskatzea, Estatuko lege batek toki-autonomia urratzen duela deritzon.
- g) Lege honen 79. artikuluan aurreikusitako azterlan eta proposamenei buruzko irizpena ematea eta, egoki iritziz gero, onartzea.
- h) Lege honetan eta beste lege batzuetan berariaz agindutakoak.

2.- Erabakiak hartzeko gehiengo soila beharko du Kontseiluak, baina balioko badute, gobernu-maila guztietako ordezkari diren kideek egon behar dute gehiengo horretan.

## **78. artikulua - Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea. Izaera eta osaera.**



1.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea sortzen da, alerta goiztiarreko organo gisa. Batzorde horren helburu nagusia izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ekimenez burutzen diren araugintza-prozesuetan toki-autonomia zaintzea, lege honek edo indarrean dagoen legeriaren gainerakoak udalerriei aitortutako eskumen propioei soil-soilik eragiten dieten kasuetan.

2.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak, organo autonomo eta independentea bada ere, Tokiko Politika Publikoen Kontseiluarekin partekatuko du erregistroa, administrazio-ondorio guztietarako.

3.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen lehendakari izango da ezarpenik handiena duen Euskadiko udalerrien elkartearen lehendakaria, edo hark eskuordetzen duena.

4.- Batzordea osatuko dute Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko kide diren udalordezkariak eta beste hainbeste alkate edo zinegotzik, haiek ere ezarpenik handiena duen Euskadiko udalen elkarteak aukeratutakoak. Batzordeko kideak aukeratzeko prozesuan, lehentasuna emango zaie lurralde-irizpideei; ahalegin berezia egingo da tamaina desberdinetako udalerrien presentzia zaintzeko, eta gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin sustatuko da.

#### **79. artikulua.– Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen eginkizunak.**

1.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen helbururik behinena da toki-autonomia defendatzea, eta, horren barruan, udalerriek autoantolaketarako daukaten gaitasuna aitortzea. Horretarako, eginkizun hauek izango ditu:

- a) Alerta goiztiarreko organo gisa jardutea, haren helburu nagusia baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ekimenez burutzen diren eta udalerrien eskumen propioei eragiten dieten araugintza-prozesuetan toki-autonomia zaintzea, salbu eta lege-mailako arairen batek bestelako prozeduraren bat agintzen dien izaera orokorreko xedapenen kasuan.
- b) Xedapen orokorren aurreproiektuak prestatzen parte hartzea, 81. artikuluan ezarritako eran, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumen-eremuan udalerrien eskumen propioei eragiten dieten araugintza bultzatzeko proposamenak aurkeztea, betiere udalerrien eskumenean gaineko araudian bertan ezarritako eran, lege

honen 77.1.b artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- c) Toki-erakundeetako eta sektore publikoko ordainsariak eta bertaratzei dagozkien sariak osotara hartu eta gehieneko mugak zehazteko azterlanak eta proposamenak egitea; eta zehatzago esanda, toki-erakundeetako kideen, toki-erakundeen nahiz haien sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen –behin-behineko nahiz bestelako– eta Estaturako gaikuntza duen funtzionarioen ordainsari eta bertaratzei buruzkoak. Azterlan eta proposamen horiek Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, irizpena eman, eta, bidezko iritziz gero, onar ditzan. Proposamen horiek lurralde historikoek udalerrien parte-hartzea bideratzeko gaituko dituzten lurralde-organoetara bidaliko dira, edo, bestela, foru-aldundietara.
- d) Azterlanak eta proposamenak egitea, tokiko zerbitzu publikoen egiazko kostua kalkulatzeko irizpideei buruz. Azterlan eta proposamen horiek Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, haien berri izan dezan. Proposamen horiek lurralde historikoek udalerrien parte-hartzea bideratzeko gaituko dituzten lurralde-organoetara bidaliko dira, edo, bestela, foru-aldundietara, lege honen 88. artikuluan aurreikusitako gomendioak egin ahal izan ditzaten.
- e) Azterlanak eta proposamenak egitea, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian eta aplikatu beharreko gainerakoetan ezarritako plan ekonomiko-finantzarioak formulatzeko behar diren arauetara buruz. Azterlan eta proposamen horiek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari aurkeztuko dizkio, lege honen IX. tituluan jasotako ondorioetarako.

2.- Eginkizun hauei buruzko erabaki guztiak gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

**80. artikulua.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen funtzionamendua, alerta goiztiarreko organo gisa jarduten duenean.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak udal-eskumen propioei soilik eragiten dien lege edo legegintzako dekretu baten aurreproiektuari ekitea erabakitzen duenean, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak nahitaezko txostena egin beharko du, eta ondorio gisa adierazi beharko du ea toki-autonomiari lerma edo urraketarik eragiten dion. Gainera, legearen aurreproiektuak eskumen propioak esleitzen badizkie udalerriei, txostenak argi adierazi beharko du esparru material bakoitzari dagozkion ahalmenak edo ahalak egoki esleitu





diren, lege honen 17 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Txosten hori proposamena egin duen organoak berak eskatuko du, eta eskaera jaso eta hamabost eguneko epean egin beharko da. Eskaera bidaltzeko egindako eskaeran txostena presazkoa dela behar bezala arrazoitzen bada, txostena egiteko epea zortzi egunekoa izango da.

2.- Proposatutako arauak toki-autonomian lerma edo urraketarik eragiten badu eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak proposatutako aldaketak araua proposatu duen organoak osoz onartzen baditu, arauaren prozedura izapidetzen jarraitu ahal izango du, kasu bakoitzean ezarritako eran.

3.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari aurkeztutako proposamen guztiak edo batzuk onartzen ez badira, aldebiko batzorde bat elkartzeko deia egingo da. Batzorde hori arau-proposamena egin duen administrazio sustatzaileak eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeko hiru kidek osatuko dute.

4.- Bi ordezkariak ados jartzen ez badira eta lehenengo paragrafoan aurreikusitako txostena egiteko eskatu zenetik hilabete igaro bada, organo sustatzaileak prozedura tramititzen jarraituko du, eta txosten arrazoitu bat egin beharko du Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak planteatutako aldaketa-proposamenak zergatik arbuiatu diren azaltzeko. Txostenean berariaz adierazi beharko du ez diola toki-autonomiari eragiten, edo, hala bada, zenbateraino eragiten dion.

5.- Legeen edo legegintzako dekretuen aurreproiektuen kasuan, proiektu gisa onartutakoan, Legebiltzarrera bidaltzen den testuarekin batera aldaketen arbuioa justifikatzeko txostena eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak egindako bilerako edo bileretako aktak bidali beharko dira.

#### **81. artikulua.- Udalerrien eskumen propioei eragiten dieten xedapen orokorren aurreproiektuak prestatzen parte hartzea.**

1.- Udalerrien eskumen propioei berariaz eragiten dieten xedapen orokorren aurreproiektu edo proiektuek Euskadiko Tokiko Gobernu Batzordearen aurretiazko txostena beharko dute. Ez da aurretiazko txosten hori beharko, ordea, lege-mailako arauen batek bestelako prozeduraren



bat agintzen dien izaera orokorreko xedapenen kasuan.

Txosten hori egiteko hamabost eguneko epea izango dute, eskaera Batzordearen erregistroan jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaera bidaltzeko emandako aginduan txostena presazkoa dela esaten bada, behar bezala arrazoituta, txostena egiteko epea zortzi egunekoa izango da. Txostenaren xedea izango da proiektuan jasotako araua udalerrriaren interesentzat egokia den aztertzea.

2.- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak txostena egin dezan arau-proposamen horiek prozeduraren zein une edo fasetan igorri behar zaizkion kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudia bereziak aginduko du.

3.- Behin arau-xedapenen aurreproiektua edo proiektua erregistratu ondoren, berehala helaraziko zaio Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari, xedapenak euskal toki-erakundeen autonomian izan dezakeen eragina ebalua dezan. Edonola ere, toki-autonomiari eragiten badio, udalerrien eskumen propioetan eragin zuzena duela ulertuko da.

## **82. artikulua.- Udalerrriaren partaidetzazko lurralde-organoak.**

Lurralde historikoetako foru-organoek udalerrien parte-hartzea gauzatzeko lurralde-organoak eratu ahal izango dituzte, lurralde-eremu horren barruan ere udalerrien interesak aitortu eta aintzatetsiko direla bermatzeko, hain zuzen ere, lurralde horretako udalerrien eskumen propioei eragiten dieten edo zenbait politika publikotan erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana gauzatzeko eremu bat planteatzen duten foru-arauak, foru-dekretuak, planak eta programak egiteko prozesuetan. Eginkizun horiek lehendik dauden organoei ere esleitu ahal izango zaizkie.

## **VIII. TITULUA: TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA.**

### **I. KAPITULUA: TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA.**

#### **83. artikulua.- Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.**

1.- Tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko araubide juridikoa eta erak udalerriak berak ezarriko ditu, araugintzarako eta autoantolaketarako ahalak baliatuz, horrek ezertan eragotzi gabe



oinarrizko legerian, lege honetan edo Eusko Legebiltzarraren beste edozeinetan, eta lurralde historikoek onartzen dituzten foru-arauetan aurreikusitakoa.

2.- Tokiko zerbitzu publiko guztiak, ahal dela, udalerriak emango ditu, baina askatasuna izango du zerbitzu horiek emateko modua erabakitzeko.

3.- Udalerriek berek ezinezkoa badute zerbitzuak ematea (dela bideragarritasun arrazoiengatik dela efizientzia eta eraginkortasun arrazoiengatik), ahal dela, udalerriek berek eraturako toki-erakundeek emango dituzte.

4.- Toki-erakundeek zerbitzua ematen hasi aurretik onartu beharko dute zerbitzuaren gaineko araudia; eta, gutxienez, ondorengo kontuak arautu beharko dituzte: zerbitzua eskaintzeko modalitateak, zerbitzuaren egoera, finantzaketa, eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

#### **84. artikulua.- Kudeaketa-erak.**

1.- Tokiko zerbitzu publikoak zuzenean kudeatu ahal izango dira, erakundeak berak eginkizun hori hartuta, edo horretarako sortutako beste erakunde edo elkarte batzuen bidez. Zeharka kudeatzeko aukera ere egongo da, indarrean den legerian eta, batez ere, une bakoitzean aplikatzekoa den kontratuen gaineko legerian aipatzen diren kontratu- edo lankidetzabideak baliatuta.

2.- Zuzeneko kudeaketa ondorengo modalitateetako bategoa izango da:

- a) Toki-erakundeak berak ematea zerbitzua.
- b) Erakunde publiko batek eskaintzea zerbitzua, dela organismo autonomoa dela enpresa-erakunde publikoa.
- c) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa bada.

3.- Enpresa-erakunde publikoen edo titulartasun publikoa duen kapital sozialeko tokiko merkataritza-sozietateen bidezko zuzeneko kudeaketara jo ahal izango da, soilik, justifikazioko memoria baten bidez egiaztatzen denean kudeaketa-era hori jasangarriagoa eta efizienteagoa dela; eta, horretarako, errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari buruzko



irizpideak hartu beharko dira kontuan.

4.- Osoko bilkurak enpresa-erakunde publiko baten bidez edo titulartasun publikoko kapital soziala duen tokiko merkataritza-sozietate baten bidez kudeatzea onartu aurretik, zerbitzuaren kostuari buruzko eta jasotako laguntza teknikoari buruzko txostenak egin beharko dira, eta horien berri eman.

5.- Kudeatzeko era aukeratzekoan, kontuan izan beharko dira ahal publikoak gauzatzen edo tokiko interes orokorrak zaintzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzea dakarten eginkizunak.

#### **85. artikulua.- Erakunde publiko instrumentalak.**

1.- Udalerriek, antolaketarako ahalak baliatuta, erakunde publiko instrumentalak eratu ahal izango dituzte, udal-zerbitzu publikoak emateko edo beste edozein eskumen edo jarduera ekonomiko burutzeko, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

2.- Udalerrri batek plan ekonomiko-finantzario bat onartua badu, ezin izango du erakunde instrumental berririk sortu, ez eta lehendik sortuta dauden beste batzuetan sartu, plana indarrean dagoen artean.

3.- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztu ahal izango du, erabaki bidez, zenbatekoak izango diren aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko desbideraketen gehieneko atalaseak, aurrekontu-egonkortasunari, finantza-jasangarritasunari edo gastu-erregelari dagokionez; baina horrek ez du berekin ekarriko erakunde instrumentalak sortzeko, halakoak sortzen parte hartzeko edo lehendik sortuta daudenetan parte hartzeko debekurik.

4.- Era berean, nahiz eta administrazio nagusiak aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko helburuak bete ez (aurreko paragrafoan aipatzen den Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztutako gehieneko atalaseen arabera), aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak zaintze aldera, foru-aldundiek baimena eman ahal izango dute udalek ondare-ekarpenak egin edo kapital-gehikuntzak formaliza ditzaten, enpresa publikoetan, udalak partaidetutako enpresa-erakunde publikoetan eta jarduera ekonomikoak finantza-desoreka zuzentzeko plan baten arabera burutzen dituzten erakunde instrumentaletan. Edonola ere, udalek, batetik, beteak behar dituzte izan aurreko aurrekontu-ekitaldiko aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak,

eta, bestetik, hornitzaileei ordaintzeko batez beste erabili duten epea, gehienez ere, berankortasunaren gaineko araudian aurreikusitako gehieneko epea gehi hogeita hamar egun izango da.

5.- Toki-erakundeek merkatukoak ez diren jarduerak eta zerbitzuak emateko sozietate interlokalak sortu ahal izango dituzte, edo lehendik sortutakoetan parte hartu, betiere beren eskumenen esparruan eta sortzaile diren erakundeen lurralde-eremuan. Sozietateen kapitala toki-erakundeena izango da, oso-osorik.

#### **86. artikulua.- Tokiko ekimena jarduera ekonomikoak gauzatzekoan.**

1.- Toki-erakundeak, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientearen bidez, ekimen publikoaz baliatu ahal izango dira jarduera ekonomikoak garatzeko, betiere aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburua betetzen dela bermatzen bada.

2.- Jarduera ekonomikoak lehia askeko araubidean garatu ahal izateko, korporazioaren osoko bilkurak oinarrizko legerian ezarritako gehiengoarekin onartutako erabakia behar da.

3.- Toki-erakundeek –neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientearekin– monopolio-araubidea baliatu ahal izango dute Estatuko edo EAeko lege bidez haientzat gordetako funtsezko jarduera edo zerbitzuak emateko. Jarduera edo zerbitzu horiek benetan gauzatzeko, beharrezkoa izango da korporazioaren osoko bilkurak horretarako erabakia onartzea, oinarrizko legerian ezarritako gehiengoarekin, eta, ondoren, EAeko organo eskudunak ere onartzea. Eskabidea aurkezten denetik hiru hilabete igaro badira eta organo horrek erabakirik hartu ez badu, toki-erakundeak jarduera edo zerbitzua monopolio-araubidean eman dezakeela ulertuko da.

4.- Monopolioko jarduerak eta zerbitzuak kudeatzeko modua zuzena edo zeharkakoa izan ahalko da.

5.- Toki-erakundeentzat gordetako zerbitzu publikoak jaso eta erabiltzea herritarrentzat nahitaezkoztat jo ahal izango da ordenantza bidez, segurtasunak, osasungarritasunak edo interes orokorreko bestelako inguruabarrek hala eskatzen dutenean.

#### **87. artikulua.- Nahitaezko gutxieneko zerbitzuen kudeaketa, 20.000 biztanle arteko udalerrietan.**



1.- 20.000 biztanle arteko udalerriek nahitaez emango dituzte toki-araubidearen oinarritzko legerian ezarritako zerbitzuak bai eta autonomia-erkidegoko legeria sektorialaren ondorio direnak ere.

2.- Udalerriek, gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak emateko ardura zuzena beraiei dagokienez, askatasun osoa izango dute zerbitzu horiek nola eman erabakitzeko, lege honen 83. artikulua ezartzen duen bezala.

3.- Foru-aldundiek gutxieneko eta nahitaezko zerbitzu horiek koordinatu ahal izango dituzte. Horretarako, eta, ukitutako udalerrak ados badaude, bidezko iruditzen zaizkien kudeaketarako formulak proposatuko dituzte, zerbitzuak emateko egiazko kostuak eta kalitate-estandarrak optimizatzen ahalegintzeko. Edonola ere, lege honetan aurreikusitakoaren arabera, lehentasuna izango dute gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak kudeatzeko formula partekatuek.

Kudeaketa integratuko proposamen bat burutu nahi izatera, kasuan kasuko foru-aldundiak berriaz arrazoitu beharko du zertan diren kudeaketa-formula partekatuen aldean dituen abantailak. Arrazoi horien argitan, udalerrak erabakiko du adostasuna eman ala ez. Proposatutako formulari ezezkoa ematea erabakiz gero, udalerrak berak kudeatuko du zerbitzua, lege honetan eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arau-esparruan ezarritako eran.

4.- Foru-aldundiek gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuren bat edo guztiak bere gain hartzen dituztenean, koordinaturiko udalerrak zerbitzuaren egiazko kostua ordaindu beharko dute, erabili dutenaren arabera.

Horrelakoetan, zerbitzuen egiazko kostua ezin izango da aldatu, ez bada kasuan kasuko foru-aldundiaren eta koordinaturiko udalerrien arteko harreman-dokumentuan jasotzen diren berrikusketa-klausulen bidez. Horrelakoetan, zerbitzuaren egiazko kostua zehazteko oinarri gisa hartu ziren zehaztapen guzti-guztiak errespetatu beharko dira, eta ezin izango dira aldatu ukituriko udalek adostasuna berriaz adierazi ezean.

#### **88. artikulua.- Tokiko zerbitzu publikoen egiazko kostua.**

1.- Tokiko zerbitzu publikoen egiazko kostua kalkulatzeko irizpideak eta, batez ere, gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuei eragiten dietenak foru-aldundi bakoitzak ezarriko ditu, 82. artikuluan



aurreikusitako lurralde-organoek nor bere lurralde-eremurako prestatzen dituzten gomendioak kontuan izanik eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

2.- Egiazko kostu horiek toki-erakunde bakoitzak kalkulatuko ditu, eta horretarako oinarri gisa hartuko ditu aurreko urteko udal-aurrekontuaren likidazioan, edo, kasuaren arabera, udalerriarekin lotutako edo haren mendeko erakundeek onartutako urteko kontuetan jasotako datuak.

Gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuen egiazko kostua toki-erakundeko organo ekonomiko-finantzarioek kalkulatuko dute, foru-aldundiak kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera. Egiazko kostuaren kontzeptuaren barruan, kontuan izan ahalko dira ematen diren zerbitzu publikoen kalitatea, bai eta udalerraren edo zerbitzuaren ezaugarriak.

3.- Zerbitzuen egiazko kostuak kontuan hartuko ditu tokiko zerbitzu publikoen zuzeneko eta zeharkako kostu errealak, foru-aldundi eskudunak, araugintzarako eginkizunak baliatuz, zehazten duenari jarraituz.

4.- Egiazko kostu horiek dagokion foru-aldundiari bidaliko dizkio toki-erakunde bakoitzak, eta foru-aldundiak, kasuaren arabera argitaratu egingo ditu, egoki iruditzen zaizkion bitartekoak erabiliz.

#### **89. artikulua.- Udal eta toki mailako elkarlanerako sareak.**

1.- Udalerrri eta gainerako toki-erakundeen lurralde arteko elkarlana, autonomia-erkidegoaren mailako, lurralde historiko bateko edo gehiagotako eremuko, edo aipatu berri diren horiek baino eremu txikiagoetako beste sare batzuen bitartez gauzatu ahal izango da, aplikatu beharrekoa den araudiarekin bat.

2.- Lankidetzaz-sareak toki-erakundeen edo, hala dagokionean, toki-erakundeen zati diren erakunde pribatuen arteko hitzarmen bidez sortu eta formalizatuko dira. Euskal udalerrrien elkarteek edo bestelako toki-erakundeen elkarteek tokiko lankidetzaz-sareak sortzea sustatu ahal izango dute, eta horietan sartzeko aukera izango dute, artikulua honen hurrengo paragrafoan esaten den moduan.

3.- Lurraldeko lankidetzarako sareek nortasun juridikoa duten erakundeak sortzeko aukera



izango dute, beren helburuak betetzeko. Erakunde instrumental horiek ezin izango dute, beren aldetik, mendean izango dituzten nortasun juridikoko beste erakunde batzuk sortu.

4.- Autonomia-erkidegoaren mailako edo lurralde historiko bat baino gehiagotako udalerrien edo toki-erakundeen sareak pertsona juridiko publiko nahiz pribatuek osatu ahal izango dituzte, betiere haien helburua bada udal-eskumenak balia daitezen bermatzea eta udal-zerbitzu publikoen kudeaketa partekatua burutzea, eta herritarren interesen alde egiten badute.

5.- Lurraldeko lankidetzarako sareek, hitzarmen bidez formalizatu ondoren, lege honetan aurreikusitako toki-erakundeen erregistroan inskribatuko dira.

#### **90. artikulua.- Lankidetzeta-hitzarmenak.**

1.- Udalerriek lankidetzeta-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeke.

2.- Lankidetzeta-hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

3.- Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea.

## **II. KAPITULUA.- TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO BITARTEKO ERAKUNDEAK.**

### **91. artikulua.- Bitarteko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzea.**



1.- Udalerriek elkarte-oinarridun bitarteko erakundeak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dituzte, udal-zerbitzu publikoak batera edo modu partekatuan eman ahal izateko.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako bitarteko erakundeen arau-esparrua izango da toki-araubidearen oinarrizko legerian, kasuan kasuko foru-arauetan edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoa.

3.- Era berean, lurralde historikoetako foru-organoek aukera izango dute, beren lurraldearen barruan, hainbat udalerrri hartuko dituzten udalerrria baino eremu handiagoko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko, toki-araubidearen oinarrizko legerian, kasuan kasuko foru-araudian edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

#### **92. artikulua.- Elkarte-oinarridun tokiko erakundeak.**

Lurralde historiko bakar batekoak diren udal-mankomunitateek eta toki-erakundeen bestelako elkarte-formulek, lege honetan agindutakoa gorabehera, toki-araubidearen oinarrizko legeria eta dagokien lurralde historikoko foru-organoen legeria izango dituzte arau, baldin eta haien helburu nagusia bada zenbait obra eta zerbitzu edota lege honek propiotzat aitortutako beste edozein toki-eskumen edo eskumen horrekin lotutako zerbitzuren bat elkarrekin ematea.

#### **93. artikulua.- Lurralde historiko batekoak baino gehiagotakoak diren udalerrien mankomunitateak.**

1.- Lurralde historiko bat baino gehiagotakoak diren udalerrien mankomunitateek artikulua hau eta aplikatzekoak dituzten lege honetako beste xedapenak izango dituzte arau.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako udalerrri-mankomunitateak formula egokia izan daitezke nahitaezko gutxieneko zerbitzuak eta udal-eskumenekoak diren gainerako zerbitzu publikoak kudeatzeko, beharrezkoa jotzen denean udalerrriaren aldetik zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate-estandarrak hobetuko dituen erakunde-mailako konponbide bat eskaintzea, lege honetan aurreikusitakoaren eta dagokion foru-araudian zehaztuko denaren arabera. Mankomunitateek gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan eskaintzen dituztenean, elkartzeko erabakiak foru-aldundi eskudunei helarazi beharko zaizkie, lege honetan aurreikusitako ondorioetarako Nolanahi ere, mankomunitate-eraketa oro lege honen 11. artikuluan aurreikusitako erregistroan inskribatu beharko da.

3.- Mankomunitate batean bildu nahi duten udalerrietako udalek osoko bilkurako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko dute erabakia hartzeko.

4.- Mankomunitatearen estatutuak sustatzaile izan diren udalerrri guztietako alkate eta zinegotziek onartuko dituzte, batzarrean bilduta, gehiengo osoz, foru-aldundien txostena jaso ostean. Hori egin ondoren, mankomunitatea osatzen duten udal bakoitzeko osoko bilkurak onartu beharko ditu estatutuak, aurreko paragrafoan aipatutako gehiengo berberarekin.

5.- Estatutuetan, gutxienez ondorengo puntuak jaso beharko dira:

- a) Mankomunitatearen izena, egoitza eta osatzen duten udalerrien zerrenda.
- b) Zein helburu eta eskumen dituen.
- c) Gobernu- eta administrazio-organoak zein diren, nortzuk osatzen dituzten, eta bertako kideak nola izendatu eta kenduko dituzten kargutik.
- d) Gobernu-organoen funtzionamendurako arauak, bai eta administrazioaren kudeaketakoak eta gerentziakoak ere, halakorik balego.
- e) Mankomunitatea osatzen duten udalerrien ekarpenak, eta erakundeak izango dituen gainerako baliabide ekonomikoak.
- f) Mankomunitateak izango duen iraupena.
- g) Estatutuak aldatzeko prozedura, lege honetan ezarritakoaren arabera.
- h) Udalerrriak mankomunitatean sartzeko eta bertatik irteteko prozedura, eta, mankomunitatearen helburuetako bat edo batzuk betetzeko, udalerrri horiek elkarrekin sortzeko duten aukera.
- i) Mankomunitatea ezabatzeko kausak eta prozedura, eta likidazioari buruzko arauak.
- j) Udalerriei aplikatu beharreko kalte-ordainen araubidea, mankomunitatearekin dituzten betebeharrak bete ezean.
- k) Mankomunitatetik irteten diren udalerriek erabiltzeko lagatako ondasunik badute, ondasun horiek aurrerantzean izango duten araubide juridikoari buruzko aurreikuspenak.
- l) Ahalak, hala dagokionean, jabetza kentzeko ahala barne.

6.- Mankomunitateek toki-araubidearen oinarritzko legeriak udalerriei esleitzen dizkien ahal berberak izango dituzte, betiere bakoitzak bere estatutuetan hala jaso badu. Halakorik jaso



ezean, indarrean dagoen araudiak aitortzen dizkieten eta beren helburuak betetzeko behar dituzten ahal guztiak baliatu ahal izango dituzte, ahal bakoitzari aplikatu beharreko legeriaren arabera.

7.- Mankomunitateek jabetza kentzeko ahala beren gain hartu ez duten kasuetan, ahal hori okupatu beharreko ondasunak dauden lekuko udalak izango du, beti mankomunitateak eskatuta eta haren mesederako; ondasun horiek lurralde historiko bereko udalerrri bat baino gehiagotan badaude, foru-aldundiak izango du ahal hori; eta autonomia-erkidegoko administrazioak, lurralde historiko bateko baino gehiagotako udalerrietan badaude.

8.- Mankomunitateko gobernu-organoak zein diren, zein eginkizun izango duten eta zer funtzionamendu-araubide jarraituko duen zehazteko orduan toki-erakundeen autonomia errespetatu behar bada ere, mankomunitatearen estatutuek bermatuko dute ordezkari-organok, duen osaeragatik, kontrol-lana egin ahal izatea eta ziurtatzea udalerrri guztietako hautetsiak benetan egotea, baina udalerrri batek ere gehiengo osoa izateko aukerarik izan gabe. Udalerrrien ordezkari-organoko ordezkariak udalerrri bakoitzak izendatuko ditu, azken udal-hauteskundeetan lortutako emaitzekiko modu proportzionalean.

9.- Autonomia-erkidegoko udalerriek, toki-araubidearen oinarritzko legeriarekin bat, beste autonomia-erkidego batzuetakoak diren udalerriekin mankomunitateetan biltzeko aukera izango dute, lege honetan ezartzen den moduan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidegoko edo erkidegoetako legerian erabakitakoarekin bat etorrira.

Horrelakoetan, artikuluko honen 4. paragrafoan aurreikusitako aurretiazko txostenaren ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren toki-araubidearen arloko organo eskudunak egindako txostena beharko da.

10.- Artikulu honetan araututako mankomunitateak desegiteko espedienteak, toki-araubidearen oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat, mankomunitatearen estatutuak onartzeko eskatzen diren arau berberak bete beharko dituzte

#### **94. artikulua.- Partzuergoak.**

1.- Udalerriek eta gainerako toki-erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, tokiko zerbitzu publikoak emateko lanean lankidetzan

ekonomiko, tekniko eta administratiboaren inguruan guztien intereseko helburuak lortzeko. Beste administrazio publiko batzuek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ere izango dute horrelako partzuergoetan parte hartzeko aukera, baldin eta partzuergoak osatzen dituzten administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoak badituzte.

2.- Partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletako bat, beharrezkoa jotzen denean udalerraren aldetik zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate-estandarrak hobetuko dituen erakunde-mailako konponbide bat eskaintzea, lege honetan aurreikusitakoaren eta dagokion foru-araudian zehaztuko denaren arabera.

Era berean, partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletako bat, foru-aldundia, lege honetan aurreikusitakoaren eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera, koordinazio-ahalmenak baliatu beharrean gertatzen denean.

3.- Partzuergoek, beren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako, zuzeneko kudeaketa edo zeharkako kudeaketa baliatu ahal izango dute, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan aurreikusitako eren bidez. Murrizketa hori ez zaie aplikatuko, ordea, lehendik sortuta dauden partzuergoei, baldin eta superabit- edo oreka-egoeran badaude edo ustiaketa-emaizta positiboak badituzte.

4.- Edozein partzuergo eratzen dela ere, lehenengo, eraketan parte hartzen duen toki-erakundearen efizientzia ekonomikoa eta finantzen jasangarritasuna zaindu behar dira. Foru-aldundien ardura izango da, finantza-tutoretzako eskumenak baliatuz, partzuergoa mendean duen toki-erakundeari printzipio horiek betearaztea.

95. artikulua.- Lurralde historiko bereko lurralde-erakundeek osatutako partzuergoak.

1.- Partzuergo bat osatu behar duten zuzenbide publikoko erakundeen lurralde-eremuak lurralde historikoaren eremua gainditzen ez duenean, partzuergoaren eraketa egingo da toki-araubidearen oinarritzko legeriaren eta dagokion lurralde historikoko foru-organoaren araudiaren arabera eta lege honi jarraituz aplikatzekoak dituen irizpideen arabera.

2.- Artikulu honetan aurreikusita ez dagoenerako, partzuergoen araubide juridikoa izango da

oinarrizko legerian izaera orokorrarekin ezarritakoa eta foru-araudian jasotakoa, eta, edonola ere, administrazio publiko bati atxikita egon beharko dute.

#### **96. artikulua.- Lurralde historiko batez gaindiko partzuergoak.**

1.- Partzuergoa osatzen duten zuzenbide publikoko erakundeen lurralde-eremuak lurralde historiko bat baino gehiago ukitzen baditu, baina autonomia-erkidegoaren barruan bada, artikulua honetan esaten dena bete beharko du.

2.- Partzuergo bat eratu edo partzuergo batera bildu nahi duten toki-erakundeetako osoko bilkurek horren aldeko erabakia hartu beharko dute, legezko kideak direnen gehiengo osoak aldeko botoa emanda. Partzuergoan sartu nahi duten gainerako erakundeen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den erabakia hartzeko, beren estatutuetan edo barne-funtzionamenduko arauetan esaten denarekin bat etorrira jardun beharko dute.

3.- Partzuergoaren estatutuak partzuergoa eratu nahi duten erakunde guztien ordezkariak osatutako batzorde batek landuko ditu, eta, edonola ere, partzuergora bildu den erakunde bakoitzak bozkatu ostean onartuko dira. Toki-erakundeen kasuan, estatutu horiek onartzeko, aurreko paragrafoan aipatzen den gehiengoa behar izango da.

4.- Partzuergoaren estatutuek funtzionamenduko arauak ezarriko dituzte, eta, egin beharreko egokitzapenak eginda, mankomunitateentzat lege honen 93.5 artikuluan aurreikusten diren ezaugarri berak zehaztuko dituzte.

5.- Estatutuetan zehaztu beharko da oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera zein administrazio publikori atxikiko zaion partzuergoa.

6.- Artikulu honetan aurreikusitako partzuergoak eratzeko, foru-aldundi eskudunak aztertuko du partzuergoa administrazio nagusiari atxikitzeak zer-nolako eragina daukan udalerrri edo toki-erakundearen finantza-jasangarritasunean, oinarrizko legerian ezarritako irizpideen arabera.

#### **97. artikulua.- Lurralde historiko baten lurralde-eremua gainditzen duten metropolialdeak.**

Eusko Legebiltzarraren lege bidez, lurralde historiko baten lurralde-eremua gainditzen duten metropolialdeak edo udalerrria baino eremu handiagoko beste erakunde batzuk sortu ahal

izango dira. Metropolialde horiek sortuko dituen legeak erakundeok zer-nolako eskumenak izango dituzten, zein organok osatuko dituzten eta araubide juridikoari buruzko gainerako osagaiak ere zehaztuko ditu.

## **IX. TITULUA.- UDAL-FINANTZAKETA**

### **I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.**

#### **98. artikulua.- Toki-ogasunak.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek ekonomiaren arloan izango dituzten eskubide eta betebeharren multzoak osatuko dute euskal tokiko ogasuna.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen ogasuna, lurralde historikoetako foru-organoek ogasunaren arloan onartutako xedapenen arabera arautuko da, eta, hala badagokio, lege honetan aurreikusitako aurreikuspenen arabera, bai eta tokiko araugintza-ahalez baliatuta onartutako arauen arabera ere.

#### **99. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ogasunen jarduerari buruzko printzipioak.**

1.- EAEko tokiko ogasunen jarduera printzipio hauen arabera izango da:

- a) Finantza-autonomia izango dute, hau da, ekonomia, finantzak eta aurrekontuak antolatzeko eta kudeatzeko ahala, baina lurralde historikoetako foru-organoek gai horietan dituzten eskumenei kalterik egin gabe.
- b) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna. Horrek, defizit publiko, zor publiko eta gastu-arauei dagokionez ezarritako errekerimenduak betetzea ekarriko du, gai horien inguruko legeria orokorrarekin eta, bereziki, lurralde historikoetako foru-organoek hartarako onartutako arau bereziekin bat etorrira.
- c) Finantza-nahikotasuna, hau da, toki-ogasunek behar beste baliabide izan beharko dute, lege honek, Eusko Legebiltzarraren beste lege batzuek edo lurralde historikoetako foru-arauek ematen dizkieten eskumenak gauzatzeko.

2.- Era berean, EAEko tokiko ogasunek ondorengo printzipioak bete beharko dituzte, beren baliabideak kudeatzerakoan: legezketasun-, gardentasun-, objektibotasun-, ekonomia-,

eraginkortasun-, efizientzia-, kontrol-, kuxaren batasun- eta arrazionaltasun-printzipioak.

3.- EAEko tokiko ogasunek beren aginpideak aurrera eramaterakoan, Euskadiko Ogasun Nagusiarekin eta lurralde historikoetako foru-ogasunekin koordinaturik, elkertasunez eta erantzukizunak banatuz jardungo dute.

#### **100. artikulua.- Baldintzarik gabeko finantzaketa. Salbuespenak.**

1.- Orokorrean, udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketa baldintzarik gabekoa izango da.

2.- Toki Autonomiaren Europako Gutunean xedatutakoari jarraituz, baldintzatutako finantzaketarako mekanismoak salbuespenez baino ezingo dira ezarri, eta arauzko xedapen autonomiko edo arauzko foru-xedapen bidez, edota EAEko erakundeen edo foru-erakundeen diru-laguntza politika jakin baten bitartez. Honako irizpide hauek jarraitu beharko dira:

- a) Udalerrien parte-hartzearen printzipioa: araudi horren ondorioz autonomia-erkidegoko edo lurralde historikoetako erakundeek udalerriei zuzenduta egingo dituzten planek, lehentasunak ezartzeko orduan, udalerriek ere parte hartu ahal izatea bermatuko dute, eta udalerrien interesak, kasuaren arabera, autonomia-erkidegoaren edo lurralde historikoen interesekin bateratzen saiatuko dira.
- b) Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioa: urte anitzeko kudeaketa ekonomikoa erraztu beharko da, eta toki-erakundeak inbertsioak nola egin planifikatu ahal izango du, eta erabakitze edo hautatzeko orduan, udaleko jarduera-planak eta lehentasunak izango ditu kontuan, lurralde historiko bakoitzean aplikagarria den aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko araudiarekin bat etorrira.
- c) Zerbitzu publikoen efizientzia, efikazia eta kalitatearen printzipioak: finantzaketa baldintzatutako sistemen ondorioz eskainiko diren zerbitzuetan bermatuta egongo da hartzailleentzat kalitatezkoak direla, zerbitzua jasagarria izango dela eta eskaintzen jarraituko dela.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko edo lurralde historikoetako erakunde eskudunek udalerrien diru-laguntzak erabili edo ezarri ahal izateko irizpideak eta baldintzak jartzekotan, lege honek

aurreikusitakoarekin bat etorrira, udalerrietako zerbitzu publikoen egiazko kostuen azterketa hartuko dute kontuan.

#### **101. artikulua.- Udalerrien eskumen eta zerbitzu berrien araubidea.**

1.- Lege honetan ezarritako esparru materialetan udalerriek eskumen propioak esleitzen dizkien lege edo foru-arauek, 18. artikuluan jasotako aurreikuspenak betetzeaz gainera, beti eta aldi berean, eskumen horiek beteko direla edo zerbitzuak emango direla bermatzeko behar diren finantza-baliabideak zehaztu beharko ditu.

2.- Era berean, euskal udalerrien eta gainerako toki-erakundeen autonomia-printzipioa, egonkortasun-printzipioa, finantza-jasangarritasunaren printzipioa eta nahikotasun-printzipioa bermatzeko, legearen edo foru-arauren proiektuarekin batera joango den txosten ekonomikoan, egoera berri horrek toki-erakundeen ogasunetan izango duen eraginari buruzko analisi bat ere jaso beharko da.

3.- Legearen edo foru-arauren proiektuarekin batera, Eusko Jaurlaritzan edo dagokion foru-aldundian ogasun arloan eskumena duen sailaren txostena joango da, aurreko paragrafoetan adierazitako printzipioak betetzeari buruzkoa.

#### **102. artikulua.- Eskubideak eskuratu, zertarako zehaztu eta preskribatzeko araubidea.**

1.- Toki-ogasunek eskubideak eskubideotako bakoitza arautzen duten arau berezietan xedatutakoaz bat eskuratuko dituzte..

2.- Diru-sarrera bakoitzaren araudian bestela ezartzen ez bada, emaitza erakundearen betebeharren multzoa finantzatzeko erabiliko da. Xede jakinetarako liberalitateetatik datozen diru-sarrerak direnean, ez da eraginari buruzko berriazko xedapenik beharko, baldin eta unean-unean indarrean dagoen araudiari jarraiki onartu badira liberalitateak.

3.- Toki-ogasunen eskubideek preskribatuko dute eskubide horiei zuzenean edo osagarri moduan zehazki ezartzekoak zaizkien xedapenetan esaten den gisan.

#### **103. artikulua.- Betebeharrak eskuratzea eta ondorioak izatea.**

1.- Euskadiko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek aplikagarri zaizkien lege eta foru-arauek





zuzenean agintzen dizkieten betebeharrak beren gain hartuko dituzte, bai eta egitate, egintza eta negozio juridikoetatik eratorzen diren betebeharrak ere, ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin bat.

2.- Toki-erakundeen eta haien organismo autonomoen kargura egitekoak diren ordainketa-betebeharrak aurrekontuak gauzatzearen, indarrean dagoen araudiaren edo epai judizial irmo baten ondorio direnean bakarrik gauzatuko dira.

#### **104. artikulua.- Zorpetze-araubidea, aurrekontu-araubidea eta kontabilitate-araubidea.**

1.- Lurralde historikoetako foru-organismoek emandako arauetan aurreikusitako moduan, toki-erakundeek eta haien mendeko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoek era guztietako kreditu-eragiketak hitzartzeko aukera izango dute, bai eta eragiketa horiek ziurtatzeko edo haien arriskua edo kostua murriztu edo dibertsifikatzeko finantza arloko beste eragiketa osagarri batzuk egiteko aukera ere.

2.- Toki-ogasunak foru-ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin guztiz artikulatzearen, EAEko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek urtebetetik gorako eperako itundu nahi dituzten kreditu-eragiketak lurralde historikoetako ogasunekin koordinatuko eta harmonizatuko dira, eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko zorpetze-politikarekin ere, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren barruan. Foru-aldundiek urtero txosten bat bidaliko diote Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari, bakoitzaren lurralde historikoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek hitzarturiko kreditu-eragiketen laburpenarekin.

3.- Lurralde historikoetako foru-organismoek emandako arauetan aurreikusitako moduan, toki-erakundeek eta haien mendeko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek erabiltzen dituzten irizpideekiko irizpide homogeneousak aplikatuko dituzte aurrekontu-prozeduraren eta kontabilitate publikoaren arloan, horrela, informazioa emateari dagokionez, euskal sektore publiko osoa sendotu dadin.

#### **105. artikulua.- Udalerrien plan ekonomiko-finantzarioak.**

1.- Foru-aldundiek beteko dituzte finantza-babeseko ahalmenak eta bai, ahalmen horiei dagokienez, udalerriek edota –aurrekontu egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako



helburuak bete ez badira– aldundiak berak onartutako plan ekonomiko-finantzarioei buruzko laguntza teknikorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako eskumenak. Hori guztia, aplikagarria den estatuko arauetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, eta lege honetan xedatutakoarekin bat etorrita.

2.- Edozein modutan, plan ekonomiko-finantzarioetan jasoko diren neurriak proportzionatuak behar dute izan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak –aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasun gaietan dituen eskumenak baliatuz– erabaki bidez ezarritako atalase edo irizpideen arabera –defizitaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburuetan– izandako desbideratzearekin alderatuta.

3.- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aurrekontu egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuarekiko desbideratze-atalaseak non jarri zehaztu ahal izango du, erabaki bidez. Atalase horien azpitik –aurrekontuaren, zorraren edo gastu publikoaren bolumenarekiko desbideraketan kopurua edo ehuneko hain txikia izanik–, inola ere ez da neurri osagarri izango udalaren zerbitzu-zorroan eragingo duenik, zerbitzu publikoen kudeaketa beste erakunde batekin partekatuz behartuko ez duenik, edo udalaren zein erakunde instrumentalen antolamendu egiturak arrazionalizatzea eskatuko duenik.

## **II. KAPITULUA: UDALERRIEN ETA GAINERAKO TOKI-ERAKUNDEEN FINANTZAKETA.**

### **106. artikulua.- Itunpeko tributuen etekinak.**

1.- Toki-ogasunek parte-hartzea izango dute Kontzertu Ekonomikoa dela-eta lurralde historikoek eskuratzen dituzten tributuen etekinetan, Estatuari ordaindu beharreko kupoa, autonomia-erkidegoari egin beharreko ekarpena eta une bakoitzean indarrean dagoen Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko aplikatuko den metodologia arautzen duen Legean aipatzen diren gainerako kontzeptu guztiak kendu eta gero.

2.- Udalerriei, ordenamendu juridikoak haientzat aurreikusitako eskumenen eta zerbitzuen arabera egokia den baliabide-maila bermatu behar zaie, eta baliabide-maila hori inola ere ez da izango araubide erkideko legeria aplikatzeagatik legokiekeena baino apalagoa.

### **107. artikulua.- Lurralde historiko bakoitzean parte-hartzea zehaztea.**

1.- Lurralde historiko bakoitzean, toki-erakundeek zenbateko parte-hartzea izango duten zehaztea lurralde historikoko foru-organoen eskumena da, eta, ondorioz, organo horiek askatasun osoz baliatuko dute eskumen hori, foru-arauetan aurreikusitakoarekin eta, hala dagokionean, artikulua honetako hurrengo paragrafoetan zehaztutakoarekin bat etorrira.

2.- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, aurrekontu-egonkortasunaren arloan dituen eskumenak baliatuz eta udalerrien finantza-egonkortasuna bermatzeko, politika fiskaleko gomendio gisa baino ez, banaketa egiteko irizpide batzuk zehaztuko ditu. Irizpide horiek aintzat hartuko ditu finantza-nahikotasunaren eta arrisku partekatua printzipioak, eta ahalegin fiskala sustatu, gastu arruntari buruz berdintasunezko eta elkartasunezko politika orokorra lortzen saiatzea izango dute helburu.

3.- Irizpide horiek ezartzeko, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak honako hauek izango ditu kontuan: biztanle-kopurua, ikastetxe publikoetan dagoen ikasle-kopurua, udalerriaren ahalegin fiskala, lurralde historiko bakoitzeko hiriburutzak, etorkin-kopurua, dispersioa edo langabezia.

4.- Lurralde historikoek irizpide horietatik aldentzeko aukera izango dute, eskumena duen foru-organok hartutako erabakiaren bidez.

5.- Dena dela, aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, erabaki bidez, udalerriek itunpeko tributuetan izango duten gutxieneko parte-hartzea zenbatekoa den finkatuko du.

6.- Lurralde historikoetako foru-organok arrisku partekatua irizpidez baliatuko dira, lurralde historikoei dagozkien zerga itunduetan toki-erakundearen parte-hartzea urtero ezartzeko garaian.

#### **108. artikulua.- Baliabideen aplikazioa.**

Aurreko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira udalerriei eta gainerako toki-erakundeek dagokien finantzaketa toki-erakunde horien ogasunaren baliabide arrunta izango da, haien eskumenekoak diren zerbitzuei aurre egin eta eskaini ahal izateko, betiere lege honetan aurreikusitakoarekin eta aplikatu beharrekoa den araudiarekin bat etorrira.

#### **109. artikulua.- Likidazioa.**

Ekitaldi bakoitzerako lurralde historiko bakoitzean udalerrien eta gainerako toki-erakundeen esku jarritako zenbatekoak behin betiko kitatuko dira ekitaldia amaitzean, itunpeko tributuengatik nahiz kontuan hartu beharreko gainerako diru-sarrerengatik bildutakotik lortutako diru-sarreraren datu errearen arabera. Likidazio hori positiboa edo negatiboa izan daiteke dagokion ekitaldian udalerrien esku jarritako zenbatekoekiko.

#### **110. artikulua.- Itunpekoak ez diren tributuetan parte-hartzea.**

Udalerriek eta gainerako toki-erakundeen parte-hartzea itunpekoak ez diren tributuengatik diru-sarreretan, Kontzertu Ekonomikoan eta aplikatzekoa diren foru-arauetan xedatutakoaren arabera egingo da.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehenengoa.- Tokiko araugintza-ahala.**

1.- Toki-erakundeek emandako arauak era honetakoak izango dira:

- a) Erregelamenduak: Udalbatzak onartutako xedapen orokorrak, toki-erakundearen antolaketa eta funtzionamendua, eta zerbitzu publikoen prestazioa arautzen dutenak. Era berean, biztanle-kopuru handiko udalerrietan, erregelamendu organikoak oinarrizko legerian aurreikusitako materien ingurukoak izango dira. Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, tokiko gobernu-batzarrak, kasuan. kasu, bere eskumenekoak diren materiei buruzko xedapen orokorrak eman ahal izango ditu.
- b) Ordenantzak: Xedapen orokorrak dira, luzaroan irauteko onartu direnak, gizarte antolamendurako eskubideak eta betebeharrak finkatzeko, hirigintzako arauak eta zerga-antolaketakoak barne

Alkatetzaren dekretuak eta jarraibideak: Alkateak bere eskumenen esparruan emandako xedapen orokorrak, antolaketa izaerakoak zein gizarte-antolamendukoak. Azken kasu horretan, udalbatzak onartutako erregelamenduak eta ordenantzak betearazteko. Alkatetzaren bandoak: Alkateak salbuespen-edo larrialdi-egoeretan emandako xedapen orokorrak. Betebeharrak gogoratzeko edo iragarkietarako ere erabil daitezke. Kasu horietan, ez dute balio arauemailerik.

2.- Ordenantzetan eta erregelamenduetan gaitasuna eman ahalko zaio alkateari edota gobernu-batzarrari, arau-xedapen horietan aldaketak sartzeko, baldin eta nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondoriozkoak badira, eta eskakizunak aldatu beharra edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu beharra badakarte. Aldaketetan berenberegiri adieraziko da hori. Aldaketa horien berri, berehala emango zaio udalbatzari, berrets ditzan.

#### **Bigarrena.- Zehapen-prozedurak.**

Kausan kasuko sektore-legeak, zehapen-prozedura arautzekoan, ordenantzak ere arau-hauste eta zehapenak tipifikatzen laguntzea aurreikusten duenean, aukera egongo da –legeak isunak nahitaezkoak direla ezarri ezean– ordenantzan, isunen ordeztokiko komunitatearen aldeko lan baliokideak eta arau-haustearen larritasunarekiko proportzionalak izango direnak ezartzeko – hala nola prestakuntza saioetara joatea edo gizarte-jardueretan parte hartzea–, betiere organo zehatzaileak hala erabakitzen badu.

#### **Hirugarrena.- Federazioak eta elkarteak.**

1.- Udalerriek federazioak edo elkarteak eratu ahal izango dituzte, Interes erkideak elkarrekin babestu eta sustatzeko,.

2.- Erakunde horiek nortasun juridikoa izango dute, eta beren helburuak betetzeko erabateko gaitasuna. Euren estatutuak izango dituzte arau, eta alderdi hauek aurreikusiko dituzte, nahitaez:

- a) Erakundearen izena.
- b) Xedeak.
- c) Gobernu-organoak, elkartutako toki-erakundeen ordezkari izango direnak.
- d) Jarduteko araubidea eta erabakiak hartzeko sistemak.
- e) Kide berriak onartzeko eta kide izaera galtzeko prozedura.
- f) Elkartutako toki-erakundeen eskubideak, tartean, gutxienez, elkarteko zereginetan parte-hartzea.
- g) Baliabide ekonomikoak eta horien kudeaketa.

3.- Federazioek eta elkarteek:

- a) Beren eginkizunen esparruan, hitzarmenak egin ahal izango dituzte edozein herri-administrazioarekin, eta autonomia-erkidegoko eta foru-aldundietako administrazioen erakunde laguntzaile gisa jardun, toki-erakundeen eta haien mendeko erakundeek jasotzen dituzten diru-laguntzen kudeaketan.
- b) Udalekin hitzarmenak formalizatu ahal izango dituzte udal-zerbitzuak emateko helburuarekin, baina betiere administrazio-ahalak baliatzea ez badakar.
- c) Udal-sareak eratu ahal izango dituzte, eta haietara bildu.
- d) Autonomia-erkidegoko edo foru-aldundiko kontratazio-sistema zentralizatuari atxiki ahal izango zaizkio toki-erakundeen baldintza beretan.
- e) Kontratazio zentralak sortu ahal izango dituzte eta horiei atxiki ahal izango zaizkie elkartutako erakundeak, haiek kontratatutako zerbitzu, hornidura eta zerbitzuetarako.
- f) Legitimatutako daude udalerrietako eta gainerako toki-erakundeetako langile publikoekin negoziazio kolektiboaz aritzeko. Aukera izango dute egiten ari den negoziazio kolektiboari atxikitzeko, negoziazioa hasi aurretik. Hala eginez gero, erabakia izenpetzen den unetik, atxikitako udalerriak eta toki-erakundeak hartuko diren erabakiei loturik egongo dira. Era berean, negoziazioaren ondoren ere, udalerrien elkarteak burututako negoziazio kolektibora eta horren ondoriozko erabakietara atxiki ahal izango dira udalerriak.

4. Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen euskal udalerrien elkartea zein den zehazteko kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietatik zenbat diren elkartekide eta zenbateko biztanle-kopurua duten.

5.- Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ezarpen handiena duen udalerrien elkartea. Horrela bada, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari egokituko zaio Euskadiko udal-mailako erakunde-multzorearen ordezkartza publikoa, hala zehaztutako eremu guztietan.

6.- Elkartearen xede publikoarekin bat etorrira, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak ziurtatua izango du finantzaketa baldintzatu gabea eta nahikoa, eta finantzaketa hori ezin izango da izan Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakitako tokiko ogasunen gutxieneko partaidetza-mailari dagozkion baliabideen % 0,15 baino gutxiagokoa.

7.- Lege hau indarrean sartu eta lau urteko epean edo, bestela, udal-hauteskunde bakoitzaren



ondoren, zehaztu egin beharko da, xedapen honetan aurreikusitako arauen arabera, zein den Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ezarpen handiena duen udalerrien elkarte, elkarte horri emango baitzaio xedapen honen seigarren paragrafoan aurreikusitako finantzaketa. Zehaztaper hori Eusko Jaurlaritzaren barruan toki-araubidearen arloko eskumenak dituen sailburuaren agindu bidez egingo da.

#### **Laugarrena.- Enplegu publikoaren eskaintza bateratuak**

1.- Kasuan kasuko udalerriak edo toki-erakundeak hala erabakitzen badu, enplegu publikoaren eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo dagokion lurralde historikoaren enplegu publikoaren eskaintzan sartu ahal izango ditu .

2.- Toli-erakundeek enplegu publikoaren eskaintzak EAEko beste administrazio publiko batzuekin koordinaturik burutzen badituzte, euskal enplegu publikoari buruzko arauetan horretarako ezarritako prozedura eta eskakizunak bete beharko dituzte.

#### **Bosgarrena.- Estaturako gaikuntza duten funtzionarioak. Erakunde komunak eta lurralde historikoen eskumenak.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko administrazioetan, Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako eginkizunak izango dira honako hauek:

- a) Idazkaritza-lana, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza emateko.
- b) Finantzen, ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketa kontrolatzea eta barrutik ikuskatzea, eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa.

2. Estaturako gaikuntza duten funtzionarioak eskala eta azpieskala propioetan daude egituratuta, eta, kasuaren arabera, toki-araubidearen oinarritzko legerian definitutako kategorietan.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri dagozkio Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei buruzko eskumen hauek:

- a) Langile horiei gordetako lanpostuak sortzea, sailkatzea eta kentzea.
- b) Toki-erakundeen elkarteak eratzea eta desegitea, gordetako lanpostuei

elkarrekin eusteko.

- c) Gordetako lanpostuak sortu eta mantentzeko betebeharretik toki-erakundeak salbuesteko adieraztea, dagokion foru-aldundiak txostena egin ondoren.
- d) Lehenengo mailako idazkaritza duten korporazioetan, Diruzaintzako lanpostua korporazioko funtzionario behar bezala kualifikatu batek bete dezan baimentzea.
- e) Izendapen askeko sistemaren bidez hornitzeko gordeta dauden lanpostuen sailkapena baimentzea.
- f) Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen administrazio-egoerak deklaratzeko.
- g) Lanpostuak betetzeko lehiaketetan, eskubide historikoetatik eta bereziki Kontzertu Ekonomikotik darizkien berezitasun juridikoen eta ekonomiko-administratiboen ezagutzari eta euskararen ezagutzari dagozkien merezimenduak finkatzea.
- h) Lehiaketa arruntetan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariarekin koordinatu foru-aldundi bakoitzak egindako deialdiak argitaratzeko, baita haiek hartutako erabakiak ere batera argitaratzeko.
- i) Lehiaketa bateraturako epaimahaia izendatu, eta foru-aldundiekin eta Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin koordinatzea lehiaketa ebazteko.
- j) Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen prestakuntza, behin estatu mailan langile horien prestakuntzaren ardura duten erakundeek eta Herri Arduralaritzaren artean hitzarmena sinatu ondoren.
- k) Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen erregistroa sortzea Euskadin. Bertan jasoko dira Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten Estaturako gaikuntza duten funtzionario guztiak, euren administrazio-bizitzan eragiten duten egintzak eta autonomia-erkidegoan langile horientzat gordeta dauden lanpostuak ere bai.
- l) Foru-aldundiei eta tokiko korporazioei berariaz esleituta ez dagoen beste edozein eskumen.

4.- Foru-aldundiei dagozkien Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei buruzko eskumen hauek:

- a) Bakoitzak bere lurralde-eremuko lehiaketa bateratuen deialdiak egitea eta ebaztea, eta dagozkien argitalpenak egitea bakoitzak bere aldizkari ofizialean.
- b) Lehiaketa arrunten oinarri komunak onartzea.
- c) Bakoitzak bere lurralde-eremuan lehiaketa arrunten deialdi bateratua egitea eta



ebaztea, eta dagozkien argitalpenak egitea bakoitzak bere aldizkari ofizialean.

- d) Izendapen askeko sistema bidez hornitzeko diren lanpostu hutsak betetzeko deialdiak, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzea.
- e) Izendapen askeko sistema bidez betetzeko baimentzea aurrekontuaren eta ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren barne-fiskalizazioa eta kontrola, kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa eginkizunak esleituta dituzten lanpostuak, eta lanpostu horiek utziz gero, nahitaezko txostena egitea aurretik.
- f) Behin-behineko izendapenak egitea, baita zerbitzu-eginkizunak, metatzeak, zerbitzu-eginkizun zirkunstantzialak, bitarteko eta behin-behineko langileen izendapenak, azken kasu honetan 5. paragrafoko d) idatz-zatiak aurreikusitakoa gorabehera.
- g) Behin-behineko izendapenak baimentzea eta egitea, oinarritzko legerian aurreikusitako bi urteak igaro aurretik, eta legeri horrek ezarritakoaren arabera.
- h) Trukaketak baimentzea dagokion lurralde historikoaren lurralde-eremuaren barruan.
- i) Langile hauen guztirako ordainsarien gehieneko mugak zehaztea Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egindako gomendioaren ondoren, lege honek 77.1.g) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5.- Toki-korporazioei dagozkie Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei buruzko eskumen hauek:

- a) Lanpostuak izendapen askeko sistema bidez betetzeko deialdiak eta oinarriak onartzea.
- b) Lehiaketa arrunteko berariazko oinarriak onartzea eta deialdiak egitea.
- c) Lehiaketa arruntetan, tokiko ezaugarrien arabera komenigarritzat jotzen diren berariazko merezimenduak ezartzea.
- d) Izendapenak egitea, oporrak, baimenak, lizentziak, gaixotasuna edo bestelako zirkunstantziak direla-eta lanpostuak hutsik geratzen badira. Hutsik gehienez ere hiru hilabetez egongo diren lanpostuak izango dira eta epe hori ezingo da luzatu ez berritu.

Behar besteko gaitasuna duen udaletxeko funtzionario bat izendatuko da, lanpostua eskuratzeko eskatzen den titulazioa duena, ahal dela.



Lanpostua hutsik egoteko arrazoiak hiru hilabetetik gorakoak badira edo epe hori gaindituko dela aurreikusiz gero, korporazioak beste proposamen bat igorri beharko dio foru-aldundiari eta aurreko paragrafoko f) idatzi-zatian.

- e) Toki-araubidearen inguruko legeriak toki-erakundeei ematen dizkien guztiak erakundeko funtzionarioei dagokienez.

6.- Honako hau da Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei aplikatuko zaien diziplina-araubidea:

- a) Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioei diziplina-espeditenteak irekitzeko eskumena izango dute honako organo hauek:

- Korporazioko dagokion organoa, non funtzionarioak egozten zaizkion egintzak burutu dituen, baldin eta arau-hauste arina sor badezakete.

Eskatutako titulazioa duen funtzionarioik ez badago, edo bestelako kasuetan, tokiko korporazioak ezin badu hutsegite arinengatik espeditentea egin, funtzionarioak egozten zaizkion egintzak burutu dituen tokian tokiko foru-aldundiak egingo du.

- Autonomia-erkidegoa, bere lurralde-eremuko toki-korporazioetako funtzionarioei dagokienez, baldin eta salatutako ekintzak Estatuaren oinarrizko araudian edo EAEko funtzio publikoaren legerian arau-hauste larritzat tipifikatuta badaude.

- Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioa, salatutako egintzek Estatuaren oinarrizko araudian arau-hauste oso larritzat tipifikatutako arau-hausteak eragin ditzaketenean.

- b) Espeditentea irekitzea erabakitzen duen organo eskudunak haren instruktorea izendatzeko eta espeditentepean dagoen pertsonaren behin-behineko etenaldia dekretatu edo altxatzeko eskumena izango du, baita espeditentea irekitzeko erabakia hartu aurretik eginbideak agintzeko ere.



Espedientea titulazioen A1 Azpimultzoko Kidegoko edo Eskalako edozein karrerako funtzionario batek ireki ahal izango du, baita Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen eskalako funtzionarioek ere, betiere arau-hausteari dagokion gaiari buruzko ezagutzak badituzte.

c) Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioei diziiplina-zehapenak jartzeko eskumena izango dute honako organo hauek:

- Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroak, oinarrizko araudian arau-hauste oso larri gisa jasotako arau-hausteengatik zehapenak jartzen direnean.
- Autonomia-erkidegoak, eginkizunak eteteko eta kargugabetzeko zehapenak –aurreko lerrokadan jasotzen ez direnak– ezarri behar direnean.
- Tokiko organo eskudunak, hutsegite arinengatik zehapenak ezarri behar direnean.

Ezarritako zehapena bere terminoetan gauzatu da, baita exekuzioaren unean funtzionarioa zehapena eragin duten egintzak sortu ziren lanpostua ez den beste bat betetzen ari bada ere.

Kargugabetze-zehapenak lanpostuaren galera eragingo du; beraz, langileak ezin izango du zehapenari dagokion korporazio berean beste lanpostu bat lortu finkatutako epean; epe hori sei urtekoa izango da, gehienez ere, arau-hauste oso larrien kasuan; eta hiru urtekoa, arau-hauste larrien kasuan.

Eginkizunak eteteko zehapenak sei urteko iraupena izango du, gehienez ere, arau-hauste oso larrien kasuan, eta hiru urtekoa, gehienez ere, arau-hauste larrien kasuan.

#### **Seigarrena.- Udalerrien parte-hartzea, tributuak banatzeko irizpideak ezartzekoan.**

Lurralde historikoetako foru-organoez itunpeko tributuak eta itunpekoak ez diren tributuak banatzeko irizpideak ezartzen udalerriek ere parte hartuko dute, eta parte hartze hori bideratzeko –betiere beraiek erabakitako autoantolaketarako gaitasuna errespetatuz–, EAEn



ezarpen handiena duen udal-elkarteak lurralde historiko bakoitzeko finantza kontseiluan izango dituen ordezkariak izendatzeko proposamena egingo die kasuan kasuko foru-organoei, toki-autonomiaren printzipioa erabat bermatze aldera.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa.- Udalerrien eskumen propioen esparru materialetan eskumenak baliatzea.**

1.- Eusko Legebiltzarraren legeen bidez edo Batzar Nagusien foru-arauden bidez beste ezer agintzen ez den bitartean, udalerriek eutsi egingo diete lege hau indarrean sartzen denera arte indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkieten eskumenei, guztiek ere behar duten finantzaketa baitaukat.

2.- Lege hau indarrean sartzen denean EAEko sektore-legeriak edo foru-arauek artean lege honen 17.1 artikuluan aurreikusitako esparru materialetako eskumen propioen irismena zehaztu gabe badute, udalerriek han jasotako ahalmenak eta ahalak baliatu ahal izango dituzte, finantzaketa propioarekin, edo dagokion administrazioarekin lankidetzaz hitzarmenak sinatuta, eta, horrelakoetan, beste administrazioak bermatuko dizkie behar dituzten baliabideak.

### **Bigarrena.- Jarduera, zerbitzu edo prestazioekin jarraitzea.**

Udalerriek aukera izango dute –eskumen propioetan sartu ez arren, eta eskumen eskuordetu edo transferitu ez izan arren– lege hau indarrean sartzen denean garatzen ari ziren jarduera, zerbitzu edo prestazioekin aurrera segitzeko, eta kasu horretan ez zaie lege honen 16. artikuluko zazpigarren eta zortzigarren paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko.

### **Hirugarrena.- Zerbitzu-kartak**

Lege honen xedapen-zatian aurreikusitakoa gorabehera, hogeita mila biztanletik gorako udalerriek lege hau indarrean sartu ondoren lau urteko epea izango dute udalaren ekintza publikoan bereizten diren arlo ezberdinei buruzko zerbitzu-kartak edo antzeko dokumentuak onartzeko. Gutun edo antzeko dokumentu horiek, besteak beste, helburu neurgarriak eta emandako zerbitzu publikoen kalitatea herritarrek neurtu ahal izateko ebaluazio- edo gogobetetze-sistema bat bilduko dituzte. Bi urterik behin egin beharko da, gutxienez, ebaluazio hori. Bai helburuek bai ebaluazio- edo gogobetetze-sistemak genero-ikuspegia jasota eduki

beharko dute.

#### **Laugarrena.- VI. tituluan bildutako gardentasun-betebeharren aplikagarritasun geroratua.**

1.- 2.000 biztanletik beherako udalerriei eta haien erakunde instrumentalei legeria orokorrean bildutako gardentasunari buruzko betebeharrak baino ez zaizkie exijituko, legerian ezarritako epe eta baldintzetan. Lege honetan bildutako gardentasunari buruzko betebeharrak aplikatuzetik salbuetsita egongo dira, halaber, Arabako kontzejuak.

2.- 2.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek eta haien erakunde instrumentalek gehienez ere bost urteko epea izango dute, lege hau indarrean sartzan denetik, VI. tituluan jasotako gardentasunari buruzko betebeharrak erabat betetzeko.

3.- 5.000 eta 10.000 biztanle arteko EAEko udalerriek eta haien erakunde instrumentalek gehienez ere lau urteko epea izango dute, lege hau indarrean sartzan denetik, VI. tituluan jasotako gardentasunari buruzko betebeharrak erabat betetzeko.

4.- 10.000 eta 20.000 biztanle arteko EAEko udalerriek eta haien erakunde instrumentalek gehienez ere hiru urteko epea izango dute, lege hau indarrean sartzan denetik, VI. tituluan jasotako gardentasunari buruzko betebeharrak erabat betetzeko.

5.- 20.000 biztanletik gorako EAEko udalerriek eta haien erakunde instrumentalek gehienez ere bi urteko epea izango dute, lege hau indarrean sartzan denetik, VI. tituluan jasotako gardentasunari buruzko betebeharrak erabat betetzeko.6.- Mankomunitateek, partzuergoek edota udalez gaindiko beste edozein erakundek, haien kide den biztanle-kopuru handieneko udalerriak bete beharreko eskakizunetara egokitu beharko dute.

7.- Lege honetan eta xedapen iragankor honetan jasotako gardentasun-betebeharrak gorabehera, berdin-berdin bete beharko dira gardentasunaren oinarritzko legerian administrazio publiko guztientzat eta sektore publikoko haien erakunde ororentzat gutxieneko betebeharrak gisa jotakoak, zeinak araudi horretan aurreikusitako eran aplikatuko baitira.

#### **Bosgarrena.- Gardentasunaren ataria**

Lege honen 57.2 artikuluan aurreikusitako betebeharrak lege hau indarrean sartu eta gehienez



ere bi urteko epean gauzatu beharko da.

**Seigarrena.- Tokiko musika-eskolen eta udal-euskaltegien berariazko araubidea.**

Lege hau indarrean sartzen denean dauden tokiko musika-eskolak eta udal euskaltegiak finantzatzeko diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunen laguntza publikoak, toki-erakunde bakoitzarekin sinatutako urte anitzeko lankidetzeta-hitzarmenen bidez bideratuko dira, finantza-nahikotasuneko esparru egonkorra bermatzeko, halako moldez non, udal ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jarri gabe, zerbitzuaren jarraipena segurtatuko den.

**Zazpigarrena.- Sektore-legeen erregelamendu bidezko garapena.**

Lege honen aurretik onartutako sektore-legeen edo foru-arauen erregelamendu bidezko garapenak berekin badakar udalerriei propioztat esleitutako eskumenetatik datozen zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak mamitzea, finantzaketa egokia izan beharko du, nahitaez.

**Zortzigarrena.- Euskadiko Toki Administrazioaren Erregistroaren indarraldia.**

Harik eta lege honen 11. artikuluan aurreikusitako Toki Administrazioaren Erregistroa erregelamendu bidez arautu eta funtzionamenduan jarri arte, indarrean jarraituko du abenduaren 15eko 383/1987 Dekretuaren bidez arautzen den Euskadiko Tokiko Administrazioaren Erroldak.

**Bederatzigarrena.- Toki Erakundearen Erregistroari buruzko hitzarmenak.**

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak hitzarmenak sinatuko ditu hiru foru-aldundiekin, lege honen 11. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA.-**

1.- Lege honi kontra egiten dioten lege eta xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

2.- Zehazki honako hauek geratzen dira indarririk gabe:

- a) 326/1994 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskadiko Udal Kontseilua sortzen duena.
- b) 364/1987 Dekretua, abenduaren 1ekoa, Toki-erakundeek ikur bereizgarriak hartzeko



edo aldatzeko prozedura onartzeko dena.

- c) 271/1983 Dekretua, abenduaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenak aldatzeko prozedura finkatzen duena.

## **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.- Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeari egindako aldaketak.**

1.- Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikulua 1. paragrafoaren amaieran beste intziso bat gehituko da:

“Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua eratutzat joko da, EAEko udal-erakunde maila osoaren eta bere sektore publikoaren finantza-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin eta lurralde historikoetako foru-ogasunekin koordinatze aldera.”

2. Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikulua 4. paragrafoaren amaieran beste intziso bat gehituko da:

“Udal-ordezkarietako edozeinek eskatuta ere bilduko da, Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Legeak 104. eta 107. artikuluetan aurreikusitako materiei dagozkien gaiak aztertzeko.”

3. Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28. artikuluari beste paragrafo bat gehituko zaio:

“10.- Artikulu honetako 2. eta 5. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan udalerrien hiru ordezkeri sartuko dira, lurralde historiko bakoitzeko bana. Ordezkeri horiek ezarpen handiena duen EAEko udalerrien elkarteak proposatu, eta Lehendakariak izendatutako ditu.



Udal-ordezkariek eskubide osoko kide izango dira Kontseiluan. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, baldin eta lantzen diren kontuak Euskadiko Udalen Legearen 104. 105. eta 107. artikuluetan jasotakoak badira; eta hitz egiteko eskubidea bakarrik, gainerako gaietan.

Udal-ordezkariek eskubide osoko kide direnean 104. eta 105. artikuluetan jasotako gaietan erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da erabaki horiek gehiengo osoz onartzea, betiere gehiengo horrek maila instituzional bakoitzeko, gutxienez, ordezkar bat daukala.

107. artikuluan aurreikusitako erabakiak foru-aldundien eta udalen ordezkariek soilik hartuko dituzte, eta autonomia-erkidegoaren ordezkaritzak hitz egiteko eskubidea baino ez du izango. Erabaki horiek gehiengo osoz onartutako dira, betiere gehiengo horretan gobernu-maila bakoitzak –foru-aldundiek eta udalek– gutxienez bi ordezkar daukala.

#### **Bigarrena.- Sistema berria funtzionamenduan jartzea.**

Lege honetan xedatutakoa betetzeko, legea indarrean sartzen denetik bi hilabeteko epean, Euskadin ezarpen handiena duen udalerrien elkarteak Herri Dirubideen Euskal Kontseilurako zein ordezkar izendatu proposatuko dio Lehendakariari.

#### **Hirugarrena.- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen aldaketa.**

Beste intziso bat erantsiko zaio Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 45. artikuluko 4. paragrafoari:

“Ondorio horietarako, gizarte-larrialdiko laguntzan finantza-nahikotasuneko esparru egonkor bat bermatze aldera –biztanleriaren segmentu jakin batzuentzat bereziki garrantzitsua den zerbitzu publiko baten jarraipena bermatzen baitu horrek–, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako zuzkidurak beharren urte anitzeko programa baten arabera banatuko dira. Urte anitzeko programa hori Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen udalerrien elkarteak adostuko dute, esparru-hitzarmen baten bidez. Programa





horretan, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean toki-erakunde bakoitzari esleitutako gutxieneko baliabideak zehaztuko dira, aurretik erregelamendu bidez ezarritako esleitze-irizpideen arabera”.

**Laugarrena.- Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen aldaketa.**

Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 16. artikuluari beste paragrafo bat eransten zaio.

4.- Artikulu honen 1. paragrafoan xedatutako gorabehera, Zerga Koordinaziorako Organoan Euskadin ezarpen handiena duen udalerrien elkar-teak proposatu eta Lehendakariak izendaturiko hiru ordezkari sartuko dira, hitzarekin eta botoarekin, lege honen 7. eta 11. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera tokiko zergak aztertu behar direnerako. Horrelakoetan, erabakia hartzeko, gehiengo osoa beharko da, eta gehiengo oso horretan instituzio-eremu bakoitzak –erkidegoak, foru-aldundiek eta udalek– gutxienez ordezkari bat izan beharko du.

**Bosgarrena.- Legearen garapena.**

Ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Seigarrena.- Indarrean sartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.